


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DOKTOREGO TESIA

Hizkuntza-irisgarritasuna, ikus-entzunezkoak hizkuntza gutxituen erakusleiho

Noranzko biko eskubide eta zerbitzua

Marijo Deogracias Horrillo, doktoregaia

Josu Amezaga Albizu, zuzendaria

Doktorego programa: Gizarte komunikazioa

Leioan, 2024ko martxoaren 11n

Ikerketa hau posible izan da hurrengo laguntzei esker:

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntz politika eta Kultura sailaren (IT-881-16) diru-laguntza.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordearen “Tesiak euskaraz egiteko doktorego aurreko ikertzaileak prestatzeko kontratazio-deialdia”.
- EUVOS. Patrimonio Cultural Inmaterial. Para un programa europeo de subtítulo en lenguas no hegemónicas (FEDER/Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades – Agencia Estatal de Investigación/ ref. CSO2016-76014-R) ikerketa-proiektua.
- ALMA Red de Excelencia sobre I+D+I para accesibilidad y lenguas minoritarias en los medios audiovisuales (ED2018-102475-T) ikerketa-proiektua.

Guztiak ere UPV/EHUren NOR ikerketari esker (eranskinetan gehitu ditugu finantzazio horri esker osatutako hainbat kongresutarako posterrak):





Creative Commons lizentzia

Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko lizentzia

(CC-BY-NC-ND)

Libre zara: Lana partekatu, kopiatu, banatu eta publikoki komunikatzeko hurrengo baldintzekin:



Aitortu (Attribution - BY). Obraren egiletza egoki identifikatu behar da.



EzKomertziala (*NonCommercial*): Edukiekin irabazi ekonomikorik ez lortzea derrigortzen du.



LanEratorririkGabe (*NoDerivativeWorks* edo *NoDerivs*): Edukiak elkar-banatzen uzten ditu, baina inongo aldaketarik egin gabe.



PartekatuBerdin (*ShareAlike*): Edukien jatorrizko lizentzia berdinarekin erabiltzea derrigortzen du. Bildumako artikulua bakoitzaren lizentzia errespetatu beharko da, kasu guztietan.

Ulertuta:

- Uko egitea: Baliteke horietako hainbat baldintza ez aplikatzea titularraren egiletza eskubideak lortzen badira.
- Domeinu publikoa: Lana eta bere elementuetakoren bat domeinu publikoan badago, indarrean dagoen legearen arabera baldintza horri ez dio lizentzia honek eragingo.
- Beste eskubide batzuk: Hurrengo eskubideei ez die lizentziak eragiten inondik inora:
 - Erabilera legitimo edo legeak onartutako bestelako mugengatik eratorritako eskubideei ez die aurrekoak eragiten.
 - Autorearen eskubide moralak.
 - Beste pertsona batzuek izan ditzaketen eskubideak lanaren edo honen erabileraren inguruan, hala nola irudi-eskubideak edo pribatutasuna.
- Oharra: Lana berrerabili edo banatzeko orduan, oso argi geratuko da lanaren lizentzian jasotakoa.

AURKIBIDEA	
ESKERTZAK	8
TESIAREN LABURPENA	12
LABURDURAK EUSKARAZ HONELA EMAN DIRA	16
I. ZATIA	17
1. ATALA: Abiapuntua	17
1.1. Abiapuntua eta aztergaiaren hurbilketa laburra	17
1.2. Tesiaren motibazioa	19
1.3. Gaiaren interes soziala	21
1.4. Ikerketa prozesua	22
Hipotesiak, galderak eta helburuak	25
2. ATALA: Marko teorikoa	
2.1. Esparru teorikoa	29
2.1.1. Irigarritasunaren kontzeptua	30
2.1.2. Irigarritasuna eskubide	30
2.2. Ikus-entzunezko irigarritasuna	35
2.2.1. Ikus-entzunezkoen irigarritasuna bermatzeko lege eta araudiak	36
2.2.2. Ikus-entzunezko irigarritasun-zerbitzua ahalbidetzeko metodoak	41
2.3. Ikus-entzunezko itzulpengintza	44
2.3.1. Ikus-entzunezko itzulpengintzaren metodoak	46
2.3.2. Ikus-entzunezko itzulpengintzaren mapa	48
2.4. Hizkuntzen tratamendua ikus-entzunezkoetan	50
2.5. Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza minoritarizatuak	52
2.6. Hizkuntza gutxituen babeserako arau-esparrua	54
3. ATALA: Metodologia eta ikerketa prozesua	60
3.1. Diziplina anitzeko metodologia	63
3.2. Neurketak. Irigarritasuna telebistan	67
3.3. Esperimentazioa, Whatscine baliatuta	73
3.4. Etengabeko behaketa bibliografikoa	76

3.5. Elkarrizketak	76
3.6. Kasu-azterketa	79
3.7. Itxiera	80
4. ATALA: Elkarlana oinarri	82
5. ATALA: Aztergaiak eta emaitzak	82
5.1. Auzi linguistikoak badu lekua telebistan?	83
5.2. Zinemagintza txikiak sustatzeko programak	84
5.3. Euskarazko zinema eta irismena. Eta etxean zer?	90
II. ZATIA	96
1. ATALA: ARGITALPENAK	
1. ARTIKULUA	
Deogracias-Horrillo, M., & Amezaga-Albizu, J. (2016). Linguistic Accessibility for Small Language Cinema. <i>International Journal of Sociotechnology and Knowledge Development</i> , 8(2), 16–26. https://doi.org/10.4018/IJSKD.2016040102 Linguistic-Accessibility-for-Small-Language-Cinema.pdf	98
2. ARTIKULUA	
Pérez-Pereiro, M., & Deogracias-Horrillo, M. (2021). Barriers and opportunities for cinema distribution in European minority languages. The case of O que arde in the Digital Single Market. <i>Language & Communication</i> , 76, 154–162. https://doi.org/10.1016/J.LANGCOM.2020.11.006	110
3. ARTIKULUA	
Pérez-Pereiro, M., Deogracias-Horrillo, M. eta Barreiro-González, M. (2021). Filmes-insignia, políticas audiovisuales y circulación. Los casos de Pa negre, Handia y O que arde. <i>Quaderns Del CAC</i> , (47), 13-24. DOI: 10.34810/qcac47id404672. QuadernsdelCac47_PerezPereiro_etal_ES.pdf	120
4. ARTIKULUA	
Deogracias-Horrillo, M.; Zabalondo-Loidi, B.; Azpillaga-Goenaga, P. (2023). ¿Se Apoya Al Euskera En El Sistema Cinematográfico Y Audiovisual De La Comunidad Autónoma De Euskadi?. En Castelló-Mayo (Ed.), <i>EUVOS: La aportación de las pequeñas cinematografías al patrimonio cultural inmaterial europeo (73-89 or.)</i> . Tirant humanidades, Valencia. EUVOS-artikuluua.pdf	133

2. ATALA	
2.1. EZTABAIDA	151
Irisgarritasun linguistikoa hizkuntza politiken estrategia	151
Noranzko biko irigarritasuna	156
Ikus-entzuntzekoa euskaraz izango da, ala ez da irigarria izango	158
Eskaintzaren beharrezko behaketa	161
2.2. ONDORIOAK	163
2.3. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	165
3. ATALA: Erreferentzia bibliografikoak	169
ERANSKINAK	196
1. Tebista-arduradunei bidalitako galdeketa-eredua	197
2. Whatscine aplikazioaren galdeketa-eredua	200
3. EUVOS proiektuko elkarrizketa-eredua	206
4. Posterra 1: Hizkuntza irigarritasuna: ikus-entzunezkoak hizkuntza gutxituen erakusleio	211
5. Posterra 2: ETB ingurune inklusiboa euskararentzat	212

ESKERTZAK

Hasteko eta behin abentura honetan murgildu arazi ninduten NOR Ikerketa taldeko kideak izan nahi nituzke gogoan, eta nigan izan duten konfiantza eskertu.

Eusko Legebiltzarrean egindako lana amaituta, 2012an, jarri nion erronka nire buruari atzera ikasten hastekoa. Gogoan daukat egun eguzkitxu batez Edorta Aranarekin izandako telefono bidezko elkarrizketa. Artean argi ez nuen arren, aukera desberdina iruditu zitzaidan Multimedia Komunikazioa UPV/EHU-EITB masterrean izena ematea eta berak lagundu zidan azken urratsa ematen. 2012-2013 ikasturtean itzuli nintzen Leioako campusera.

Ikasturte hura eta gero, deitu zidan Bea Narbaizak, masterrean ere irakasle izan nuenak, lanaldi erdiko ikerlari aritzeko eskaintza egiteko. Langabezian nintzen, unibertsitatera gerturatuta eta NOR ikerketa taldea ezagutzen. Zer gehiago ikerketara hurbiltzeko?

Eta horrela abiatu nuen Josu Amezagarekin abentura hau. Telebista kanalen jarraipena egiten, eskuzko datu-hustuketa desatseginarekin; lan mekaniko aspergarria, dena esaten hasita!

Baina gauzak zer diren, gustatu zitzaidala egiten ari nintzena. Bazegoela handik hainbat irakurketa egiteko aukera eta datuak beharrezkoak zitzaizkigula egoera ezagutzeko eta analisi egokiak egin ahal izateko. Eta, hala nintzela, iritsi zen tesia egiteko aukera. Josu izan zen proposatzailea. Gainerako guztia gutxietsi barik nirekin izandako pazientzia infinitua eskertu nahi nioke. Eskerrik asko, zuzendari jauna: aukera eman didazulako, nire aldeko apustua egin zenuelako eta hainbeste aldiz abandonatu izanagatik ere, eutsi diozulako, didazulako.

Unibertsitatera itzuli nintzen garai horretan ikasi nuen zer zen “egresado” izatea, euskaraz parekorik inon aurkitu ez dudana arren. Izan ere, kazetaritzan lizentziaduna naiz, dagoeneko desagertuta dagoen kategoria, lizentziadunarena. Horrek agerian lagatzen du unibertsitatera itzuli nintzenean diruz lagundutako ikerketari heltzeko nituen aukera eskasak. Baina hortxe agertu zen EHUren Euskara Errektoreordetzaren tesiak euskaraz egiteko deialdia eta horri esker ekin genion uste baino gehiago luzatu den ibilbideari. Baina, Umberto Eco tesia nola egin liburuan zioen gisara, ez da

hogeita gutxirekin egiteko lana tesia; adinean aurrera joanda egiten da, berrogei edo berrogeita hamar urterekin. Eta, gauzak zer diren, langa hori gaindituta iritsi naiz ni honaino. Horregatik ere ez daukat ahazteko unibertsitatera itzuli nintzenean bulego-kide izan nituen Libe Mimenza eta Gorka Salces, artean ni baino dezente gazteagoak biak, lehenago iritsi direla doktoretzaren helmugara. Baina, esan bezala, inoiz ez da berandu; are gehiago, bidean aurkitu dudana eskuzabaltasuna jasotzeko.

Tesigintza hau, jende asko eta oso interesgarria ezagutzeko aukera izateaz gainera, asko eman didaten pertsonekin lan egiteko aukera parebakoa izan baita.

Eta gertukoenetatik hasita: Patxi Azpillaga eta Bea Zabalondo. Zuekin Galiziarra egindako bidaiak errepikatzeko beti prest, lagunak! Eskerrik asko erakutsi didazuenagatik eta egindako lan eskeragatik. Zuei esker egin ahal izan dut artikulu bidezko bilduma hau! Bai, luze jo du bideak eta denbora dezente igaro da baita Vigoko ostra haietatik ere; euri dezente (klima aldaketaren ondorioz Euskal Herri tropikal honetan geroz eta euri-egun gutxiago ditugun arren). Baina, aizue, iritsi gara! Plazera izan da zuekin biokin lan egitea, eta bidaiatzea, eta bazkaltzea eta Galizia ezagutzea! Zinez, eskerrik asko bioi! Zuek ere bazarete ibilbide honen parte ezinbesteko.

Izan ere, artikulu-bilduma bidezko tesi honen ezaugarri bat azpimarratu beharko banu, elkarlana litzateke. Elkarlan horren emaitza dira bilduman aurkezten diren artikuluak, Bea eta Patxirekin sinatutakoa bata, baina baita Galiziako lagunekin sinatutakoak: Marta Perez-Pereiroekin, bata; eta Martarekin eta Soliña Barreiro Gonzálezekin, bestea. Galiziak lotu gaitu, lagunok! Galiziera, katalana eta euskara, film-marka bihurtuta, gainera! Eta artikulurik elkarrekin sinatu ez badugu ere, ezin Silvia Roca Baamonde ahaztu. Zer zatekeen EUVOS proiektua bere lan eraginkorra barik. Eskerrik asko zuri ere, Silvia; pazientzia galanta duzu!

Eta, EUVOS aipatuta, nola ez, Margarita Ledo Andi6n eta Enrique Castell6 Mayo. Diotenez, beteranotasuna gradu bat da, baina Margarita kategoria osoa da. A ze harrera egin digun gerturatu garen bakoitzean, eta zenbat ikasi dugun berarekin Santiagoko unibertsitatean. Enriquek borobildu nahi izan zuen lana, eta hari zor diogu Bea, Patxi eta hirurok ere gure ikerketaren zati batek argia ikusi izana. Eskerrik asko, zinez, zuri ere.

Eta Galizian bertan, baina piska bat beherago, Vigo aldera badoaz ere esker oneko berbak. Pablo Romero-Fresco, eskerrik asko! Eskerrik asko antolatu zenuen jardunaldiagatik, egin zenigun harreragatik eta gerora etorri zen elkarlanagatik. Ze, a ze ekiteko gaitasuna duten batzuek! Pablarekin ginela ezagutu nuen Pilar Orero ere. Pablok bazekien zerbait, baina ez genuen serio hartu: ez segi emakume horrekin hizketan, bestela proiektu bat ez, lau lotuko dituzue! Eta, hala izan zen: hogeit minutuko hizketaldia Patxi, Pilar eta hirurok eta Josu endredatu genuen ALMA Sarea sortzeko! Eta horri esker ezagutu ditugu: Anna Matamala, Jaume Segura, Fernando Boronat, Ana Tamayo, Estel·la Oncins, Miquel Edo eta Helena Casas. Bartzelonan elkartu ginen pandemiaren aurretik, eta gero? Ba gero etorri zen etorri zena... Bideo-konferentzia bidezko elkarlana. Ze jende majoa! Ze jende behargina! Eta zer aberasgarria den diziplina ezberdinetako jendearekin jardutea. Eskerrik asko!

Akademiatik kanpo ere asko dira eskerrak eman behar dizkiedanak. Hasteko Joselu Blancori. Zenbat aldiz idatzi eta deitu diodan Euskal Telebistaren azpidatziez galdetzen! Eta, beti erantzuteko prestu bera; elkarrizketak eskaintzeko, datuak emateko... Eskerrik asko, Joselu.

Hemendik aurrera, izen-abizenekin bakarrik gogoratuko ditut ibilbide honetan modu batera ala bestera lagundu, esku bat bota edo bidea zabaltzen lagundu didaten lagunak (izenaren arabera, alfabetikoki ordenatuta):

Aida Vallejo (EHU); Aintzane Perez de Palomar (EITB); Aitor Ubarretxena (EZAE); Aitziber Atorrasagasti (Kultura saila); Ana Isabel Morales (itzultzailea); Ana Maria Martin Torrens (Multisignes); Anaitz Goia (2deo); Alberto Barandiaran (Nafarroako gobernua); Arantza del Pozo (Vicomtech); David Alegrete (Mediaset); David Riera (Multisignes); Elena Galdiz Goitisoló (Producción LND); Faust Kanalaetxebarria (Kultura saila); Francisca Pulgar Vernalte (Eusko Jaurlaritzza); Fernando Redondo Neira (Universidad de Santiago); Fernando Ramallo (Universidade de Vigo); Francisco Armero (RTVE); Gurutze Peñalva (Zineuskadi); Ignacio Basco (Whatscine); Igor Garcia Olaizola (Vicomtech); Iñaki Gurrutxaga Ugalde (EITB); Iñigo Arandia (Tinko); Jasone Agirre Garitaonandia (Eusko Legebiltzarra); Jara Ayucar (Zineuskadi); JMiguel Beltran (Zineuskadi); Jon Abril (Elhuyar); Jon Garaño (zinegilea); Joseba Ezeiza (EHU); Josu Erkiaga (Gernikako udal euskaltegia); Juan Manuel Carrero Leal (CESyA); Judith Vazquez Salazar (El Conquis); Kaisa Hilden (Yle TV); Kim Maiteny Muñoa (Filmazpit);

Maarit Koponen (University of Eastern, Finland); Maite Taranco (EITB); Martin Calvo Bañez (SGAE); Merce Martínez Lorenzo (Univesidade de Vigo); Mikel Alonso (EHU); Miren Dobaran (Eusko Jaurlaritz); Miriam Frances Garcia (EHUko ikasle ohia); Nagore Rementeria (Elhuyar); Naiara Larrakoetxea (EHU eta Euskal Gorrak); Moriarti produkzioak; Roxana-Maria Gâz (Universitatea Babeş-Bolyai); Russel Jones (S4C); Samuel Yod Martin (Universidad Politécnica de Madrid); Santiago Torregrosa Povo (Subtitulam); Thierry Etchegoyhen (Vicomtech); Unai Gorrotxategi (Talaíos); Yn Gywir (BBC Cymru).

Eta, ez, lagunak zuek ez zaituztet ahaztu. Ez dugu proiektu honetan zuzenean lan egin, baina elkarrekin gabiltza NOR Ikerketa taldean. Hortaz, taldekide guztiei: plazera izan da!

Azken eskertza bat, Mikel Basaberi. Ez bakarrik (Bea Zabalondok bezala) zuzenketekin laguntzeagatik eta nire purrustadak aguantatzeagatik; baizik eta ibilbidea osatzeko azken bultzada emateagatik: “Martxua segiduan jan! Hiru hilebete ditxun! Zer don ba hori! Benga, amaitxuin! Bai!”. Eskerrik asko, Mikel, denagatik.

Tesiaren laburpena

Artikuluaren bilduma bidezko tesi hau ikus-entzunezkoen digitalizazioak ekarri duen testuinguruan abiatzen da, euskara hizkuntza gutxituak esparru horretan balia ditzakeen aukerez galdetuta. Hasteko argituko dugu ‘hizkuntza gutxituak’ kontzeptua Mike Cormackek (2007) darabilen zentzuan darabilgula guk ere: “ ‘gutxiengo’ berbak soilik adierazten du hizkuntza hauek komunean dutena, hau da, politikoki eta ekonomikoki estatu jakin bateko komunitate zabalagoek menderatzen dituztela”¹ (Cormack, 2007: 2). Are gehiago, autorearen arabera, “hiztun gutxi dituen hizkuntza taldeak handi baten hizkuntza-eskubide berberak balitu, ez litzateke garrantzitsua izango gutxiengoaren estatusa; talde handiak egiten baitu minoriaz ‘arazo’” (*ibid*, 2007: 2)².

Europar Batasunean 24 hizkuntza ofizial daude gaur egun, 24 estatu-hizkuntza (ofizialtasun estatutua izateko estatu kide guztian izan behar baita ofiziala hizkuntza), hiztun kopurutik edo hizkuntza egoera soziolinguistikotik harago, estataltasunaren elementu juridiko batekin baitu zerikusia eta, beraz, Europako gainerako hizkuntzek minoritario izaera hartzen dute (Ruiz-Vieyetez, 2022: 40).

Ikus-entzunezkoen kontsumoa geroz eta anitzagoa izatea ekarri du digitalizazioak eta pantaila aniztasunarekin batera, hizkuntza hegemonikoen eskaintza ia mugarik gabe biderkatu da. Hala ere, itzulpengintza audiobisualak leiho bat zabaldu dio gainerako hizkuntzek, baita hizkuntza minorizatuek ere, presentzia izan dezaten eskaintza horren baitan; batez ere, azpidatzen bitartez. Nahiz eta bestelako kezkak ere eragin dituen garapen horrek, hizkuntza gutxituen esparruan hizkuntz-kalitatearekikoa, adibidez (Martínez-Lorenzo, 2021).

Paraleloan ikus-entzunezko irisgarritasunak ere aurrerapauso handiak egin ditu teknologiaren eta digitalizazioaren eskutik (Orero, 2021). Desgaitasun sentsorialak, alegia, entzumen- eta ikusmen-desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak

¹ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “*Only the term minority makes explicit what these languages have in common, that they are dominated politically and economically by numerically larger communities within a particular state*”.

² Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “*If a language group with a small number of speakers was given the same linguistic rights as a large language group, then its status as a minority would be unimportant, and it is the nationalism (whether explicit or not) of the large group that denies these rights. It is the majority group that makes a ‘problem’ of the minority*”.

bermatzeko, hainbat arau garatu dira ikus-entzunezkoekin lotuta, eduki horiek eskuratzeko bermea izan dezaten. Eta testuinguru horretan garatu diren teoria eta ikerketek ikuspegi berri bat eskaintzen digute irisgarritasun-linguistikoaz jarduteko, hizkuntza gutxituen mesedetan.

Horregatik diogu, bilduma honetan aurkezten diren lanek ikus-entzunezkoen irisgarritasuna eta ikus-entzunezko itzulpengintza dituztela oinarri; aukera ematen digutelako hizkuntza gutxituen presentzia bermatzeko, ikus-entzunezkoen esparruan. Batetik, entzumen- eta ikusmen-desgaitasunen bat duten pertsonen eduki audiobisualetara hurbiltzea ahalbidetu dielako irisgarritasunak. Bestetik, ikus-entzunezko itzulpengintzak aukera ematen duelako edukien hizkuntza ulertzeko; are, itzulpen-ikasketen esparruan ere hizkuntza-irisgarritasunaz ari direnean irisgarritasun-zerbitzu guztien bateratzaile gisa (Orero, 2021). Azkenik, ikerketa akademikoaren baitan, ikus-entzunezko itzulpengintza ikus-entzunezko komunikabideen irisgarritasun forma gisa definitzen dutelako hainbat autorek (Díaz-Cintas, Orero eta Remael, 2007).

Izan ere, irisgarritasuna ez da mugatzen mugikortasun auzi batera, edo oztopo fisikoak gainditzeko modura. Gizarteratzearekin, integratzearekin, ere lotzen da (Orero, 2005; Díaz-Cintas, 2010). Eskubide auzia da (Greco, 2016) eta, ildo horretan, gizarteko talde zaugarrienei baliagarri zaie (Orero, 2004) irisgarritasuna bermatzeko. Hala, hizkuntza gutxituen komunitate linguistikoak ere talde zaugarri gisa hartuta, pentsa daiteke ikus-entzunezko ekoizpenetan hizkuntza minoritarioen itzulpenak integratzea onuragarria dela gutxiengo linguistiko horri ikusgarritasuna emateko (De Ridder eta O'Connell, 2018).

Testuinguru horretan ulertzen ditugu hizkuntzaren eta irisgarritasunaren auziak esku harturik: hizkuntza gutxituak ere irisgarri izan behar baitute; are gehiago, hizkuntza hegemonikoan ari den ikus-entzunezko esparru batean.

Horregatik, eta helburuei dagokienez, ikus-entzunezko itzulpengintzak ireki duen bidea aintzat hartzea ezinbesteko deritzogu, irisgarritasun linguistikoa bermatzeko; oztopo linguistikoak gainditzeko laguntzen baitigute diziplina bien uztartzeak. Batetik, ikus-entzunezko itzulpengintzaren diziplinak ikus-entzunezko edukiak irisgarri egiten laguntzen digulako, izan hizkuntza ulertzen ez denean, izan hartzaileak desgaitasun

sentsorialen bat daukatenean. Eta, bestetik, ikus-entzunezko irisgarritasuna ezin dugulako isolatutako diziplina gisa ulertu; hau da, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunen bat duten pertsonen ikus-entzunezko edukietara sarbidea ahalbidetzeko diziplina edo metodo huts gisa. Irisgarritasunak eta itzulpengintzak, biek dute izendatzaile komun gisa informaziora eta entretenimendura sarbidea erraztea, eta audiodeskripzioa edo gorrentzako azpidazketa itzulpen intralinguistiko, interlinguistiko eta intersemiotiko gisa ikusi daitezke (Toledo, 2018). Azken batean, arazo linguistiko eta sentsorialetatik erator daitezkeen arrakalak ixten laguntzen du ikus-entzunezko itzulpengintzak (Neves, 2005) eta horregatik ere irisgarritasuna da giltzarria pantailen itzulpenean (Gambier, 2003: 179). Izan ere, ikus-entzunezkoen itzulpengintza desberdintasun linguistiko eta kulturalentzat soluzio da, ez bakarrik tekniko baizik eta desafio soziokultural eta politikoei erantzuteko (*ibid*, 2003: 183).

Gainera, audiobisualaz gozatzeko modua aldatzen ari den aro digitalean, hizkuntza bat baino gehiago entzuteko aukera dago gaur egun, eta erraztu egin da jatorrizko hizkuntzen kontsumo-modua. Egoera horrek bidea irekitzen digu, hizkuntza gutxituen ikuspegitik, araudi eta teknologia horiek baliatzeko euskara ikusezin izan ez dadin, ez telebistan, ez zineman, ezta plataforma digitaletan ere.

Metodologiari dagokionez, metodo anitz erabili dira ikerketa honetan zehar; are gehiago, hainbat epetan egin delako eta modu koralean osatzen joan delako. Bibliografiaren analisia (irisgarritasunaren eta ikus-entzunezko itzulpengintzaren inguruan), analisi dokumentala (irisgarritasunaren inguruko eta zinemagintzaren arloko lege, araudi eta diru-laguntza publikoak), analisi kuantitatiboa (estatuko telebista-kate jeneralisten hizkuntza-eskaintza), esperimentazioa (film emanaldi elebidunak eta teknologia), kasu azterketak (*Pa negre*; Villaronga, 2010; *Handia*, Garaño eta Arregi, 2017 eta *O que arde*; Laxe, 2019), elkarrizketak (zine-zuzendari eta sektoreko hainbat profesionalen) eta galdeketak (azpidatzen inguruan hainbat telebistatako ordezkariak eta esperimentuan zehar) uztartu ditugu bidean.

Metodologia aniztasun horrek erakutsi digu, ikus-entzunezkoen esparruan desgaitasunak dituzten pertsonen kasuan haien eskubideak bermatzeko legediak eta araudiak garatu badira ere, hizkuntza gutxituen kasuan, hizkuntza eskubideak aitortzeko legediek ez dutela betearazpen maila bera, horretarako ardura dutenen aldetik. Are, nazioartean hizkuntza minoritarioak babesteko hitzarmen bakarra

1992an onartutako Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna da (aurrerantzean Eurogutuna edo EEUHEG). Balio izan du ondare linguistiko tradizionalarekiko arreta jartzeko eta berau babestu eta garatzeko politika publikoen beharra ikusarazteko (Ruiz-Vieytez, 2022: 52). Izan ere, “bere helburu nagusia kulturala da, hau da, hizkuntzak bultzatzen ditu Europako kultura-aniztasuna bermatzeko ezinbesteko elementu diren neurrian” (Ramallo, 2017: 76). Hala, estatu sinatzaileei dagokie aitortutako hizkuntzak sustatzeko neurriak hartzea, eta hain justu horregatik konpromiso horrek ez du marko komun gisa funtzionatzen.

Bestalde, horrek guztiak, irigarritasuna ulertzeko moduz galdera batera garamatza: Zergatik ulertu irigarritasuna norabide bakarrean? Zergatik baliatu irigarritasuna bakarrik desgaitasunak dituzten pertsonen kultura *mainstreamera* sartzeko aukera gisa eta ez, alderantziz? Izan ere, ikus-entzunezko itzulpengintzak, esaterako, azpidatzen bidez, aukera ematen die hizkuntza gutxituei entzutekoak izan daitezen hizkuntza hegemonikoan ari direnen aldetik; aldiz, irigarritasuna ez dugu ulertzen gorren kulturara sartzeko bide gisa. Zergatik ez planteatu noranzko biko irigarritasuna?

Ondorioz, ikerketa honek gure hasierako hipotesitik abiatuta diogu: ikus-entzunezkoen irigarritasuna hizkuntza gutxituen erakusleioa izan daitekeen modu berean, berdin ulertu beharko genuke desgaitasun sentzorialak dituzten pertsonen kasuan ere irigarritasuna baliatzea euren errealitatera sarbidea ahalbidetzeko.

“Hizkuntza guztiak direlako nortasun kolektibo baten adierazpen, bai eta errealitatea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna ere; hortaz, funtzio guztietan garatu ahal izateko baldintzak izan behar dituzte (...) hizkuntza-komunitate orok eskubidea du baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, gizarte-funtzio guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko helburuarekin, bai eta hizkuntzaren transmisioa eta hizkuntzaren etorkizuneko proiektzioak bermatzeko beharrezko baliabideak izateko ere” (Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Protokoloa, 2017).

Hitz gakoak: irigarritasuna, ikus-entzunezkoak, hizkuntza gutxituak, itzulpengintza.

LABURDURAK EUSKARAZ HONELA EMAN DIRA

- **AVT** (Audiovisual Translation): Ikus-entzunezko Itzulpengintza.
- **AD** (Audiodescription): **AD** Audiodeskripzioa.
- **ALMA** (Ikus-entzunezkoetako Irigarritasuna eta Hizkuntza Gutxituak). Hainbat ikerketa talde batzen dituen bikaintasun sarea.
- **AVMDS (Audiovisual Media Directive Service)**: Ikus-entzunezko Zerbitzuen Zuzendarua.
- **CESyA**: Azpidatzi eta audiodeskripzioaren Espainiako Zentroa.
- **Design for all**: Denontzako diseinua.
- **EB**: Europar Batasuna.
- **EITB**: Euskal Irrati Telebista.
- **EITB Media**: Euskal Irrati Telebista enpresa.
- **EUVOS** Patrimonio Cultural Inmaterial. Para un programa europeo de subtulado en lenguas no hegemónicas: EUVOS. Europako Kultur Ondare Immateriala. Europako hizkuntza ez-hegemonikoetan azpidazteko egitarau baterantz.
- **Eurogutuna edo EEUHEG**: Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.
- **MA** (Media Accessibility): Komunikabideen Irigarritasuna.
- **SL** (Sign Language): **ZH** Zeinu-hizkuntza.
- **SDH** (Subtitles for Deaf and Hard of Hearing): **GA** Gorrentzako Azpidatziak.
- **SOV** (Subtitling Original Version): **AJB** Azpidatzitako Jatorrizko Bertsioa.
- **OV** (Original Version): **JB** Jatorrizko Bertsioa.
- **UPV/EHU**: Euskal Herriko Unibertsitatea.

I. ZATIA

1. ATALA: Abiapuntua

1.1. Abiapuntua eta aztergaiaren hurbilketa laburra

Tradizionalki oztopo arkitektonikoak gainditzeko modu gisa ulertu izan da irigarritasuna (Alonso, 2007; Hernandez eta Montes, 2002); alegia, desgaitasunaren testuinguruan. Baina desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak aitortu ahala (2003an Desgaitasunak dituzten pertsonen Europako urtea izan zen), eta haien informaziorako eta aisialdirako sarbidea ere aintzat hartzeaz batera, ikus-entzunezkoen irigarritasunaz hitz egiten hasi zen eta berau garatzeko metodoez.

Komunikabideen eta desgaitasunaren Europako Biltzarrean (2003an, Atenasen), Europako komunikabideek adostu zuten irigarritasunak terminoak barne hartzen zuela desgaitasunak dituzten pertsonen, gainerakoek bezala, eskubidea dutela informaziora iristeko (Europako 89/552EEC zuzentaraua). Irigarritasunaren esparrua asko zabandu da harrezkero, eta 'denontzako diseinua' edo 'irigarritasun unibertsala' bezalako kontzeptuak agertu eta garatu dira (Díaz-Cintas *et al.*, 2007). Denontzako diseinua 2004ko Stockholmeko adierazpenean jaso zen honela: pertsona guztiek aukera berdintasunean izateko, gizartearen alderdi guztietan parte hartzeko helburu eta horretarako diseinatuko ziren zer guztiek aintzat hartu behar zuten giza aniztasuna, gizarteratzea eta berdintasuna euren diseinuetan (EIDD, 2004). Irigarritasun unibertsala, aldiz, ingurune, prozesu, ondasun, produktu nahiz zerbitzu, objektu, tresna eta gailu orok bete beharko lukeen baldintza litzateke ulergarri, erabilgarri eta praktikagarri izateko pertsona guztientzat, segurtasun eta erosotasunean eta modurik autonomoen eta naturalenean, ahal dela, eta denontzako diseinua estrategia eskatzen du (6/2022 Desgaitasunak dituzten Pertsonen eta euren Gizartearen Legea).

Giza eskubideen mugimenduak oinarri, eta Informazio eta Komunikazio teknologiek sustatuta, irigarritasuna eremu propio bihurtu da. Diziplinarteko ikerketan oinarritua ezagutza hori guztia komunitatearen esku jarri da hainbat oztopo gainditzeko soluzio irigarriak eskainiz; kognitiboak, sentsorialak, fisikoak,

linguistikoak, sozialak eta kulturala, besteak beste (Şimon, Dejica, Fărcaşiu eta Kilyeni, 2022: 460). Hori guztia aintzat hartuta, beraz, irisgarritasunik eza faktore diskriminatzailea litzateke (Fraiz-Brea, Alén-González, & Domínguez-Vila, T, 2008: 410).

Era berean, ikus-entzunezko itzulpengintzaren garapenak hizkuntza-aniztasunari zabaldu zien atea, eta hizkuntza ez ezagutzeak oztopo izateari utzi zion ikus-entzunezko edukiez gozatzeko orduan. Jakina, merkatuaren premiek bultzatuta garatu da zinemaren irisgarritasun linguistikoa, hasieran gehiago bikoizketaren bidez, eta gero azpidatzien bidez, izan ere geroz eta bikoizketa-herrialde gehiagok jo dute azpidatziak erabiltzera, izan erabaki ekonomikoengatik, merkeago direlako, izan teknologiak erraztu duelako aukera hori (Chaume, 2012: 117).

Hizkuntza guztiak, ordea, ez dira aukera berdintasunean lehiatu irisgarritasun linguistikoari dagokionez. Hizkuntza hegemonikoek izan dute lehentasuna eta dirua edukiak itzultzeko. Horregatik ere diogu hizkuntza gutxituei ate edo aukera berriak ireki zaizkiela teknologiak irisgarritasun-metodoak erraztu dituenetik. Alegia, euskaraz sortutako film edo ikus-entzunezko edukiak berdin balia dezakete irisgarritasun-metodoak audientzia handiagoetara heltzeko (bikoizketa nagusi den Espainia lako estatuetan gaztelaniara bikoiztuta erakutsi izan dira ikus-entzunezko edukiak historikoki, izan telebistan ala zinema-aretoetan). Baina zergatik ez ikusi irismena beste norabidean? Alegia, zergatik ez baliatu ikus-entzunezko irisgarritasuna gure hizkuntza gutxitura audientzia, erabiltzaile, interes berriak erakartzeko, euskara ezkutatu beharrik izan barik?

Kezka horixe presente izan da ikerketa honen ibilbide guztian zehar. Izan ere, euskara bezalako hizkuntza baten normalizazio prozesuan ikus-entzunezkoen irisgarritasunak eskaintzen dio aukera hizkuntza ikasten ari denari entzuten ari den hori ulertzeko, hizkuntza ezagutzen ez duenari euskara ezagutzen joateko eta, nola ez, entzumen arazoak dituzten pertsonak, legeek agindu bezala, eduki horietara sarbidea izateko eskubidea bermatzeko. Azken batean, eta Díaz-Cintasek itzulpengintzaz ari bazen ere, bai hizkuntzaren muga gainditzeko bai oztopo sentsorialak gainditzeko denean, itzulpen-prozesuaren helburua horixe bera da: bestela ezinezko litzatekeen informazio eta entretenimendu iturri batera sarbidea erraztea (Díaz-Cintas, 2005: 4). Eta autore berau parafraseatuz gure helburua da, irisgarritasuna bermatzea eta

oztopoak gainditzeko aukera ematea, hizkuntza gutxitura ekartzeko hizkuntza hegemonikoan sortutakoa, baina baita hizkuntza hegemonikoan ari den audientziari aukera ematea hizkuntza eta kultura minorizatuak ezagut ditzan.

Aukera hori, baina, lege eta kultura politiken garapenez letorke, baita garapen teknologikoz ere. Modu horretan, lekuan lekuko praktika nagusiekin batera, gehiengoari ere hizkuntza gutxituetan egindako zinema erakusteko aukera emango litzaioke. Eta beste hizkuntza eta erakunde batzuk ari dira ikus-entzunezkoak duen erakarpenari adi, baita euren hizkuntza eta kultura esportatzeko duen potentzialari ere (Díaz-Cintas, Orero & Remael, 2007: 16)³.

1.2. Tesiaren motibazioa

Ikerketa honi heltzeko aukera Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) NOR ikerketa taldearen baitan sortzen da. Ikus-entzunezkoen hizkuntz erabilera berriak aztertzea da taldearen ikerketa-lerroetako bat eta digitalizazioak beste aldagai garrantzitsu batzuk ekarri ditu arlo horretara; hala nola edukien, pantailen eta hizkuntzen ugaltzea.

Errealitate berri horretara egindako lehen hurbilketa MULTILINGUAL TV ikerketa-proiektuaren (CSO2011-28060-C02- 01/COMU) baitan egiteko aukera izan nuen; artean, Gizarte Komunikazio masterra egiten ari nintzela UPV/EHU. Espainiako telebista jeneralisten edukien eskaintza aztertzeari ekin genion, ikusita, jada, ez zituztela bakarrik gaztelaniako emisioak eskaintzen. Digitalizazioak eta teknologia berriek hizkuntza-aniztasunari leiho berri bat ireki zioten telebisten eremuan, lehen satellite bidezko telebistak egin zuen bezala (Amezaga, 2004). Esaldi batean, audio- eta azpidatzi-kanalen dualtasuna ahalbidetu die digitalizazioak. Hala, azpidatziak emisio hizkuntzan egiten dituzten bitartean, audioak hainbat hizkuntzatan eskaintzen dituzte, emisio-edukia beste herrialde batekoa denean, eta jatorrizko audioarekin datozenean erositako emisio-eskubideak.

Azpidatziak emisioa legez arautu zen Espainian 2010ean (7/2010 Ikus-entzunezko lege orokorra), pertsona gorrek ere ikus-entzunezko edukietara sarbidea izan

³ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: "other languages and institutions do seem to be awaking to the attraction exerted by the audiovisual world and the potential it offers to exporting their language and culture".

zezaten. Kasu horretan, azpidatziak emisio-hizkuntza berean dira, eta helburu dute ikus-entzunezko edukietarako eskubidea bermatzea entzumenik ez duten edo entzumen-arazoak dituzten pertsonen.

Testuinguru horretan otu zitzaigun hizkuntza gutxituentzat aukera berri bat sortzen zela irudikatzea. Jakitun, dena den, hainbat hizkuntzen presentzia ez dugula nahastu behar kultur aniztasunarekin; batez ere, ikus-entzunezko irisgarritasuna bermatzeko azpidatziak hizkuntza-emisio berean direlako eta, beraz, telebistek, kasu horretan, kanal bat = hizkuntza bat (Amezaga, Narbaiza eta Azpillaga, 2013) eskemari jarraitzen diotela. Alegia, azpidatziek –edo nahi bada, ikus-entzunezko irisgarritasuna ahalbidetzeko zerbitzu horrek konkretuki– ez dutela berez hizkuntza-aniztasuna bermatzen. Beste kontu bat da, erabilitako irisgarritasun-metodoa zeinu-hizkuntza denean. Izan ere, zeinu-hizkuntza, berez, hizkuntza gutxitua da (Krausneker, 1999; Buda, 2018) eta Esteban eta Ramallok (2019: 27) azpimarratu bezala, diskriminazio bikoitza jasaten du: ahozko hizkuntzekiko, batetik, eta ahozko hizkuntzek duten aitortza, babes eta sustatze mailatik oso urruti egoteagatik, bestetik. Are, zeinu-hizkuntza arazo fisiko batekin lotzen duen ideologiak azaltzen du berau babesteko eta sustatzeko eman diren erantzun instituzional, sozial eta politikoak, batez ere, “laguntzeko” edo “arazoa konpontzeko” neurria izatea eta ez, ordea, hizkuntza politikaren barne lantzea.

Aldiz, ikus-entzunezko irisgarritasunaren esparruan, uste dugu, irisgarritasuna ulertzeko modua hedatu den gisara, ikus-entzunezko irisgarritasuna ere aukera bat dela hizkuntza gutxituen ikusgaitasuna bermatzeko. Eta, hipotesi horrekin ekin genion ikerketa honi.

Bestalde, eta kontuan izanik ikerketa hasi genuenetik hona zenbat aurreratu den ikus-entzunezko irisgarritasuna ahalbidetzeko teknologia eta, baita, azpidatzen eskaintza –batez ere *streaming* plataformei esker–, gure ikerketa ere egokitzen joan da, baina hasierako hipotesitik aldendu barik; alegia, ikus-entzunezko irisgarritasuna ahalbidetzeko zerbitzuak hizkuntza gutxituen ikusgaitasuna ahalbidetzeko tresna ezinbesteko direla.

1.3. Gaiaren interes soziala

Ikus-entzunezkoen eskaintza biderkatzeak ekarri duen digitalizazioak kezka eragin du ez bakarrik hizkuntza gutxituen eremuan, baita Europar Batasuneko estatu kideen artean ere. Hizkuntza hegemonikoek betetzen dute *streaming* plataformen eskaintza, eta, batez ere, ingelesak hartzen du zatirik handiena Europar Batasuneko herrialdeetan. Are gehiago, hizkuntza nagusi asko eta indartsuak dituzten Suitza eta Belgikako herrialdeek bakarrik gainditzen dute ingelesezko edukia, bertako hizkuntza nagusiak konbinatzen, oraintsu garatutako ikerketa baten arabera, (Agirre-Miguel, López-Gómez, Larrakoetxea-Salgado, Arias-Badia, Deogracias-Horrillo, Amezaga-Albizu, Burres-Pardo & Martínez-Juez, 2023).

Testuinguru horretan begi-bistakoa da berebiziko garrantzia hartzen duela ikus-entzunezko itzulpengintzak. Bikoizketaren, baina batez ere, azpidatzen bidez islatzen delako gaur egun hizkuntza-aniztasuna plataforma digital horietan. Marko legalik ez dago, ordea, hizkuntza-aniztasuna bermatzea eskatzeko; are gutxiago, hizkuntza gutxituei lekua egiteko. Horrek berriro ere ikus-entzunezko irigarritasunera garamatza. Estatuak, Europar Batasunari jarraituta, hainbat lege eta arau garatu dituzte desgaitasun sentzorialak dituzten pertsonen ikus-entzunezko edukietara sarbidea izan dezaten bermatzeko, aurrerago ikusiko dugun legez. Telebistaren bidez gauzatu da hori orain arte. Era horretan, ikusiko dugun bezala, azpidatzen, audiodeskripzioaren edo zeinu-hizkuntzaren bidez bermatzen zaie pertsona horiei edukia eskuragarri eta ulergarri eskaintzea.

Baina, posible litzateke teknologia baliaituta, irigarritasuna bermatzeko legedia hizkuntza gutxituen ikusgaitasuna bermatzeko aplikatzea? Uler genezake hizkuntza gutxituen hiztunen auzia irigarritasun auzi bat bezala? Derrigortu daitezke telebistak, *streaming* plataformak, zinema-aretoak hizkuntza-aniztasuna bermatzera, eta hizkuntza gutxituak ez daitezen ikusezin bihurtu?

Gaiak geroz eta interes gehiago pizten duela agerikoa eta Euskal Herrian, euskarari gagozkiola. 2021ean, Pantailak Euskaraz mugimendua sortu zen, ikus-entzunezkoen mundua pantaila-anitzean euskarak duen presentzia eskasarekin arduraturik. Aurkezpen manifestuak hamar eskari batu zituen: 1) Euskarazko ikus-entzunezkoen sektoreko finantzaketa publikoa argitzea eta handitzea; 2) EITB indartzea eta

euskararen normalizazio-tresna bihurtzea; 3) euskarazko *streaming* plataforma bat sortzea; 4) *streaming* plataforma nagusietan euskararen presentzia bermatu eta areagotzea; 5) zinemaren lege propioak ezartzea; 6) bideojokoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea; 7) sortzaile plataformetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea; 8) ikus-entzunezkoen lege propioak sortzea; 9) lurralde-administrazio bakoitzean ikus-entzunezkoen kontseilu propioa sortzea; 10) espainiar eta frantziar kate publikoek edukiak euskaraz eskaintzea, (Pantailak euskaraz webgunetik).

Kezka egon badago gizartean digitalizazioaren garaiotan euskarazko ikus-entzunezko edukien etorkizunaren inguruan; aukera gisa planteatzen dira *streaming* plataformak, baina ahaztu barik Administrazioaren aldetik estrategia zehatza ere ezinbestekoa dela. Horregatik ere gure ikerketa honek, hein batean, kezka sozial horri erantzuten diola uste dugu.

1.4. Ikerketa prozesua

Aitortu beharra daukagu ikerketa lan hau guztiz gorabeheratsua izan dela. Horrek ez du inor harrituko, tesien inguruan ohikoa izaten baita. Baina, kasu honetan, azpimarragarria deritzot ñabartzea, berez, teknologia tarteko duten ikerketek arriskua handia baitute uste baino lehenago zaharkituta geratzeko. Eta ibilbide honetan sentsazio hori behin baino gehiagotan mahaigaineratu da. Hasteko, azpidatzen eta bigarren audio-kanalen presentzia eta hizkuntza-eskaintza aztertzen aritu ginenetik, biderkatu egin delako. Teknologiak erraztu egin duelako, ahots ezagutzan egindako aurrerapausoei esker, azpidatziak sortzeko prozesua; baita zuzeneko emanaldietan ere. Eta itzulpen automatikoak areagotu egin duelako hizkuntza-eskaintza *streaming* plataformetan. Zorionez, kezka horien guztien gaineratik, motibagarriagoa izan da, ordea, pentsatzea teknologia hori guztia hizkuntza gutxituen mesedetan erabili daitekeela egiten dena baino gehiago eta modu antolatuago batean eginez gero.

Kronologia labur bat aurkezten dugu jarraian, lan honek izan dituen gorabeherak hobeto ulertzen laguntzeko, bai eta aurkezten diren artikulua justifikatzen laguntzeko ere:

- 2015eko urriak 16: EHUko Euskara Errektoreordetzarekin kontratua tesia euskaraz egiteko. 3 urterako plana.
- 2017ko apirilak 18: UPV/EHUtik kanpo beste jarduera profesional batean aritzeko, kontratuaren urte biko etena.
- 2019ko maiatzak 13: UPV/EHUn ikerketari berrekin, lanaldi erdian (beste jarduera profesional batekin bateragarri egin ahal izateko).

Urte biko eten hori, hala ere, ez zen, zorionez, ikerketaren guztizko etena izan. Bilduma honetan aurkezten dugun lehenengo artikulua argitaratu genuen etena iritsi zenerako eta denbora epe horretan unibertsitateetik aldendu arren, NOR taldeari lotuta jarraitu dut. Horri esker, iritsi zen, esaterako, EUVOS nazioarteko ikerketan parte hartzeko aukera, baita ALMA ikerketa-proiektua osatzekoa ere:

- **EUVOS. Europako Kultur Ondare Immateriala. Europako hizkuntza ez-hegemonikoetan azpidazteko egitarau baterantz** (FEDER/Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades – Agencia Estatal de Investigación/ ref. CSO2016-76014-R): 2016-2019 urte artean gauzatu zen proiektua. Margarita Ledo Andión eta Enrique Castelló Mayo ikerlari nagusi izan zituen proiektu horretan parte hartu zuten hurrengo unibertsitateek: Universidade de Santiago de Compostela, Universidade de Vigo, Euskal Herriko Unibertsitatea, Escola Universitária Politècnica Mataró-UPF, Universitat Oberta de Catalunya, Université Paris 8, University of South Wales, University of Stirling. UPV/EHUtik parte hartu genuen Beatriz Zabalondok, Patxi Azpillagak eta hirurok. Eta han egindako lanari buruz artikulua argitaratu genuen *Senex* aldizkarian (2020). Azaldu genuen proiektu haren helburua izan zela aztertzea Europan non dagoen azpidazketa zabaldua eta non ez, eta ea jarduera horrek mugatzen ote dituen hizkuntza minorizatueta egindako lanak (fokoa jarritz euskaraz, galizieraz eta katalanez azpidatutako lanetan). Bada, ikerketa-proiektu horren ondoren sortu ziren bildumara ekarri ditugun artikuluetako hainbat.
- **ALMA sarea** (Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak finantzatua, RED2018-102475-T). 2020-2021 artean gauzatu zen sarea. Josu Amezaga ikerlari nagusi izan zuen proiektua sare gisa sortu zen, hizkuntza ez-hegemonikoetako komunikabideetarako irigarritasunean eta hizkuntza

gutxituetan interesa duten ikerketa-taldeekin: NOR eta Tralima-Itzulik (Euskal Herriko Unibertsitatea), Galma (Universidade de Vigo), TransMedia Catalonia (Universitat Autònoma de Barcelona), Grupo de Estudios Audiovisuais (Universidade de Santiago de Compostela), Hipis (Universitat de València), IIM R&D Group (Universitat Politècnica de València). Hainbat mintegi egin ziren eta aipatzekoa da Nazioarteko kolaboratzaile-sarea duen MAP datu-baseko sarrera handitzeko lanetan aritu zela.

Etenaldi akademikoan zehar, halaber, ikerketaren lehenengo emaitzak aurkeztu genituen nazioarteko hainbat kongresutan:

- IAMCR International Association for Media and Communication Research (Cartagena, Colombia, 2017ko uztailak 16-20): “Políticas de apoyo al euskera en el sistema cinematográfico del País Vasco”.
- I Media Accessibility Platform International Conference: Mapping Media Accessibility in Europe and Beyond (Universidade de Vigo, 2017ko urriak 13-14): “A guarantee of the integration-inclusion of minority languages in audio-visual media”.
- Small Cinemas Conference (Bilbo, 2017ko irailak 21): “Hizkuntza ez da oztopo ikus-entzunezkoen kontsumoa partekatzeko”.
- Cinema i Crisi en el Mediterrani (Valentzia, 2018ko urriak 22-26): “El cine en euskera: Nuevas redes de distribución y subtulado. Zinemaldia”.

Hurrengo ekarpenak, berriro ere doktorego programara itzultakoan izan dira, beste hainbat kongresutan:

- ICML XVII (Ljouwert/Leeuwarden, 2019ko maiatzak 22-24): “Public policies as guarantors of cultural diversity in the digital market”.
- Simposio Internacional ‘Las lenguas y el cine II. Para un programa europeo de subtulado en lenguas no hegemónicas’ (Santiago de Compostela, 2019ko abenduak 12-13): “Toward accessibility of Basque language on VOD and cinema. Snapshot of the film and audiovisual fiction in Basque”.

- ICML XVIII (Bilbo, 2021eko martxoak 24-26): “Hizkuntza gutxitu eta ez-hegemonikoak ikusarazteko estrategiak ikus-entzunezkoetan: euskara, galiziera, katalana eta zeinu hizkuntzak”.
- Ikergazte Nazioarteko ikerketa euskaraz (Gasteiz, 2021eko ekainak 9-11): “ETB ingurune inklusiboa euskararentzat”.

Erreferentzia horiek guztiak, jakina, doktorego programara atxikita daude eta ebaluatuta, baina hemen gogora ekarri nahi izan ditud, batez ere, aurkezten den artikulu bilduma arautegiak berak jaso duenari egokitzen zaion arren, inork pentsa dezakeelako laburregia dela aurkezten den artikulu kopurua. Ez da hau desenkusa bat, inondik inora. Baizik eta, artikulu bilduma bidezko tesi ereduaren aldeko aldarrikapena: ikerketari bestelako bizitasuna emateko aukera dakarrelako eta bidean, gainera, bakarkako lana taldekako lana bilakatzeko aukera ematen duelako. Hori, nire uste apalean, ikerketa bera aberasteko modua da, eta ikerlariarentzat ikasgai aparta.

Hipotesiak, galderak eta helburuak

Ikerketa honen izenburua bera litzateke gure hipotesi nagusia: Hizkuntza-irisgarritasuna, ikus-entzunezkoak hizkuntza gutxituen erakusleio. Eta hasieratik amaierara gidatu du ikerketa hipotesi horrek. Bide horretan, helburu nagusiak ere bilatu du hizkuntzaren auzia irisgarritasuna gidatzen duten printzipioetatik ulertzea. Alegia, hizkuntza gutxituek ere irisgarritasuna balia dezaketela, printzipio gisa, bazterketatik atera eta hizkuntza ez ezagutzeak suposa dezakeen oztopoa gainditzeko, jende gehiagorengana heltzea lortzeko, baina baita gehiengoa hizkuntza gutxitura hurbil dadin.

Jarraian, hipotesiak (H), galderak (G) eta helburuak (Hb) zerrendatuko ditugu. Ikusiko denez, norabidea erakusten duten hipotesi eta hipotesi kausal (Juaristi, 2003: 30) gisa luzatu ditugu:

H1: Ikus-entzunezkoen irisgarritasuna ahalbidetzea aukera da hizkuntza gutxituen presentzia bermatzeko, baita hizkuntza nagusien merkatuetan ere. Izan ere,

hizkuntza gutxituan sortutako ikus-entzunezkoa hizkuntza-esparru hegemonikoetara hedatzea ahalbidetzen duen eran, hizkuntza-irigarritasunak hizkuntza gutxituen ikusgaitasuna handitzea ahalbidetzen du.

H2: Ikus-entzunezkoen arloan, hizkuntza gutxitura heltzerik ez duen pertsonaren hizkuntza-auzia irigarritasun-auzia ere bada.

H3: Ikus-entzunezko irigarritasun linguistikoak bide ematen digu, ekoizpen-hizkuntza hizkuntza gutxitu edo ez-hegemonikoa baldin bada, aitzakia ez izateko edukiaren jatorrizko audioa ezkutatzeko.

H4: Irigarritasun linguistikoak ikus-entzunezko eleaniztunak ahalbidetzen dituen arren, telebista publiko zein pribatuak ez dute hizkuntza-irigarritasuna aintzat hartzen beren hizkuntza politika planetan.

H5: Ikus-entzunezkoen irigarritasunaren erabilera egokiak eta hizkuntza-estrategiek hizkuntza gutxitu eta ez-hegemonikoen ikusgaitasuna eta sustapena berma dezakete.

H6: Hizkuntza gutxituetan sortutako ikus-entzunezko edukiak sustatzeko politika publikoek lan horien merkaturatze- eta banaketa-estrategiak ere aurreikusi behar dituzte.

Hipotesi horiek lotura daukate, nola ez, ikerketa-galderekin. Horietako galdera batzuek, gainera, bide ematen digute ikerketari jarraipena emateko; izan ere, hainbat diziplina elkar gurutzatzen diren ikerketa izanik, galderak eurak ere anitzak eta irekiak dira, ikerketa esploratzaile bati dagokion gisara (Juaristi, 2003: 35):

G1: Uler genezake hizkuntza gutxituen hiltunen auzia irigarritasun auzi gisa?

G2: Irigarritasun audiobisuala arautzen denean, aintzat hartzen ote da auzi linguistikoa?

G3: Desgaitasunak dituzten pertsonen ikus-entzunezkoetara sarbidea bermatzeko irigarritasunak oinarri dituen eskubide eta printzipioak parteka ditzakete hizkuntza gutxituek irigarritasun linguistikoa ahalbidetzeko?

G4: Teknologiak balio badu ikus-entzunezkoak irigarri egiteko entzumen- eta ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzat, zergatik ez baliatu hizkuntza gutxituak irigarri egiteko hizkuntza nagusiagoan ari direnentzako?

G5: Zergatik baliatu irigarritasuna bakarrik desgaitasunak dituzten pertsonen gehiengoaren kultura *mainstreamera* sartzeko aukera gisa eta ez alderantziz?

G6: Zergatik ulertu irigarritasuna norabide bakarrean? Zergatik ez planteatu noranzko biko irigarritasuna?

G7: Teknologiak lagun gaitzake irigarritasuna bermatzeko legedia aplikatzen, hizkuntza gutxituen ikusgaitasuna bermatzeko?

G8: Zer leku daukate hizkuntza gutxituek ikus-entzunezko politika publikoetan?

G9: Derrigortu daitezke telebistak, *streaming* plataformak, zinema-aretoak hizkuntza-aniztasuna bermatzera, eta hizkuntza gutxituak ez ditzaten ikusezin egin?

“Gizarte Zientzietan egiten diren ikerketek gizakien, taldeen eta erakundeen berezitasunak, zein euren arteko harremanak aztertzen dituzte, gai horri buruzko ezagutza handitzeko, etorkizunean gertatu daitekeenarekiko babesteko, arazoak konpontzeko edo zerbait hobetzeko helburuarekin” (Juaristi, 2003: 26). Gure ikerketan fokoa jarri da, esan bezala, desgaitasunak dituzten pertsonen irigarritasun audiobisuala ahalbidetzeko erakundeek hartutako erabakietan eta horiek gauzatzeko teknologietan, gizarteko talde baten hizkuntza-auzia konpontzeko baliagarria izan daitezkeelakoan. Hori guztia aintzat hartuta, hauek lirateke ikerketa honen helburuak:

Hb1: Irigarritasun audiobisuala arautzera iristeko egindako bidea aztertzea: desgaitasunen bat duten pertsonen ikus-entzunezkoetara sarbidea izateko eskubidea aitortu zenetik, eskubide hori ahalbidetzeko telebistan derrigortasuna arautzen duen lege eta arauetaraino.

Hb2: Irigarritasuna oztopo fisikoak gainditzeko zerbitzu gisa ulertzetik izaera zabalagoa duen zerbitzu gisa ulertzera igarotzeko prozesua aztertzea.

Hb3: Ikus-entzunezkoen eleaniztasuna ahalbidetzeko ikus-entzunezko itzulpengintzaren diziplinaren garrantzia aztertzea (irigarritasun linguistikoa bermatzeko metodoak aintzat hartuz,) eta horrek hizkuntza gutxituen ikuspegitik dakarren aukera.

Hb4: Zineman irigarritasuna bermatzeko garatu diren aplikazio eta teknologiekin esperimentatzea.

Hb5: Hizkuntza gutxituen presentzia bermatzeko Europar Batasunak eta nazio-estatuek hartutako konpromisoak aztertzea.

Hb6: Euskaraz egindako zinemagintza sustatzeko dirulaguntza politikak aztertzea.

Hb7: Metodo nahiz teknologia irigarriak eta hizkuntza politikak aintzat hartuz, telebistan, zinema-aretoetan nahiz *streaming* plataformetan euskararen presentzia bermatzeko bide alternatiboak proposatzea.


2. ATALA

2.1. Esparru teorikoa

Ikergaiaren testuingurua zedarrizteko, hainbat ezagutza arlotatik egindako ekarpen teorikoak jaso dira: irisgarritasun eskubidea eta aplikazioa ikus-entzunezkoetan; hizkuntza gutxituak eta hizkuntza eskubideak; zerbitzu publikoa eta telebista; medioen digitalizazioa; ikus-entzunezko itzulpengintza; dibertsitatearen printzipio europarra; hizkuntza gutxituan ekoiztako zinema sustatzeko politika publikoak.

Horrekin guztiarekin saiatu gara azaltzen nola ulertzen dugun hizkuntza-irisgarritasuna ikus-entzunezkoetan, beti ere hizkuntza gutxituen mesedetan, eta ondoko irudian islatu dugu:

IRUDIA 1: MARKO TEORIKOA



2.1.1. Irigarritasunaren kontzeptua

Irigarritasunaren kontzeptua nondik nora sortu eta garatu den, eta horren inguruan egin diren lege eta arauak errepasatuko dira jarraian. Izan ere, muga fisikoen arintzearekin lotu izan da irigarritasuna; alegia, desgaitasun fisikoren bat duten pertsonen lekuetara sarrera bermatzearekin. Lehenengo definizioek erreferentzia egiten zieten “nahi den tokira edo gura den zer horretara iristeko aukerari” (Alonso, 2007: 16-17). Jakina baita, tradizionalki, desgaitasunaren testuinguruan garatu izan dela irigarritasuna. Are, toki fisikoetara heltzeko eta horietan, era librean, mugitzeko egin diren hirigintza moldaketekin lotzen dugu, lehenengo kolpean; muga fisikoren bat daukaten pertsonen arazoak eragiten dizkieten zer horiek saihesteko soluzioekin, alegia.

Baina, bestelako desgaitasunak dituzten pertsonen eskariei erantzuteko asmoz, eta haiek dituzten premiak asebetetzeko, irigarritasunaren kontzeptua zabalduz joan da, eta barne hartu ditu, halaber, bestelako desgaitasunak, tartean, entzumen- eta ikusmen-desgaitasunak dituzten pertsonen behar eta eskubideak. Gainera, teknologia ahalbidetu duen heinean, irigarritasuna unibertsalizatu egin da eta, jada, ‘irigarritasun unibertsala’ ohiko kontzeptua da edozein teknologia garatzeko orduan: egunerokoan parean suertatzen zaizkigun gailu eta zerbitzuen erabilgarritasuna bermatzeko ezinbesteko ezaugarri bilakatu da, erabilera errazaren berme (51/2003 legea; Fernández Aquino, 2009: 219). Beraz, eta tradizionalki oztopo arkitektonikoak gainditzeko modu gisa ulertu izan bazen irigarritasuna (Alonso, 2007; Hernandez eta Montes, 2022), alegia, desgaitasunaren testuinguruan, irigarritasun unibertsala gizarte berdinzalea eraikitze oinarriko gidalerroa da, non herritar guztiek, desgaitasunak izan ala ez, parte hartu dezaketen, diskriminaziorik gabe eta aukera berdintasunean (Utray-Delgado, 2008: 40).

2.1.2. Irigarritasuna eskubide

Sorburua Irigarritasun kontzeptu europarrean dauka: 1987an Utrecht hirian egindako desgaitasunen bat duten pertsonen eraikin publikoetara sarbidea izateko europar biltzarrean (Desgaitasunen Holandako Batzordeak antolatuta). Europar Batzordearen eskariari erantzunez, “Irigarritasunaren Europar Kontzeptua” definitu

zuten: eraikitako ingurunearen oinarrizko ezaugarria da irisgarritasuna, eta leku horietara guztietara heltzea, sartzea, sentitzea eta erabiltzea ahalbidetzen duen baldintza. Beraz, “ekitaldi sozial eta ekonomikoak gauzatzeko eraiki diren inguruneetan pertsonen parte hartzea ahalbidetzen du irisgarritasunak” (IMSERSO, 1996). Eta, ondorioz, irisgarritasunik eza faktore diskriminatzailea izango da (Fraiz-Brea *et al.*, 2008: 410).

Baina irakurketa hori labur geratzen da desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzean emandako urratsekin garatuz joan baita, modu paraleloan, irisgarritasunaren kontzeptua. Elkartasunaren ikuspegitik proposatutako irisgarritasuna oso mugatua da, “hartaileak geu guztiok baikara” (Rodríguez de Luengo, 1999). Ildo berean ari da Díaz-Cintas. Autore horren dionez, mugatua, partziala, dela esatea irisgarritasuna bakarrik da gurpildun aulkian doazen pertsonentzako oztoporik gabeko sarrera ahalbidetzea (Díaz-Cintas, 2010: 157). Beste modu batera esateko, eta adibide zehatzetan erreparatzea lagungarri izaten denez, gogora dezagun Guenagak, Barbierrek eta Eguíluzek ziotena:

«Mundu fisikoan desgaitasunen bat duten pertsonen bizimodua errazteko elementu ugari garatu dira, iristeko arrapalak, egokitutako komun, ate eta neurri berezietako igogailuak, e.a. Denborarekin, elementu horiek guztiak inolako desgaitasunik ez duten pertsonentzako ere onuragarriak direla erakutsi da, umeen karroak daramatzaten gurasoentzako, zama handiak mugitzen dituzten garraiolariantzako, edo adinduentzako. Era berean, teknologiaren munduan ere erakutsi da errekurtsio irisgarriak errazagoak eta erosoagoak direla erabiltzeko» (Guenaga, Barbier eta Eguíluz, 2007: 156)⁴.

Autoreek eurek ere agerian uzten dutenez, zerbitzu eta eduki irisgarriak eskaintzea erabiltzaile gehiagorengana heltzea dakar. Eta, ezinbestean, desgaitasunari

⁴ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “En el mundo físico se han desarrollado muchos elementos para facilitar la vida a las personas con discapacidad, como rampas de acceso, baños adaptados, puertas y ascensores con medidas especiales, etc. Con el paso del tiempo, se ha demostrado que estos elementos también son beneficiosos para personas que no sufren ningún tipo de discapacidad, como los padres que llevan coches de niños, los transportistas que mueven bultos grandes, o las personas mayores. De la misma forma, en el mundo tecnológico, también se ha demostrado que los recursos accesibles son más fáciles y cómodos de utilizar por todos los usuarios, incluidos los que no sufren ninguna discapacidad”.

begiratzeko ikuspegi aldaketa eragiten du horrek: “pertsona horiek (desgaitasunak dituztenak) babesa eta ingurune berezia behar zuten kolektibotzat hartzen baziren (‘eredu medikoa’ deitzen zaio ikuspegi horri), orain joera da integrazioa, diskriminazio barik eta era normalizatua hartzea (‘eredu soziala’ eta ‘aukera berdintasunaren’ printzipioa)”⁵ (Alonso, 2007: 16-17).

Ezinbestean, beraz, Shakespeare eta Watson autoreen “eredu sozialaren” ikuspegiari heltzea dagokigu irisgarritasuna zentzurik zabalenean ulertu ahal izateko (*íbid*, 2007: 20). Hau da, pertsonen gaitasunak zehazteko garrantzitsuena ez dela bakoitzaren desberdintasuna azpimarratzea, baizik eta aurkitzen dituen oztopoei erreparatzea: inguruko barrera fisikoak, sentsorialak eta sozialak (UPIAS, 1975).

Ikuspegi sozial horrek Eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen Nazioarteko Hitzarmenetik (NBE, 1966) edaten du. Akordioak jaso zuenez, estatu kideek konpromisoa hartu zuten gizon eta emakume guztien eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen gozatzeko berez duten aukera berma zedin (3. artikulua); eta kultur bizitzan parte hartzeko eta garapen zientifikoaren onuraz eta aplikazioez gozatzeko pertsona guztiek duten eskubidea onartzeko (15.1. artikulua). Eta, era berean, hitzarmen hark bere egin zuen 1966ko Eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko hitzarmena.

Beraz, paradigma aldaketaz ari gara: eredu sanitario eta asistentzial batetik eredu sozial baterako jauziaz (Palacios eta Bariffi, 2013). Desgaitasunen bat duten pertsonen normalizazio eta integraziotik abiatuta lan egiten du eredu sozialak pertsonaren funts biologiko, baldintza sozial eta motibazio psikologikoen batura modura ulertuta (Geva-López, 2011: 5). Izan ere, eredu edo ikuspegi sozialak –giza eskubideei dagozkien hainbat balioekin estuki lotua– giza-duintasun, berdintasun eta askatasun pertsonala indartzea eta errespetatzea bilatzen du. Inklusio soziala ahalbidetuz eta hainbat printzipio ezarriz, lortuko da bizimodu independentea, diskriminazio eza, irisgarritasun unibertsala, ingurunearen normalizazioa eta elkarrizketa zibila, besteak beste (Palacios eta Bariffi, 2007: 19).

⁵ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “*Si éstas (las personas con discapacidad) eran percibidas como un colectivo que requería protección y un entorno diferenciado (enfoque denominado 'modelo médico'), ahora se tiende a su integración sin discriminación y normalizada (enfoque de 'modelo social' y principio de 'igualdad de oportunidades'.*”

Eredu horren aldekoek diotenez, fenomenoaren oinarria ez datza pertsona bakoitzaren muga indibidualetan, baizik eta gizartean; hau da, gizartearenak direla mugak: zerbitzu egokiak emateko, batetik, eta, bestetik, desgaitasunak dituztenen premiak gizarte antolaketan aintzat hartzen direla bermatzeko (*ibid*, 2007: 19). Pertsona batek sarbide edo parte hartzeko arazoak dituenean sortzen da, beraz, desgaitasuna (Utray-Delgado, 2008: 3); erabiltzaileek informaziora heltzeko sufritzen dituzten hesiak irigarritasun teknologia eta zerbitzu desegokiek eragiten dute, euren desgaitasunek baino gehiago (Li and Looms, 2015: 268).

Hala, desgaitasunaren sorburuak sozialak izanik, soluzio-bideak ere gizarteari zuzendu behar zaizkio, pertsona guztien beharizanean erantzuteko gizartea diseinatuz. Adibidera: ibiltzeko ezintasuna urritasuna da, baina eraikin batera sartzeko ezintasuna, eskailera bada sarbide bakarra, desgaitasuna da; edo berba egiteko ezintasuna gutxitasuna da, baina komunikatzeko ezintasuna, laguntza teknikoak eskura ez daudelako, desgaitasuna da (Jenny Morris, 1991⁶; hemen aipatua: Palacios eta Bariffi, 2007: 58). Hori horrela, irigarritasunaren etorkizuna ezin da, eta ez da, mugatu oztopoak gainditzeko norbanakoei tresnak ematera: irigarritasunaren etorkizunak ingurunea norbanakoen unibertso osoarentzat (norbanako guzti-guztientzat) irigarri egitetik etorri behar du (Rodríguez de Luengo, 1999: 17), eta bide horri jarraitu dio gehiago eskubide gisa onartu zenetik.

Laburbilduz, beraz, aukera berdintasunean oinarritutako inklusioaren bilaketan oinarritzen da desgaitasunak dituzten pertsonen ematen zaien tratua soziala (Palacios eta Bariffi, 2007: 22). Eta, hain justu, helburu horixe izango dute, besteak beste, irigarritasun unibertsalak, guztientzako diseinuak eta politika transbertsalek: desgaitasuna giza eskubideen auzi gisa hartu behar baita, eredu sozialari lotzen zaion heinean.

Irigarritasun unibertsalak gizartearen ardura hartzen du oinarri gisa, guneak, ondasunak eta zerbitzuak diseinatzeko orduan, pertsona guztiek erabili ditzaten, gaitasunetatik harago (Utray-Delgado, 2008: 3). Hala, giza eskubideen berezko balioen errespetutik eman beharko lirateke desgaitasunen bat duten pertsonen desabantaileri aurre egiteko soluzio-proposamenak (Palacios eta Bariffi, 2007: 23). Irigarritasunak bizi kalitatearen indikatzailea izan behar du, interes orokorreko

⁶ Ikus: MORRIS, J., *Pride Against Prejudice, A Personal Politics of Disability*, Women's Press Ltd., London, 1991.

eskubidea; horregatik, arlo guztiak egokiak izan behar dira denontzako (Rodriguez de Luego, 1999: 17). Gizarte inklusiboa eraikitzeko baztertu egin behar baita kolektiboren bat fisikoki edo sozialki mugatzen duen jarrera oro; desagerrarazi egin behar dira era guztietako hesiak (arkitektonikoak, linguistikoak, e.a.) harremanak kooperazio iturri izan daitezen, kolektibo guztiak aberasteko (Geva-López, 2011).

Oinarri horren gorpuztea Desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideen inguruko Nazioarteko Hitzarmenak (NBE, 2006) ekarri zuen: desgaitasunak dituzten pertsonen giza eskubide eta askatasun guztiak, eta datxekien duintasunaren errespetua, sustatzea, babestea eta bermatzea bilatzen zuen Nazio Batuen hitzarmenak. Lau urteko lanaren ondorio izan zen 2006an onartutako Hitzarmena —Espainiar estatuan 2008an sartu zen indarrean— eta han bildutako printzipioen artean (3. artikuluan) jaso eta arautu (9. artikuluan) zen irisgarritasuna: desgaitasunen bat duten pertsonak era independentean bizi ahal izateko, eta bizitzaren arlo guztietan bete-betean parte hartu ahal izateko, estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte pertsona horiei, aukera berdintasunean, sarbidea bermatzeko ingurune fisiko, garraio, informazio eta komunikazio zerbitzuetara (informazio eta komunikazio sistemak eta teknologiak barne), baita publikora irekita dauden, edo erabilera publikoa duten, beste zerbitzu eta azpiegitura guztietara ere. Hartutako neurriek, gainera, oztopo eta sarbide eragozpen edo hesiak identifikatu eta ezabatzeko balio behar zuten; besteak beste, informazio eta komunikazio zerbitzuetan aplikatzeko. Ildo horretan, hitzarmena bere egiten zuten estatu kideek beharrezko neurriak hartuko lituzkete informaziora zein informazio eta komunikazio sistema eta teknologia berrietara sarbidea bermatzeko eta ahalbidetzeko (internet barne), eta informazio sistema eta komunikazio teknologien diseinu, garapen, ekoizpen eta banaketa irisgarria sustatzeko (NBE, 2006: 10).

Espainiar estatuari dagokionez, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak —desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bat egin onartzen duena— irisgarritasun unibertsalaren hurrengo definizioa egiten du 22. artikuluan: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek bete behar duten baldintza ulergarriak, erabilgarriak eta praktikagarriak izan daitezen pertsona guztientzat (Errege Dekretua 1/2013). Eta, ulergarritasunaren eta erabilgarritasunaren printzipioetatik abiatuta heltzen da irisgarritasuna arlo guztietara. Baita ikus-entzunezkoetara ere.

2.2. Ikus-entzunezko irisgarritasuna

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko hitzarmenak (NBE, 1966) esan zuen adierazpen askatasunak bere baitan hartzen dituela informazioa bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubidea. Beraz, egiteko horretan ager daitezkeen mugak gainditzeko eta oztopoak saihesteko, irisgarritasunak berebiziko garrantzia hartzen du. Izan ere, herritartasun aktiboa lortzeko ezinbestekoa da komunitatearen parte izatea eta, horrenbestez, gizartearen parte hartzea eta aitortza, eta hiritarren konpromiso eta ardura behar dira; hori guztia, jakina, aukera berdintasuna bermatuko duen legezko esparrua alde aurretik definituz. Azken batean, eskubide hartzaile izatetik harago, hiritarra eskubide horien egile ere bada, eta ekintzarako eta aldaketarako ardura bere egiten du (Geva-López, 2011: 6).

Aurrez ikusi dugunez, irisgarritasunak desgaitasun fisiko zein sentsorialen bat duten pertsonen integrazio soziala hartzen du bere baitan (Díaz-Cintas, 2010: 157), baina denbora behar izan da, esaterako, informazio eskubidea pertsona ororentzat gauzagarri izan den arte. Izan ere, gaur egun informazio-iturrietara mugarik gabeko sarbidea izatea oinarrizko eskubidetzat jo arren, ez da beti horrela izan. Urte luzez entzumen- eta ikusmen-arazoak zituzten pertsonak ezin izan dute ikus-entzunezko komunikabideetara sarbidea izan. Aldiz, gorago jasotako ikuspegi aldaketak eta teknologiak ekarri duten aukera zabalek asko erraztu dute desgaitasun sentsorial horiek dituzten pertsonen ere informazioa eta aisialdia ikus-entzunezko euskarrietan helarazteko aukera.

Informazio eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) arloan honela definitua izan da irisgarritasuna: edozein baliabide, komunikabidearen nolakoari begiratu gabe, pertsona guztientzat eskuragarri egon dadin bermatzeko artea, haiek desgaitasunen bat izan ala ez (Berners-Lee y Fischetti 1999; hemen aipatua: Guenaga *et al.*, 2007: 156).

Ikus-entzunezkoetara irisgarritasuna (MA), beraz, unibertsaltasunaren kontzeptu eta adieratik abiatzen da, eta desgaitasunak dituztenei eta ez dituztenei sarbidea ahalbidetzeko zerbitzuaren orokortze aldera lege eta arauak sustatzeko argudio eraginkor bilakatu da (Romero-Fresco eta Dangerfield, 2022: 31).

2.2.1. Ikus-entzunezkoen irigarritasuna bermatzeko lege eta araudiak

Bistan da anitza eta zabala dela irigarritasunaren inguruan garatu diren lege, dekretu eta bestelako arau multzoak; are, administrazioaren banaketa moduak ere ekarri du lekuan lekuko arauen garapen propioa: espainiar estatuan, esaterako, lege nagusiekin batera, erkidegoetako arauak ere egin dira. Baina marko orokorretik abiatuko gara.

Nazio Batuen Asanblada Orokorrak onartutako “Desgaitasunak Ditutzen Pertsonen Eskubideen Gaineko Hitzarmenean” (2006ko abenduaren 13an) beren-beregi jasotzen da telebista, film, antzerki eta bestelako kultura ekintzetara heltzeko formatu irigarriak sustatzea (30. artikuluan). Ildo horretan, 2007an, Mugarik Gabeko Telebistaren Europar Zuzentzarauak desgaitasunen bat duten pertsonen kulturaren nahiz bizitza sozialean parte hartzeko eta integratzeko eskubidea aitortu zien, eta ikus-entzunezko irigarriekin lotu zuen eskubide hori: “Irigarritasuna lortzeko bitartekoek, horretara mugatu beharrik izan gabe, zeinu-hizkuntza, azpigituluak, audioaren deskribapena eta erraz ulertzeko moduko menuko nabigazioa izan behar dituzte”⁷ (Europako Parlamentua, 2010: 6).

Espainiako estatuan, Zuzentzaruari jarraituz, Ikus-entzunezkoen 7/2010 Legeak arautu zuen ikus-entzunezko irigarritasun-zerbitzua eta ezarri zuen, 2013rako, telebista publikoen (autonomikoak barne) saioen %90 azpidatzita eskaini beharko zela (pribatuetan, %75) eta audiodeskripzioa nahiz zeinu hizkuntza bidezko emanaldiak, astero 10 orduz (pribatuetan, astean ordu bi) izango zirela:

Taula 1: 7/2010 Legearen V. Xedapen Iragankorra

Desgaitasunak dituzten pertsonentzako irigarritasun-zerbitzuak telebista-kateen programazioan (urtero, abenduaren 31 baino lehen, bete beharreko portzentajeak eta balioak).				
Bete beharreko ehunekoak data zehatzerako				
	2010-12-31	2011-12-31	2012-12-31	2013-12-31

⁷ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “The means to achieve accessibility should include, but need not be limited to, sign language, subtitling, audio-description and easily understandable menu navigation”.

Irekian emititzen duten estatu mailako edo erkidegoetako telebista pribatuak				
Azpidatziak	%25	%45	%65	%75
Zeinu-hizkuntza orduak	0,5	1	1,5	2
Audiodeskripzio orduak	0,5	1	1,5	2
Telebista publikoak				
Azpidatziak	%25	%50	%70	%90
Zeinu-hizkuntza orduak	1	3	7	10
Audiodeskripzio orduak	1	3	7	10
Iturria: BOE, 79, 2010/04/01 (13/2022 legeak ordezkatu du.)				

Lege hori 2022an berritu du Espainiako kongresuak eta Ikus-entzunezko 13/2022 Lege Orokorrak *streaming* plataformei ere ezartzen die derrigortasuna: gutxienez, programazioaren % 30 azpidatzi behar dutela dio (104 artikulua). Alabaina, ez da zehazten zein hizkuntzatan izan behar den ehuneko hori. Kopuru berbera aipatzen da, bestalde, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1808 zuzentarauan (2010/13EB aldatzen duena) eta zera dio: *on demand* zerbitzuen katalogoetan, lanen gutxienez, % 30 europarrak izan behar dira eta estatu kideei dagokie horrekin betetzen dela bermatzea Europako merkatu bakarrean. Kasu horretan ere, ez da zehazten zein hizkuntzatan. Hala ere, eta arautua dagoen arren, “oraindik lan handia dago egiteko zeinu-hizkuntza telebistan hizkuntza eskubide auzi bilakatu dadin, eta ez dadin soilik irigarritasun auzi izan”⁸ (Esteban eta Ramallo, 2019: 43).

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 1997an onartu zen irigarritasuna sustatzeko legea (20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irigarritasuna sustatzekoa). Lege horren xedea da hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikazio-sistemen irigarritasuna bermatzea, pertsona guztiek era autonomoan erabil eta balia ditzaten, eta, bereziki, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo beste edozein muga psikiko edo sentsorial (aldi

⁸ Autorea itzulia: Jatorrizkoa: “*Todavía queda mucho trabajo para que la lengua de signos en la televisión se convierta en una cuestión de derechos lingüísticos y no simplemente de accesibilidad*”.

baterakoa edo iraunkorra) dituzten pertsonak (Eusko Jaurlaritza, 2019: 15); Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua sortzea ere aurreikusi zuen legeak. Gerora etorri dira:

- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.
- 126/2001 Dekretua, uztailaren 10ekoa, Garraioan Irisgarritasun-baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituena.
- 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.
- Irisgarritasun unibertsalaren Euskadiko Estrategia. Irisgarritasuna sustatzeko Euskal Kontseilua, 2020ko urtarrilekoa.

Baina, ikus-entzunezko komunikabideak ez dira aintzat hartu arau eta lege horietan. Are, Irisgarritasun unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren B eranskinean esaten da: “Gorrentzako azpitoluak falta dira zineman, telebistan...” (Eusko Jaurlaritza, 2019: 82). Baina ez da horren aurrean inolako neurririk proposatzen, nahiz eta, 20/1997 Legeak esan: Titulartasun publikoa duten komunikabideek neurri teknikoaren plan bat egingo dute, pixkana-pixkana herritar guztiek komunikaziorako duten eskubidea behar bezala bermatu ahal izango duena (Eusko Jaurlaritza, 1997, 6. atala 4) eta lege-hauste larritzat jotzen duen “Komunikabideetan irisgarritasun baldintzak ez betetzea” (*ibid*, 18. atala 2b). Hala ere, aipatzekoa da Euskal Irrati-Telebista (EITB) da titulartasun publikoa duen komunikabidea Euskal Autonomia Erkidegoan. 40 urte bete zituen Euskal Telebistaren sorrera legeak 2022an. Baina urte horietan guztietan ez du lege aldaketarik izan testu legegileak; beraz, irisgarritasunari ez zaio inolako aipamenik egiten. Are gehiago, ez Euskal Telebistak ezta EAEko irisgarritasun unibertsalaren arloko lehen ekintza planak (ISEK-Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren ohiko bilkuran onartu zen 2021eko ekainaren 24an eta Gobernu Kontseiluan 2021eko azaroaren 2an) ere ez dute aintzat hartzen ikus-entzunezko irisgarritasuna, telebistari eta zinemari dagokionez, irisgarritasuna sustatzeko legeak (2017) jasotzen duen aipamenetik harago.

Hala ere, gizartean kezka egon badago eta horren adierazgarri ditugu, Eusko Legebiltzarrean izan diren hainbat ekimen, ikus-entzunezko irisgarritasuna sustatzeko bidean:

- 2008ko, azaroaren 17an Legebiltzarreko EITBren kontrolerako batzordean 'gorren eskubideak errespetatzeari buruz' legez besteko proposamena onartu zuten legebiltzarreko taldeek, zentzu honetan: "Eusko legebiltzarrak EITBko Zuzendaritzari eskatzen dio helaraz diezaiola 2007-2010 aldirako Programa-Kontratuaren Jarraipenerako Batzordeari, Irisgarritasunaren Legea betetzeko, gorrentzako azpitoludun programazio ordutegi baten proposamen bat, dokumentu horretan ezarritakoa baino dezentez zabalagoa eta sektorearen eskakizunetara eta inguruko beste telebista publiko batzuetan iritsitako mailetara hurbiltzera joko duena. EITBko Zuzendaritzak EITBren Legebiltzar Kontrolerako Batzordeari helaraziko dizkio horri buruzko proposamenak (ordu-zenbatekoa, programa-motak...) legez besteko proposamen hau onesten denetik bi hilabete igaro baino lehen" (Eusko Legebiltzarra, 2018).
- 2019ko ekainaren 10ean, hurrengo agindu zion Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eta EITBri: "arautu ditzatela, biztanleriaren irisgarritasun unibertsalerako eskubidearen arabera, desgaitasun sentzoriala duten pertsonen telebista publikoaren albiste zerbitzuak ulertu eta erabili ahal ditzaten ezinbestekoak diren oinarrizko baliabideak, bereziki azpitoluak eta audiodeskripzioa, informazio eskubidea bermatzeko moduan" (Eusko Legebiltzarra, 2011).
- 2021eko urtarrilaren 15ean EITBk jakinarazi zion Legebiltzarrari ari zirela azpidatziak eskaintzen EITBren lau kateetan eta horretarako VICOMTECHEk garatutako plataformaren laguntza erabiltzen zela, ahots ezagutzaren teknika erabiliz azpitoluak egiteko; zehazten zen orduko erantzun hartan "gaztelerazko albistegietako eta gaurkotasun programetako azpitoluzioa zuzenean" egiten zela "respeaking" teknikaren bitartez. Mira lo que te digo SLU enpresa zen "entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako azpidatzi-zerbitzua diferituan" kontratatutako hornitzailea. Erantzun berean zehazten zen "Euskarazko animazio-programen eta euskarazko

artxibo-programen azpitulazioa diferituan egin” zuela Mixer servicios audiovisuales SL enpresak (Eusko Legebiltzarra, 2021a).

- Azpidazketari buruz onartu zen azken legez besteko proposamenak, 2021eko ekainaren 4koak (Eusko Legebiltzarra, 21b), aldiz, ETB1 katean azpidatziak gehitzeko (Ikus-entzunezko legeak agindutako %90era iritsi artea) agindua eman zion Legebiltzarrak EITBri (Eusko Legebiltzarra, 2021b), aurretik aipatutako 2008ko eskariaren bidetik.

Eskari horretan aipatzen den ikus-entzunezko legea 2010eko legea da (7/2010 Ikus-entzunezko lege orokorra). Han jasota geratu zen (Taula 1) irisgarritasunarekiko telebisten betebeharra, izan publiko zein pribatu. Baina gure auzia teknikitik harago doa; alegia, ez da desgaitasun sentsozialak dituzten pertsonen eduki horietara sarbidea bermatzera mugatzen. Hizkuntzarekiko ezezagutzak eragiten duen hasiera bateko langa gainditzeko laguntasun ezari buruz ari gara. Eta, ildo horretan, aipatzeko aurkitu dugun dokumentua bakarria EITBren Estilo Liburua (Sabaris, Cantalapiedra, Salbidea eta EITB, 2021) da. “Adierazpenen hizkuntza-tratamendua” (*ibid*, 2021: 82) atalean zera dio: “Hizkuntza bat baino gehiago dituen gure gizarte honetan, EITBrentzat ildo estrategiko bat da hedabideetan euskara kontsumitzeko jarrera sustatzea eta normalizatzea. Normalizazio horretan, urrats garrantzitsua da euskarari gaztelaniazko kanaletan ere toki bat egitea. Helburua da euskal gizartearen errealitate elebiduna ikusgai egitea eta euskara prestijiatzea, betiere interes informatiboaren eta audientzien kaltetan izan gabe”. Horretarako, eta “printzipio orokor modura, emisioko hizkuntzan ez dagoen materiala azalpen bidez txertatuko da” (*ibid*, 2021: 83) eta horretarako azpidatziak eta bikoizketa proposatzen dira, besteak beste (azpidazketa bidezko itzulpenaren alderdi teknikoa arautzen da Estilo liburuaren II. eranskinean).

Laburbilduz: estatu espainiarreko legeak derrigortu zituen arren erkidegoetako telebista publikoak ere irisgarritasun audiobisuala bermatzera azpidatzi, audiodeskripzio eta zeinu-hizkuntzaren bitartez, gaur gaurkoz ez dago agindu horrekin betetzen dela jarraipena egiten duen organorik EITBri dagokionez.

EITBk 2019-2020 ikasturtean berritu zuen 2005ean onartutako EITBrako hizkuntza-funtsak izeneko dokumentua non “Programazioaren irispen unibertsala” atalean esaten den: “Euskal gizarte heterogeneoan, EITBk, komunikazio-talde publiko

gisa, bere produkzio guztia herritar guztiengana helarazteko ahalegina egin behar du. Hizkuntzari dagokionez, horrek esan nahi du azpidazketa, audiodeskripzioa, irakurketa automatikoa eta antzeko tresnak garatu eta inplementatu behar dituela desgaitasuna duten pertsonentzat” (EITB, 2020: 2). Eta, hala jarraitzen du: “Euskara ikasten edo hobetzen ari diren pertsonak ere onura handia atera dezakete tresna horietatik. Horrez gainera, interesgarria litzateke berorientzat B2 mailako azpidatzen bidea esploratzea. Euskaraz batere moldatzen ez diren pertsonengan pentsatuta, aukera bat izan daiteke euskarazko saio propioak gaztelaniazko azpidatziekin eskaintzea ETB2n edo ETB4n” (*ibid*, 2020: 2).

2019an hasi zen EITB azpidazketa era sistematiko batean eskaintzeko lanean, Vicomtech enpresak garatutako ahots errekonozimendu bidezko azpidazketa automatikoaren bidez. Ekoiztetxeek dute azpidatzi horiek sortzeko ardura, emisio-saioaren hizkuntzan. Alegia, azpidatziak intralinguistikoak dira EITBn. Beraz, aurrez aipatutako dokumentuan proposatutakoa, alegia, ikus-entzunezko irigarritasuna ahalbidetzeko baliabide eta zerbitzuak hizkuntzaren irigarritasuna ahalbidetzeko erabiltzea ez da oraingoz praktikan jarri den bidea EITBn.

2.2.2. Ikus-entzunezko irigarritasun-zerbitzua ahalbidetzeko metodoak

Aurretik aipatu bezala, 2010/13/UE Europako Zuzentarauak irigarritasun-zerbitzutzat jotzen ditu, bestelakoak baztertu barik, zeinu-hizkuntza, azpidatziak, audiodeskripzioa eta ulergarriak eta errazak diren pantaila-menuak; alegia, telebista digitalak berezko dituen elementu interaktiboak. Gaur egun, beraz, metodo horiek erabiltzen dira desgaitasun sensorialak dituzten herritarrek ere izan baduten ikus-entzunezkoen informazioa mugarik gabe eskuratzeko oinarrizko eskubidea bermatzeko —giltzarri bai baita herri edo komunitate baten sistema sozio-kulturalean integratzeko (Díaz-Cintas, 2010: 158)—.

Jarraian metodo horietako bakoitza definitzen saiatuko gara:

- **Azpidatziak (ingelesez, SDH) edo *closed captions*, Estatu Batuetan:** Ikus-entzunezkoen azpidatziek informazioa jasotzea ahalbidetzen diete berba-hizkuntza ulertzeko zailtasunak dituztenei. Moduen arteko soziolinguistika praktika gisa definitu daiteke, ahozkotik idatzizkora

(Díaz-Cintas, 2010 : 160). Alderdi teknikoari dagokionez, azpidatziak irudiarekin sinkronizatuta behar dute eta irakurtzeko nahikoa denbora eman behar du (*ibid*, 2010: 161). Hizketan egiten dena eta entzuten diren gainerako soinuak idatziz jasotzen dituzte azpidatziek (Pereira, 2005). Beraz, ez da hizkuntzen arteko itzulpena, baizik eta modalitate artekoa: ahozkotik idatzizkora. Bigarren ezaugarri horrek bereizten ditu, batez ere, azpidatzi horiek itzulpengintzan erabili izan diren azpidatzietatik, hau da, azpidatzi interlinguistikoez edo hizkuntza artekoek. Izan ere, SDH azpidatziak, normalean, intralinguistikoak izaten dira: medioaren emisioaren hizkuntza berean. Aldiz, eta hasiera batean gorrei edo entzumen-arazoak zituztenei informazioa helarazteko zerbitzu legez sortu baziren ere, azpidatziak lagungarri suerta dakizkieke baita gainerako ikus-entzuleei ere, “filmak jatorrizko bertsioan ikusteko edo gure hizkuntza ikasi nahi duten atzerritarrek erabiltzeko” (Pérez-Ugena eta Coromina, 2005: 56). Estatu espainiarrean, 2010ean onartu zen ikus-entzunezko lege orokorrak arautu zuen lehenengoz ikusmen- edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonen eskubidea daukatela ikus-entzunezko komunikaziorako irigarritasun unibertsalerako, “aukera teknologikoen arabera” (7/2010 Ikus-entzunezko lege orokorra, 8.1 artikulua). Legeak dioenaren jarraipena egiteko sortu zen CESyA, Azpidatzi eta Audiodeskripzio Zentro Espainiarra (UC3M unibertsitateak kudeatzen duen Gizarte Gaietarako Ministerioaren Desgaitasunaren Errege Patronatuaren mendeko zentroa), eta UNE 153010 (AENOR, 2012) arauak zehazten du haien nolakotasuna; izan ere, azpidatzi horiek bestelako informazioa ere eskaintzen dute, hala nola pertsonaiak kolore edo etiketa bidez identifikatzeko, zer hizkuntzatan hitz egiten ari diren identifikatzeko edo soinu efektuak adierazteko (Matamala, 2019: 171-195).

- **Audiodeskripzioa (ingelesez, AD):** Komunikazioari laguntzeko ikus-entzunezko edukiaren elementu bisualak deskribatzen dituen narrazioari deritzo audiodeskripzioa. Ikuspegi linguistiko eta semantiko batetik, pertsona itsuei zuzenduta, audio-kanal gehigarri baten bidez, eta elkarrizketen isiluneak baliatuta trama, giroak eta soinu-efektuak kontestualizatzen dira (Díaz-Cintas, 2010: 174) eta off ahots batek pantailan agertzen den eta jakingarria dena azaltzen du (Talaván-Zanón, Ávila-Cabrera eta Costal-Criado, 2016). Beraz,

azpidatziekin ez bezala —han pantailaz baliatzen baikara—, soinu-kanala erabiltzen da komunikazioa irisgarri izateko, hau da, ulergarri egiteko. Erakusten diren datu, egoera eta ulermena ahalbidetzeko baliagarri den informazio oro audiodeskribatzen da. Antzerkiaren arloan sortu zen AEBetan eta Erresuma Batutik hedatu zen Europara, XX. mendeko 80ko hamarkada erdialdean (Díaz-Cintas, 2007) —ezagun dira, ordea, Espainian 40ko hamarkadan egiten ziren irrati bidezko audiodeskripzioak: soinu-bandaren isiluneak kontatzen zitzaizkion entzuleari, zine-pantailan gertatzen ari zen akzioa uler zezan (Arandes, 2007; hemen aipatua: Díaz-Cintas, 2010: 176)—. Espainiar estatuan 2010eko ikus-entzunezko Lege Orokorrak (8.3 artikulua) arautu zuen desgaitasuna duten pertsonen eskubidea dutela telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazioa jasotzeko. Kasu horretan ere, CESyA zentroak egiten die telebistei jarraipena, eta UNE 153020 (AENOR, 2005) arauak zehazten du audiodeskripzioaren nolakotasuna.

- **Zeinu-hizkuntza (SL, ingelesez):** Komunikazio-sistema irisgarri horretan interpretearen presentzia ezinbestekoa da, berak adieraziko eta itzuliko baitu zeinu-hizkuntzara pantailan ikusten eta esaten dena. Espainian 27/2007 Legeak arautzen ditu zeinu-hizkuntza erabiltzaileen eskubideak. Hala, gorrentzako zeinu-hizkuntza irisgarritasun baliabide gisa hartzen da ikus-entzunezkoen eremuan. Telebistari dagokionez, pantailaren eskuinaldeko beheko partean leihotxo bat irekitzen da interpretea erakusteko. Gil-Sabroso eta Utray-Delgadok (2015) ikertu izan dute zeinu-hizkuntza hartzaileen asebetetzea zerbitzu horren inguruan. Baina, hortik harago eta kontuan izanik zeinu-hizkuntza beste hizkuntza bat dela (Stokoe, 1961; Padden y Humphries, 1988; NBE, 2006) itzulpenarekin ere badauka lotura eta, beraz, aniztasun linguistikoarekin (Gil-Sabroso eta Utray-Delgado, 2016). Esan genezake, zeinu-hizkuntzak ahalbidetzen diela pertsona gorrei ikus-entzunezko edukietara sarbidea, baina baita hizkuntzen arteko itzulpena ere. Irisgarritasun-zerbitzua, kasu horretan, birritan gertatzen da, ahalbidetzen baita edukira sarbidea, eta ulergarritasuna. Ikuspegi hori, ordea, ez da aintzat hartua izaten eta hori dela eta, autore batzuek salatu egin izan dute modu murriztuan eta bakarrik entzumen murrizketaren defizita duten pertsonen irisgarritasuna eskaintzeko erabiltzen dela zerbitzu hori, kultura-aniztasuna

babesteko ikuspegitik aldenduz (*ibid*, 2014: 119). Alegia, pertsona gorrek komunitate linguistiko minoritarioa osatzen duten arren (Neves, 2008), irigarritasunaren zerbitzua desgaitasunaren aldetik bakarrik ulertzen dela. Baliabide horren inguruan gorrentzako sorkuntza azpidatzen inguruan sortu den ikerketa eta jarduera-korrontea ere aipatzekoa da, ulermen hobe ahalbidetzeko (Romero-Fresco, 2020). Eremu horretan egiten ari dena jaso berri du artikulu batean, hain justu, ALMA sareko beste taldekideetako batek: Ana Tamayok (2022). Sormenezko praktika horien inguruko lehenengo gerturatzea aurkezten du, ikus-entzunezkoetan zeinu-hizkuntza jatorrizko hizkuntza denean zein jomuga denean.

Badira izan irigarritasunaren baitan beste hainbat metodo ere:

- Berresana azpidatziarako (*respeaking*): jatorrizko audioa entzuten den hori ahots errekonozimendua duen software bati errepikatuz, ahalik eta denborarik laburrenean, azpidatziak pantailan erakusten dituen sistemari deritza (Romero-Fresco, 2011: 1). Batez ere zuzeneko saioetan erabili izaten den baliabidea litzateke.
- Audio-azpidatziak: Atzerriko telebista irigarriago egiteko itsuentzako, pertsona nagusientzako eta afasia, dislexia lako hizkuntza desgaitasunak dituzten pertsonentzako, edo desgaitasun kognitiboren bat dutenentzako sortu ziren hitz egindako azpidatziak (Orero, 2007). Aurreko metodoan bezala, kasu honetan ere, ahalik eta denbora atzerapen txikiena egoteko baliatzen da teknologia, pantailan esaten dena irakurri egin behar baita pertsona horientzat edukia irigarri egiteko.

2.3. Ikus-entzunezko itzulpengintza

Teknologiak komunikabideekiko gizartearen jokamoldea aldatu duen bezala aldatu du ikus-entzunezko itzulpengintza, itzulpengintza ikasketen eremu dinamikoena bilakatuz (Orero, 2004). Aipatu lan horretan, 2001ean egindako lanari jarraitu nahi izan zion editoreak eta ordura arte hainbat modutara izendatu zen jarduera, izen bakarraren pean bildu zituen: AVT (*Audiovisual Translation*) edo Ikus-entzunezko

itzulpena. Aurretik hauek izan ziren erabilitako kontzeptuetako batzuk: *film translation, screen translation, media translation, film and television translation* (*ibid*, 2004). Baina autorearen irudikoz, itzulpen mota guztiak barne hartzen ditu AVT izendapenak, baita komunikabide irigarritasunaren (*Media Accessibility, MA*) arlo berriak ere: pertsona gorren eta entzumen-arazoak dituzten pertsonentzako azpidatziak, eta audiodeskripzioa pertsona itsu edo ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzako (*ibid*, 2004). Alegia, ikus-entzunezko testu eta hizkuntza eta kultura arteko (interlinguistikoa) transferentzia modu oro edo hizkuntza eta kultura beraren artean (intralinguistikoa), edo SDH, AD, berresana, audio-azpidazketa bezalako modu irigarriak (Chaume, 2012: 108). Ez alferrik, itzulpengintza kulturarteko komunikazio-ekintza bat da, ez gune interlinguistiko hutsa (Díaz-Cintas, 2004: 31).

Hala, asko izan dira ikus-entzunezko itzulpengintzaren diziplinak ikertu dituztenak (Delabatista, 1989; Luyken eta Herbst, 1991; Hurtado, 1994; Díaz-Cintas, 1997; Orero, 2004; Chaume, 2004; Barambones, 2009; Awedyk, 2013) eta berebiziko garrantzia izan du, muga linguistiko eta kulturalak gainditzeko ezinbesteko tresna gisa (Talaván-Zanón *et al.*, 2016: 15). Ez baita ahaztu behar ikus-entzunezko irigarritasuna hizkuntzaren ulergarritasuna bermatzeko metodo gisa ere ulertu izan dela (Díaz-Cintas, 2010). Hala, irigarritasuna ikus-entzunezko komunikabideen baitan txertatzeak bestelako ikerketa-lerroak zabaldu ditu ikus-entzunezko itzulpengintzan (Orero, Pereira & Utray, 2007; Romero-Fresco, 2013; Maszerowska, Matamala & Orero, 2014; Rodríguez, 2014; García-Crespo, López-Cuadrado, & González-Carrasco, 2015; Greco, 2018; Toledo, 2018; Martínez-Lorenzo, 2020; Orero, 2021; Tamayo-Masero eta Ros-Abaurrea, 2024).

Halaber, digitalizazioak ikus-entzunezko edukien itzulpengintzan eta itzulpengintza ikasketetan izan duen eraginaren inguruan zabal ari da Frederic Chaume ikerlaria (2004; 2018). Eta ikus-entzunezkoen irigarritasuna eta ikus-entzunezko itzulpengintza ikerketa akademikoan garatu izan dituzten teoriez luze eta zabal ari dira, berriz, Greco eta Jankowska (2020). Kritiko agertu dira desgaitasun sentsozialak dituzten pertsonen eskubidea artatzeaz ari direnekin (ikuspegi oso murrizta dela esanez), baita irigarritasuna pertsona horientzat, edo bestelako premiaren bat dutenentzat, sarbide gisa definitzen dutenekin ere. Are, ikus-entzunezko irigarritasuna itzulpengintza ikasketetatik harago kokatzen dute, gizarteak dituen erronkei erantzuteko (*ibid*, 2020).

Kontuan izanda irigarritasuna hobetzeko itzulpena guztiz errotu dela ikus-entzunezko itzulpengintzan, askoz ere ageriagoan geratzen da hamarkadatan luzatu den informazio eta komunikabideen kulturarekiko irigarritasun-desoreka (Chaume, 2012: 121). Testuinguru horretan, ikus-entzunezko teknologiak ahalbidetu du diskriminazio horrekin apurtzea. Eta ikus-entzunezko irigarritasuna bermatzeko metodoak ondo zehaztuta geratu dira (lehenago azaldu ditugunak): azpidatziak, audiodeskripzioa, zeinu-hizkuntza eta ahozko azpidatziak (Cabrera Blázquez *et al.*, 2023), ikus-entzunezko itzulpengintzaren modalitate nagusi ere izanik. Díaz-Cintasek adierazi bezala (2007), uztartze harmoniatsu eta emankorra gertatu da ikus-entzunezko itzulpengintzaren eta irigarritasunaren artean, izan oztopo linguistikoa ala sentzoriala gainditzeko: "irigarritasuna jarduera horiei eusten dien izendatzaile komuna da"⁹ (Díaz-Cintas eta Remael, 2014: 13).

Aurrera jarraitu aurretik, Media Accessibility Platform aipatu nahi genuke. Online plataforma horretan medioen irigarritasunaren inguruko ikerketa eta argitalpen zientifikoaren atlas osatzen ari dira 2016ko azaroaren 2tik; orduan ekin zion beta bertsioan bere bideari (Greco *et al.*, 2016). Komunikabideen irigarritasunaren inguruko ikerketak, politikak, trebakuntzak eta landa-praktikak modu egituratuan biltzen ditu plataformak eta ikerketa honetan ere ezinbesteko tresna bihurtu da azterketa bibliografikoa egiteko orduan.

2.3.1 Ikus-entzunezko itzulpengintzaren metodoak

Desgaitasunak dituzten pertsonen ikus-entzunezkoetara sarbidea ahalbidetzeko metodoek, aipatu dugunez, eduki horiek eskuragarri izan ditzaten dute helburu. Metodo horietan (zeinu-hizkuntza alde batera lagata) ez da hizkuntzen arteko itzulpenik egiten. Hori litzateke, beraz, ikus-entzunezko itzulpengintza metodoekiko lehenengo ezberdintasuna. Baina berdin jarraitzen du irigarritasun-metodoa izaten hesi linguistikoa, kultural eta sentzorialak gainditzeko laguntzen baitu ulergarritasuna ahalbidetzeko. Hala, itzulpengintza irigarritasunaren metodoetako bat litzateke eta irigarritasun itzulpengintza giza eskubideak hobetzeko neurria, gizartean parte hartzeko (Hirvonen eta Kinnunen, 2021: 2).

⁹ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: "accessibility becomes a common denominator that underpins these practices"

Kasu horretan, beraz, hizkuntza ulergarritasuna ahalbidetzeko metodoez gari gara, alegia hizkuntza-transferentzia bermatzeko teknikez; eta bikoizketa, azpidatziak eta *voice-over* deiturikoa dira metodorik erabilienak (Pedersen, 2011).

- **Azpidatziak:** Zinema mutuaren garaian intertituluak erabili ziren, informazio osagarri gisa (Díaz-Cintas, 2001). Hainbat autorek XX. mende hasieran sortu zirela diote, arrakasta asko barik (Ivarsson eta Carroll, 1998), baina berez soinu-zinemak ekarri zuen zabalkundea, ingelesetik beste hizkuntzetara itzulpen-metodo gisa. Kasu horretan, soinua jatorrizko bertsioan dago eta itzulpena idatziz ematen da, gehienetan, pantailaren beheko partean agertzen den testu bidez. Beraz, jatorrizko bertsioari eusten zaio, eta itzulpena gehitzen.
- **Bikoizketa:** Jatorrizko bertsioa (JB) ordezkatu egiten da bigarren hizkuntza batekin (Talaván-Zanón *et al.*, 2016: 109). Ondorioz, JB guztiz ezkutuan geratzen da. Bibliografia zabala dago horren inguruan eta, biziki interesgarria da, esaterako, bikoizketa zentsura metodo gisa nola erabili den jasotzen duena; tartean, Gutierrez Lanzaren “Traducción y censura de textos cinematográficos en la España de Franco doblaje y subtitulado inglés-español (1951-1975)” tesia (1999). Halaber, bikoizketaren teknikaren inguruan garrantzitsuena litzateke, batetik, jatorrizko hizkuntzaren audioa hartzailearen hizkuntza audioarekin ordezkatzeko dela; eta, bestetik, ahotsak eta irudiak, jatorrizkoan bezala, sinkronizatuta egon behar dutela. Filmen kasuan, sinkronizazioa erabatekoa izan behar da aktorearen ahoaren eta audioaren artean.
- **Voice-over:** Bizkoizketan ez bezala, kasu honetan, azpitik entzun egiten da jatorrizko bertsioa; ez da desagertzen. Jatorrizkoari bolumena jaisten zaio, eta itzulpen ahotsa gainjarri. Horregatik ere batzuetan erdi-bikoizketa deitu izan zaio metodo horri (Matamala, 2018). Bikoizketaren kasuan ez bezala, sinkronizaziorik ez da behar izaten ezpain mugimenduaren eta ahotsaren artean. Filmen kasuan gutxietsi egin izan da metodo hau, baina aintzat hartu beharko litzateke ikus-entzunezko itzulpen metodo gisa (Orero, 2009), herrialde batzuetan filmak ere metodo horrekin itzuli izan baitira, hala nola Polonian edo Baltikoko herrialdeetan (*ibid*, 2009: 131).


2.3.2 Ikus-entzunezko itzulpengintzaren mapa

Metodo horiek ez dira berdin garatu Europar Batasuneko estatu-nazioen artean. Hala, azpidatzi-herrialde, bikoizketa-herrialde eta *voice-over* herrialdeen arteko banaketa egin izan da. Ez gara gehiegi luzatuko horretan, batetik, OSCEk jada 2003an ikerketa zabala egin zuelako 55 estatutan ikus-entzunezkoen araudien inguruan hizkuntza gutxituekin lotuta (McGonagle, Davis Noll eta Price, 2003) eta bestetik, badelako beste ikerketa zabal aipagarria gaiaren inguruan Europar Kontseiluak aginduta (MCG, 2007). Azken horrek, Europako 33 herrialdetako ikus-entzunezko itzulpengintza metodo nagusiak aztertu zituen: bikoizketa, azpidazketa eta *voice-over*. Hainbat arrazoi jaso ziren txosten horretan azaltzeko zergatik egin zuten bikoizketaren alde Alemania, Espainia, Frantzia eta Italiak. Hizkuntza nazionalaren defentsa sutsua egiten zuten korrante nazionalista oso indartsuak zituzten herrialdeek bikoizketa nahiago izaten zuten (Ivarsson eta Carroll, 1998:10; hemen aipatua: Pedersen, 2011: 5). Eta kointzidentzia historiko horrek, soinu-filmen etorrera eta gobernu faxista edo nazien eratzek, azaltzen du herrialde horien ikus-entzunezko itzulpengintza modu nagusia bikoizketa izatea (Pedersen, 2011: 05). Herrialde horiek, beraz, 1930eko hamarkadan, funtsezko jo izan zuten bikoizketa nazionalismoa hizkuntzaren estandarizazioa gauzatzeko. Halaber, ez dago beti argi metodo baten ala bestearen alde zergatik egin den. Batetik, aurrekoa, gehiegi sinplifikatzea litzatekeelako; batez ere, Frantzia ez delako inoiz herrialde faxista izan (Pedersen, 2011: 05) eta, bestetik, gaur egun zaharkitutako banaketa delako kanpoan geratzen baitira telebista kateak, DVD eta Internet, transmisio-teknologien aldaketak eta merkatuaren presioa ikus-entzunezko edukiak hainbat herrialdetan aldi berean emateko (Gambier eta Jim: 2019: 200). Biek ala biek (bikoizketak eta azpidatziak) bere baitan hartzen dute hizkuntzaren estatusa, finantza-inbertsioa eta botere-borroka (*ibid*, 2019: 200); alegia, bikoizketaren aldeko apustua pizgarri protekzionistek, finantzarioek eta teknikoek bultzatu izan dutela (*ibid*: 2019: 210).

Itzulpengintza audiobisuala gauzatzeko azpidatziaren alde jo zuten herrialdeei dagokienez, aipatu txostenak, azpidazketa-elebiduna ere hartzen du aintzat zinemaren kasuan: flandriera egiten den Belgikako eremuan (frantsesez eta flandrieraz); Finlandian (finlandieraz eta suedieraz); Luxemburgen (frantsesez, nederlandera eta alemanez); Suitzan (frantsesez eta alemanieraz) (MCG, 2007: 7). Hizkuntza-transferentziako metodo bien kostu ekonomikoaz ere ari da txostena,

bikoizketa metodo garestiagotzat joz (*ibid*, 2007: 42). Eta, ikus-entzunezko itzulpengintza ohituren herrialde-mapa ere osatu zuen, erakutsiz telebistan eta zineman ez zutela guztiek berdin jokatzten:

IRUDIA 2: AZPIDATZIAK ETA BIKOIZKETA, TELEBISTAN ETA ZINEMAN



Iturria: MCG-Peacefulfish (2007). Euskal Herriko mugak zehazteko egokitu egin da aipatutako lana.

Beraz, ikus-entzunezko itzulpengintzaren historian hainbat arlo garatu dira paraleloan, Gambier eta Jinek zehaztu moduan (2019: 201)¹⁰:

- Historia politikoa, zentsurarena barne.
- Hizkuntza politika, hizkuntza-estatusaren eta AVT metodoen aukeren arteko harremana, AVTk jokaturako papera hizkuntza gutxituen sustapenean eta ingelesak izandako eragina filmen, telebista-saioen eta serieen nazioarteko elkartrukean barne hartuta.

¹⁰Jatorrizkoa: "In sum, the history of AVT runs in parallel with the following areas: Political history (including the role of censorship) (see Merkle 2018; and on censorship and cinema in France with a focus on 1945–1975, see Garreau 2009; Montagne 2007; Vezyroglou 2014; and Hervé 2015); Language policy (including questions on the relationship between language status and choice of AVT mode, the past and current roles of AVT in promoting or reviving a language minority, and the impact of English on the international exchange of films, TV programmes and series) (see O’Sullivan 2016); Legal history (including issues of copyright law, accessibility, and European Union regulations for the media); and; Technology/media history (including consideration of the materiality of translation, a rather new topic in translation studies) (see Littau 2011)."

- Historia juridikoa, egile-eskubideak, irisgarritasuna eta komunikabideen Europar Batasuneko legedia barne hartuta.
- Teknologia/Komunikabideen historia, itzulpen materialtasunaren kontsiderazioa barne.

2.4. Hizkuntzen tratamendua ikus-entzunezkoetan

Digitalizazioarekin hasitako ikus-entzunezko prozesuari (Teixeira, 2013) gehitu zaio ikus-entzunezko edukien kontsumo-aniztasuna, *on demand* edo *streaming* plataformen eskutik. Film kontsumoa, esaterako, zinema aretoetatik guztiz askatu da eta eskaintza iturriak dibertsifikatu dira, plataforma horiek agintzeraino ikus-entzunezkoen paisaian (Castelló-Mayo, Kääpä, Moffat eta López-Gómez, 2021: 229). Eta geratzeko iritsi dira, gainera; hegemonia are handiagoa izango dute ikus-entzunezkoaren merkatuan (Agirre, 2021: 113). Azken datuen arabera, Europako *on demand* merkatua hirukoiztu egin da 2017tik, eta dagoeneko ikus-entzunezko merkatuaren %13 hartzen du (European Audiovisual Observatory, 2023: 37). Egin kontu: harpidetutako *on demand* zerbitzuen irabaziak Europar Batasunean 11,6 bilioi eurokoak izan ziren 2020an; 10 urte lehenago, aldiz, 388,8 milioikoak (Grece, 2021: 6).

Gehikuntza, ordea, ez da eduki kopuru, merkatu-kuota edo kontsumora mugatu. Aniztasuna hizkuntza aldetik ere nabarmen gehitu da. Nolabait, zinema mututik soinu zinemara igarotzean gertatu zena errepikatu da berriro ere –ahaztu barik zinema mutua ez zela inondik inora soinurik bako zinema izan (Dwyer, 2005: 300); alegia, hizkuntza bakoa.–. Aldaketa hark, baina, bestelako hizkuntzak (eta kulturak) ezagutzera emateko aukera ekarri zuen. Eta, aldi berean, Natàlia Izard autoreak deskribatu bezala (2001: 194), ordura arte ikusezina zen harresi bat eraiki zen kulturen artean. Publikoak beste kultura batzuen inguruan ikasten zuen heinean, isiltasunak ordura arte batutakoa bereizi egin zuen soinuak. Alegia, ezkutuan geratzen zen filmen jatorria bistaratu zuen soinuak (*ibid*, 2001: 195) eta beste kultura, nazio eta, azken batean, identitate geratu ziren agerian. Izan ere, aurretik zinema mutua itzulpenetik harago aritzen zen hizkuntza unibertsal gisa aurkeztu izan

baitzen (Dwyer, 2005: 296); eta irudiak erraz interpretatzen ziren, ikusleen jatorri kulturala edozein izanda ere (Gambier eta Jin, 2019: 197).

Hala, herrialde guztiek itzulpenaren inguruan erabaki beharra izan zuten, zinemak hizkuntza “unibertsala” izateari laga baitzion soinuaren iritsierarekin (*ibid*, 2019: 199). Eta testuinguru hark erronka berria planteatu zien ekoiztetxeei. Soinuak itzulpenaren garrantzia indartu zuen eta zinemagintza industriarentzat oztopo bilakatu zen; berehala konpondu beharreko arazo batekin topatu zen (Romero-Fresco eta Dangerfield, 2022: 16). Hala, garai hartan nagusi zen zinemagintza estatubatuarrak, merkatuari eutsi nahian, filmak modu ekonomiko batean itzultzeari ekin zion. Esportaziorako hiru hizkuntzarekin hasi zen: frantsesa, alemaniera eta gaztelania –gainerako hizkuntzetara itzulpenak ekoiztetxe estatubatuarren atzerriko ordezkartzen esku geratu ziren. Alegia, filmak irisgarri egitea bilakatu zen merkatuari eusteko modua. Baina aukeratutako eredu hura, hainbat hizkuntzatan ekoiztekoa, ez zen errentagarria (Danan, 1991: 607) eta azpidatzien bidez hasi zen egiten ikus-entzunezko edukiaren itzulpengintza. Nolabait, hizkuntzaren aukeraketa ikus-entzunezko ingurunearen parte bilakatu zen (Agost eta Chaume, 2001: 10), hizkuntza-aukera mugatua zen arren.

Gaur egun ikus-entzunezko itzulpengintzak inoizko jauzi kuantitatiborik handiena eman du ingurune digitalean eta, era berean, ate berriak ireki zaizkio hizkuntza-aniztasunari, aukerako azpidatzien eta baita bigarren audio-kanalaren bidez (Deogracias & Amezaga, 2016: 18). Esperantza handiak sortu dizkio hizkuntza ez-hegemonikoen presentziari (Castelló-Mayo *et al.*, 2021: 229). Baina zinema mututik soinu zinemara gertatu bezala (Díaz-Cintas, 2011: 219), orain ere erronka hizkuntza gutxiagotu edo ez-hegemonikoei planteatzen zaie: merkatu txikia duten hizkuntzatan egindako lanei; merkatu txikia duten zinemagintzei, alegia. Ezin baita saihestu zinemaren ekoizpenean finantzaketa dela aurre egin beharreko oztoporik handienetakoa (Manías-Muñoz, 2015). Eta, ekoiztetxe handiek gobernatzen duten eremuan, beharrezkoa bihurtzen dela merkatu nahikoa zabalak bilatzea, gutxieneko errentagarritasunaren bila. Horregatik diogu, erronka bikoitza planteatzen zaiela hizkuntza minorizatuei, hizkuntza oztopotzat jo baitaiteke eta arazoa areagotzen da, bikoizketa-tradizioa duten gurea lako herrialdeetan.

Hala ere, bada aukeratzat ere ikusten duena. Jon Garaño zinema zuzendariak esaterako, *Handia* (Garaño eta Arregi, 2017) filmaren ondoren zioen: “Batzuetan pentsatu izan dugu euskaraz izatea, zerbait izatekotan, lagungarri izan daitekeela, Europatik kanpo batez ere; hainbeste ezagutzen ez den hizkuntza bat da eta badauka ‘puntu exotiko’ bat (...) ikusle bati berdin zaio pelikula bat, azpidatziak irakurri behar baditu, euskaraz izatea edo beste hizkuntza batean ze, azkenean, ez da diferentzia askorik horretan. Beraz, ez da muga bat” (Garaño, 2020¹¹). “Jakitun gara takila apur bat mugatzen duela espainiar estatuan. Baina bokazioa da beste herrialde batzuetara iristea eta hor hizkuntzak ez du hainbeste eragiten. Nazioarteko jaialdietara zoaz eta ez zaie axola filma txekieraz edo errumanieraz den, euskaraz ala gaztelaniaz, berdin tratatuko zaituzte. Are, filma hizkuntza gutxitu batean baldin bada, agian, aldekoa izan daiteke” (Jose Mari Gorroño eta Jon Garañori elkarrizketa (Cabacas, 2014; hemen aipatua: Nerekan-Umaran eta Fresneda-Delgado, 2017: 285-286).

2.5. Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza minoritarizatuak

Marko teoriko honetan hainbat aldiz baieztatu bezala, irisgarritasuna, eskubide izatetik harago, printzipio bat da. Ondorioz, diskriminazioa litzateke irisgarritasun-eza (Palacios eta Bariffi, 2007: 84). Beste modu batera esanda, irisgarritasuna, alegia, sarbidea izateko aukera izatea, giza eskubideak bermatzeko printzipio proaktiboa da zeinak eskatzen duen, era berean, eskubideen titularrek jarrera proaktiboa izatea beharrezkoa den baldintza horrekin betetzeko (Greco, 2018: 208). Horrela bakarrik saihestuko da ghetto efektua, kontrara, irisgarritasunaren unibertsaltasunaren kontra jotzea litzateke (*ibid*, 2016: 11).

Planteamendu hori hizkuntza gutxituetan egiten den zinemagintzara ekarrita, irisgarritasunak berma dezake eduki horien kontsumoa ez mugatzea hizkuntza ezagutzen dutenei, eta, hortik harago hedatuz, beste hizkuntza batzuetara zabaltzeaz gain, beste hizkuntzetako hiztunak erakartzea (ikus-entzunezko itzulpengintza lagun).

Zinemak mutua izateari laga eta berehala ohartu ziren estatu-nazioak egoera hark zekartzan aldaketa eta arriskuez. Ez baitugu ahaztu behar garai hartan, ekoizpen zinematografiko gehienak ingelesez zirela eta kezka adierazi zuten euren hizkuntzen

¹¹ Elkarrizketa pertsona, 2020/XII/28.

kaltetan izango zelako. Soluzio gisa, atzerriko ekoizpenei kuotak ezartzera jo zuten askok (Burri, 2014: 480). Eta, atzerriko lanen itzulpen-irigarri metodoari dagokionez, berriz, askok bikoizketara jo zuten; ondorioz, jatorrizko bertsioa mututuz. Hortik eratorri ziren gerora erabilitako ikus-entzunezkoen itzulpengintza metodoen araberrako estatuaren banaketa, aurretik aipatutako azpidatzi-herrialdeak, bikoizketa-herrialdeak edo *voice-over*-herrialdeak (MCG, 2007). Hala, alemana, frantsesa, italiarra eta gaztelania darabilten herrialdeak bikoizketa-herrialdeetat jo izan dira (Kilborn, 1993); Europa iparraldekoak edo Portugal, berriz, azpidatzi-herrialdeetat (Díaz-Cintas, 2007).

Euskararen lurraldeak ere bikoizketa lurralde dira, Ipar nahiz Hego Euskal Herrian. Izan ere, frantsesera eta gaztelaniara itzultitako zinema sustatu eta banatu izan da Frantzian zein Espainian, eta bikoizketaren praktikak baztertu egin du euskara, hizkuntza hegemonikoa lehenetsi baitute estatu biek. Ez da kontuan izan jatorrizko bertsioek, edo azpidatzitako jatorrizko bertsioek, kulturen arteko komunikazioaren adierazpen militante eta lagungarriak direla (Castelló-Mayo *et al*, 2021: 226). Eta, euskarazko filmen kasuan, adibidez, ez dago estrategia edo bide legalik zehaztuta Hego Euskal Herriko filmak Ipar Euskal Herrian banatzeko (Martínez, Frances, Agirre & Manías-Muñoz, 2015: 729). Horren inguruan aipatzekoa da hemen UPV/EHU n oraintsu defendatu den tesia: “Hizkuntza gutxituak eta ikus-entzunezkoak Frantzian. Euskal zinemaren garapena eta haren aldeko lurralde politika publiko baten genesisia Ipar Euskal Herrian (2015-2023)¹²” (Irigarai, 2023). Esperimentazioaren bidetik, Hego Euskal Herrian ekoiztutako hamaika ikus-entzunezko lan (dokumentalak eta filmak tartean) Ipar Euskal Herriko zinemetan erakusteko egin beharreko lan guztia jaso du tesian: “Ekoizlea behartua da bere eskubideak saltzera nahi badu filma zabaltu eta ekoizten segitu. Ondorioz, horregatik zaila da Ipar Euskal Herriarentzat eskubideak negoziatzea. Zinema aretoekin negoziatu izan dudalarik, haien arazoekin ere topo egin nuen, banatzaile handien eskakizunei erantzun behar baitiete. Gainera, behar dute ekonomikoki bermatu sartze minimo bat izanen dela: film bakoitzarentzat behar izan dira konbentzitu” (Alzugarai-Etxeberri, 2024). Horregatik, eta Irigarai ondorioztatu duenez, merkatutik harago, politikoki ere eragin beharra dago euskal zineman, ekoizpenak eta zabalkundea sustatzeko orduan.

¹² Frantsesez: “Le cinéma et l’audiovisuel en langues minoritaires en France. Le développement du cinéma basque et la genèse d’une politique publique en sa faveur au Pays Basque Nord (2015-2023)”.

Adostasun zabala dago ikerlari eta akademikoen artean ikus-entzunezko komunikabideek paper garrantzitsua jokatzen dutela ingelesaren zabalkundean, nazioarteko komunikazio-hizkuntza gisa; batez ere, nazioarteko merkatuan film esportatzaile nagusi gisa Hollywooden zinema-industriak duen leku hegemonikoagatik (Martínez-Garrido, 2013). Eta, horrek dakarren inplikazio politiko eta ideologikoek kezka eragin izan dute (Gottlieb, 2004).

Orain, berriro ere ari da bizitzen ekoizpenaren, banaketaren eta ondasun sinbolikoaren apropiazio-paradigmaren aldaketa (Agirre, 2021: 103). Are, ikus-entzunezkoen Europako Behatokiaren arabera, Estatu Batuetako plataformek agintzen dute Europako *streaming* merkatuan eta, ondorioz, hizkuntza-paisaian (Jiménez-Pumares, 2020; hemen aipatua: Castelló-Mayo *et al.*, 2021: 229).

Streaming plataforma nagusienak (Netflix, Amazon Prime eta Disney +) monitorizatu dituen azken ikerketa baten arabera, ingelesa da hizkuntza nagusia hiru plataformen eskaintzan, eta estatu-nazio hizkuntzaren gainetik Europako hainbat herrialdetan. Hizkuntza gutxituei dagokienez, Europako bost hizkuntza minorizatuk bakarrik daukate presentzia, ia testigantza hutsa bada ere (Agirre-Miguel *et al.*, 2023).

Jatorrizko bertsoaren azpidazketa tresna eraginkorra da aniztasun linguistikoaren entzungarritasuna eta ikusgarritasuna gehitzeko; bereziki baliagarria hizkuntza gutxituen kasuan (Monteagudo, 2023: 57). Errealitateak, aldiz, erakusten du hizkuntza hegemonikoek ere euren alde baliatzen dituztela metodo horiek. Aipatu ikerketan, esaterako, ingelesaren nagusitasuna ez da soilik jatorrizko bertsoaren hizkuntzara mugatzen. Azpidatzen artean ere hizkuntza nagusia da hiru plataformetan: azpidatzi guztien %15. Frantsesez dira azpidatzen %9,8 eta alemanez, %9,4. Ikerketaren arabera, gaztelania litzateke hiru plataforma horietan laugarren azpidazketa-hizkuntza nagusia (%8,2) (Agirre-Miguel *et al.*, 2023).

2.6. Hizkuntza gutxituen babeserako arau-esparrua

Jarraian ikusiko dugun bezala, estatu kideen legediek irisgarritasuna eta hizkuntza eskubideak modu berezian arautu izan dituzte. Baina ikuspegi sozio-kultural batetik, zeinu-hizkuntza eta hizkuntza gutxituak hizkuntza eskubide auzia dira, edo baztertutako talde eta dituzten giza eskubideen auzi (Reagan, 2019: 272; hemen aipatua: Hirvonen eta Kinnunen, 2021: 1).

Izan ere, minorien hizkuntza eskubideei dagokienez, alde handia dago hizkuntza gutxituan ari den hiztuna 'eskubideen titular' izan edo 'ezintasunen' bat izan (Córdoba-Serrano eta Díaz-Fouces, 2018). Autoreen arabera, minoria linguistikoak gizartean parte hartzeko gaitasun nahikorik ez duen beste minoria batekin alderatu ahalko litzateke, irisgarritasunaz ari garenean; kontuan izanik, hori bai, hizkuntza nagusian gaitasunik ez izatea zuzendu daitekeela, ez ordea desgaitasun bat. Hizkuntza hegemonikoan gaitasun linguistikorik ez izatea zuzendu beharreko hizkuntza politika arazo gisa ulertzen da, eta itzulpengintza zerbitzuak egokitze-modu gisa (*ibid*, 2018: 7). Ikuspegi horrek, baina, norabide bakarreko irisgarritasuna indartzen du; alegia, hizkuntza minoritarioek hizkuntza hegemonikoetara iristea, eta guk harago jo nahi dugu gure tesiarekin.

Europaz ari garelarik, minoria nazionalak babesteko Hitzarmen Markoa adostu zuen Europako ministro kontseiluak 1994an. Berau litzateke loteslea den lehenengo tresna multilateral juridikoa (Bautista, 2021: 939), aipatu minorien kultura eta identitatea babestu eta garatzeko. Aintzat hartzen dira identitate etnikoa, kulturala edota linguistikoa; diskriminazio eza; kultura, erlijioak eta hizkuntza minoritarioak babestea eta garatzea; komunikabide esparru anitza sustatzea, emanaldiekin hizkuntza gutxituetan eta minoriek sustatutako komunikabideak laguntzea. Halaber, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak (2000) hizkuntza-aniztasuna errespetatzera behartzen du Europar Batasuna (22. artikulua) eta hizkuntzan oinarritutako diskriminazio oro debekatzen du (21. artikulua). Gutun hori indarrean sartu zen Lisboako hitzarmenaren ondotik. Haren lehenengo artikuluan jaso zen: giza duintasun, askatasun, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide estatua eta giza eskubideen errespetuan oinarritzen dela Batasuna, minorien eskubideak barne (Lisboako hitzarmena, 2007).

Bestalde, kultura-industrien (ez bakarrik komunikabideak) esparruan, eta hizkuntza minoritarioei gagozkiola, duda barik, Europako Kontseiluak (1992) adostutako markorik zabalena Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna da. Bere barne hartzen ditu erregio hizkuntzak eta gutxituak, lurraldekoak ez direnak eta gutxien zabalduetako hizkuntza ofizialak. Hala, Eurogutuna diseinatuta dago, batetik, babesteko eta sustatzeko hizkuntza horiek (mehatxatutako ondare kultural europarraren parte diren heinean) eta, bestetik, hizkuntza horien hiztunek bizitza

pribatuan zein publikoan erabil ahal ditzaten (azken arlo hori zuzenean lotuta komunikabideekin).

Beraz, Eurogutunak aitortzen du hizkuntza horien babesak laguntzen duela Europako ohitura- eta kultura-aberastasuna mantendu eta garatzen eta, era berean, hizkuntza minoritarioen babeserako eta sustapenerako nazioarteko tresna nagusia dela. Baina, berez, ez ditu hizkuntza eskubideak ezartzen, baizik eta derrigortasunak estatu sinatzaileentzat, Europako kultura-ondare diren hizkuntzekiko (Ruiz-Vieytez, 2022: 53). Sinatutako konpromisoekiko betetze mailaren jarraipena egiteko ardura dauka Aritu Batzordeak. Horretarako estatu-sinatzaileek derrigor aurkeztu beharra daukate Eurogutunak jasotzen dituen konpromiso eta betebeharren inguruan hartutako erabakien txosten bana; nahiz eta batzordeak darabilen interpretazio-estrategiak egin zitezkeen ñabardurak ezartzeko aukera mugatzen duen (Ramallo, 2019: 153). Alegia, balorazio orokorregiak egiten direla. Ildo horretan ere dio Ruiz-Vieytezek (2022: 53), hainbat estaturen konpromiso falta arazo izan daitekeela eta agerian geratzen dela aniztasun linguistikoaren babesa ez dela Europar Kontseiluaren lehentasuna.

Horren adibide, esaterako, hizkuntza gutxituak babesteko Europar Parlamentuak onartutako aurrekontu-lerro propioa bertan behera laga izana Europako Justizia Auzitegiak 1998an (Gazzola, Grin, Häggman eta Moring, 2016; hemen aipatua: Kuipers-Zandberg eta Schukking, 2021: 3). Harrezkero, marko zabalago baten baitan hartzen dira aintzat hizkuntza gutxituak, aurrekontuari dagokienez eta horrek hizkuntza nagusiagoekin lehiatu beharra dakarkie (*ibid*, 2021: 3). Izan ere, diru-funtsak lortzeko aukerak zabaldu izanagatik ere, hizkuntza era transbertsanean gehi dakioke edozein proiekturi eta lehia handitzean gutxitu egiten dira hizkuntza gutxituentzako benetako aukerak, ezin baitira aukera berdintasunean hizkuntza hegemonikoekin lehiatu (*ibid*, 2021: 30).

Gure ikerketa honetan, batez ere, Eurogutunaren 11. (Komunikabideak) eta 12. (Kultur jarduerak eta ekipamenduak) artikuluetan jarri dugu fokoa. Lehenengoan, aurreikusten du, aukeran, “gutxienez irrati-estazio eta telebista-kate bana sortzea eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan”, “eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez telebista-kate bat sortzea sustatu eta/edo erraztea”, edo “eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako egindako entzunezko eta

ikus-entzunezko materialen ekoizpena eta zabalkundea sustatu eta/edo erraztea” (EEUHEG, 1992: 8). Izan ere, komunikabideen bitartez lortzen dute gizarte bateko kideek giza-jarduera konplexuetan (politikoak edo sozialak) parte hartzeko aukera izateko ezagutza (Cormack, 2007: 53).

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Euskal Telebista euskara hutsez sortu zen orain dela 40 urte pasatxo (5/1982, Euskal-Irrati Telebista Herri-Erakundea sortzeko legea), laster kate homologoa sortuko bazuten ere erakundeek gaztelania hutsez. Ezin esan, beraz, Eurogutunak agindutakoa betetzen ez denik, bigarren kate horren sorrerak euskararen hedapenari nola eragin dion neurtzen zaila den arren. Bibliografia zabala dago euskarazko telebista publikoaren inguruan, gaian sakondu nahi izatera (Etxebarria, 1994; Barambones, Merino eta Uribarri, 2012; Amezaga, 2013; Larrinaga, 2019; Azpeitia, 2022; Urkizu, 2024).

Hala ere, eta Eurogutunaren betetze-mailari buruz, bai gogoratu nahi genuke, adibidez, 2017ko ondorio-txostenak salatu egin zuela komunikabideen esparruan, estatu-lege eta arauak zentralizatzaileak zirela eta komunikabideen gaztelanizatzearen alde egiten zutela (Castelló-Mayo *et al.*, 2023: 8), baita euskarak izan baduela gutxieneko komunikabide sare bat –11. artikulua betetzen dela, horrenbestez–, baina komunikabide horiek desoreka linguistiko handiko presiopean daudela (*íbid*, 2023: 69).

Halaber, 12. artikuluan, besteak beste, esaten da “eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan sortutako lanak beste hizkuntza batzuetan eskuratzeko bitartekoak erraztea, eta, horretarako, itzulpen-, bikoizketa-, postsinkronizazio-, eta azpitolazio-lanak lagundu eta garatzea” eta “beste hizkuntza batzuetan sortutako lanak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan eskuratzeko bitartekoak erraztea, eta, horretarako, itzulpen-, bikoizketa-, postsinkronizazio-, eta azpitolazio-lanak lagundu eta garatzea” (EEUHEG, 1992: 9). Hau da, norabide biko ikus-entzunezko itzulpengintzaren alde egitea proposatzen du.

Azpimarratzekoa da Eurogutunak ez duela hizkuntza lotzen beren-beregi irisgarritasunarekin. Auzi partikular gisa erantzuten zaio, babestu behar den objektu gisa; baina bai ematen du ulertzeraz hizkuntza propioan azpidatzitako jatorrizko bertsioetara sarbidea izatea kultura-aniztasunaren sintoma dela (Barreiro-González

eta Pérez-Pereiro, 2023:19). Kultura-aniztasunak erreferentzia egiten dio kultur talde eta gizarteek adierazteko darabilten modu anitzei, zein diren ere darabiltzaten medioa eta teknologia (UNESCO, 2005: 4(2) artikulua).

Europar Batasuna kontziente da horrekin, eta bere parlamentuak, adibidez, onartu izan du komunikabide minoritarioek ezinezko dutela lehiatzea komunikabide handiekin, eta estatu kideei eskatu die erregio hizkuntzan eta hizkuntza gutxituetan sortutako ekoizpenak babestea, baita European ari diren plataformetan haien hedapenean laguntzea ere (Europar Parlamentua, 2021eko urriaren 20an). Ez baitugu ahaztu behar pluralismoa nahiz kultura- eta hizkuntza-aniztasuna Europar Batasunaren sortze-printzipioak direla (EBren ituna, 2012: 13), eta horiek sustatzeko eta zabaltzeko metodo garrantzitsua direla ikus-entzunezkoak. Nahiz eta kezka ere baduen Europar Parlamentuak aniztasun linguistiko guztia ordezkatzeko ote den zabaltzen diren ikus-entzunezko lan europarretan. Hala, AVMSD zuzentaraua inplementatzeko txostenean jaso zen, lan europarrak hedatzeko ahalegin handiagoa egin behar dela Europako hizkuntza-aniztasun guztia ordezkatzeko, hizkuntza ofizialak nahiz erregio eta hizkuntza gutxituak aintzat hartuz. Eta beharrezko jo zuen ikus-entzunezko komunikabide-zerbitzuen hedapen-hizkuntza datuak jasotzea –bikoizketa, azpidazketa eta audiodeskripzioa barne hartuz–, ezinbesteko neurriak hartzeko (Report on the implementation of the revised Audiovisual Media Services Directive (2022/2038(INI))). Hizkuntza-aniztasuna bermatzeko kezkak, beraz, bizirik dirau Europako erakundeetan.

Ikus-entzunezkoen irigarritasunaz ari gara, hortaz, ikerketa honen oinarrian; baina harago joz. Izan ere, historikoki norabide bakarrean ulertu eta erabili den kontzeptua delako ikus-entzunezko irigarritasuna –desgaitasunak dituzten pertsonen kultura hegemonikora hurbilketa errazteko–. Eta kontrara ere uler daiteke: gehiengoari bermatzea gutxiengoaren kulturara heltzea –alegia, hizkuntza eta kultura gutxitua ulertzen eta ezagutzen ez duten horiei–. Jakina, ikuspegi horrek agerian uzten du, baita ere, hiztunak elebidunak diren testuinguruetan hizkuntza gutxitu eta ez-hegemonikoen arazo nagusienetako bat ere landu beharra dagoela: hizkuntza hegemonikoek gutxiengoekiko duten iragazgaiztasuna (Haf Gruffydd Jones, 2013). Alegia, ulergarritasunak eta hiztun kopuruak baldintzatzen dute ekuazioa: zinema-finantzataileek irismena bilatzen dute, eta hizkuntza gutxituek *de facto* kontra duten elementua da hori. Are gehiago, hizkuntza ofizial bat baino gehiago

dituzten estatuetan, eta bietako bat minorizatua denean, hizkuntza hegemonikoak erabilienera izatera jotzen duenean (Pereira, 2013).

Testuinguru horretan diogu ikus-entzunezko irisgarritasuna hizkuntza gutxitu eta ez-hegemonikoetan sortutako ikus-entzunezko edukien ezinbesteko aliatua dela irisgarritasun linguistikoa bermatzeko, hizkuntza horien irismena ahalbidetzeko eta hizkuntza horiek ulertzen ez dituen audientziarentzat ere irisgarri izateko. Modu horretan ulertzen dugu halaber itzulpengintza irisgarritasun-zerbitzu gisa (Martínez-Lorenzo, 2020: 227). Gobernu Kanpoko 61 Erakundek, Idazleen 41 elkarte batzen zituen Idazleen Mundu Klubak (PEN) eta hizkuntza eskubideen 40 adituk idatzi eta sinatu zuten Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak jaso bezala, “komunitate linguistiko orok du zuzeneko edo alderantzizko itzulpen-medioez gozatzeko eskubidea adierazpen honetan jasotako hizkuntza eskubideak erabiltzea bermatzen dutenak”¹³ (Bartzelona, 1996: 11. artikulua) eta “komunitate linguistiko orok dauka kultura arteko programazioetara sarbidea izateko eskubidea, informazio nahikoa zabalduz, eta babestu daitezkeen atzeritarrentzako ikaskuntza jarduerak edo itzulpena, bikoizketa, post-sinkronizazio eta azpidazketa” (*ibid*: 44. artikulua)¹⁴.

Beraz, ezkortasunetik harago, aukera gisa planteatzera jo dugu auzi hori guztia. Hainbat autorek defendatu bezala, zineman hizkuntza bat diskriminatzeak eragiten du jatorrizko bertsioaren eta bikoiztuta ez izateko eskubidearen aldeko aldarrikapena, azpidazketa-politikan antzeman daitekeen eskubidea (Ledo-Andión, López-Gómez, eta Pérez Pereiro, 2016: 312). Izan ere, “hizkuntzak modu bitara funtzionatzen du, komunikazio metodo gisa eta taldeen identitate eragile gisa” (Jacobsen, 2018: 618)¹⁵. Azken batean, komunikazio hizkuntzaren aldeko hautua kultura identitatearen ikur baita (Castelló-Mayo *et al.*, 2021: 227). Beraz, hel diezaiozun abantaila horri; eskubide horri.

¹³ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “*Toda comunidad lingüística tiene derecho a gozar de los medios de traducción directa o inversa que garanticen el ejercicio de los derechos recogidos en esta Declaración*”.

¹⁴ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “*Toda comunidad lingüística tiene derecho a acceder a las programaciones interculturales, a través de la difusión de una información suficiente, y que se apoyen las actividades de aprendizaje para extranjeros o de traducción, doblaje, post-sincronización y subtítulo*”.

¹⁵ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “*Language works both as a medium of communication as well as a marker of group identity*”.

3. ATALA: Metodologia eta ikerketa prozesua

Aurkezten dugun tesia, hasieran argitu dugun bezala, uste baino luzeagoa izan den ibilbide baten emaitza da; gorabeheratsua, baina era berean aberasgarria, hasieratik talde-lanean oinarritu delako eta hala garatu delako ondorengo urratsetan ere. Bidelagunak izan ditugu ikerketan zehar, hizkuntza gutxituen eta ikus-entzunezkoen auzia partekatua delako espainiar estatuaren kasuan, Galizian, Katalunian eta Euskal Herrian (EUVOS, 2016-2019) eta, hala sortu zen ere sarean jarduteko beharra (ALMA, 2020-2021).

Hala bada, tesia ibilbide eta ikergai anitzen emaitza da: ikus-entzunezkoak, irigarritasuna, ikus-entzunezkoen itzulpengintza eta hizkuntza gutxituak aintzat hartzen dituenak. Ikerketa hurbilketa, halaber, jada hasita zegoen beste ikerketa-proiektu bati zor dio: MULTILINGUAL TV - Communication spaces in Europe, in the multilingual context of television (MINECO, CSO2011-28060-C02-01, 2012 – 2015). Ikerketa-proiektu haren baitan 2012an egin zen espainiar estatuko telebista jeneralisten emanaldien neurketa eta neu 2014an egindakora gehitu nintzen. Ikerketara egindako lehenengo hurbilketa hark eman zidan tesiari ekiteko aukera.

Neurketa haietan oinarrituta gure ikerketaren hipotesia plazaratu genuen AMADIS ikus-entzunezkoetara irigarritasuna VII. Kongresuan, “Más allá de la discapacidad. Otros objetivos para la accesibilidad de los medios audiovisuales” komunikazioan (Amezaga-Albizu eta Deogracias-Horrillo, 2014).

Biltzarra Desgaitasunaren Patronatoak, Madrilgo Carlos III Unibertsitateak, CESyA (Azpidaketa eta Audiodeskripzioaren Zentro Espainiarra) erakundeak eta RTVEk antolatu zuten ikus-entzunezkoen eta irigarritasunaren testuinguruan. Orduko premisatako bat zen irigarritasun unibertsalaren eta ikus-entzunezko komunikabideen etorkizuna teknologia berrien garapenetik etorriko zela, RTVEko orduko zuzendari orokor Enrique Alejok (2014) adierazi zuenez. Ondorioen artean jaso zen, pertsona guztien aukera berdintasuna bermatzeko –bereziki, ikus-entzunezkoetara sarbidea izan dezaten, eta modu orokorrean, kultura ondasunetara– beharrezkoa dela legedian aurrera-urratsak egitea, Ikus-entzunezko Legeak (7/2010) finkatzen zituen kopuruetatik harago (%80 azpidatzita eta ordu biko audiodeskripzioa). Testuinguru hartan, hortaz, irigarritasunaz mintzo zen, telebistaz

hitz egiten zen, azpidatzi eta audiodeskripzioaz eta haiek ahalbidetzeko teknikez... Baina ez zen hizkuntzaz berba egiten. Hizkuntzaren auzia ez zegoen ezbaian, ez zen ikus-entzunezko irisgarritasunaren auziaren parte desgaitasunaren testuinguru hartan. Horregatik ere, gure orduko planteamenduak ikusmina eragin zuen.

Marko teorikoan luze eta zabal landu da irisgarritasunaren gaia eta uste dugu nahikoa argi geratu dela ez gabiltzala maila berean jartzen desgaitasunak dituzten pertsonen ikus-entzunezkoetara sarbidea izateko eskubidea eta hizkuntza gutxituan ari diren hiztunen hizkuntza eskubideak. Izan ere, hizkuntza minoritarioko hiztunak hizkuntza hegemonikoren bat ere ezagutzen du eta, beraz, abantaila izango du desgaitasunen bat duten pertsonen aurrean, hark bai ala bai, irisgarritasun-metodoren bat beharko duelako ikus-entzunezko eduki horretara heltzeko. Hala ere, irisgarritasun audiobisuala egituratzen duten printzipioak partekatzen dituzte hizkuntza gutxituetan egindako ikus-entzunezko edukiek: sarbidea behar dute; iristeak berebiziko garrantzia hartzen du; bizirauteko baldintza, merkatuan lehiatzeko eta ikusgarritasuna gehitzeko. Horregatik guztiagatik, egin da analisi bibliografiko zabala irisgarritasunaren inguruan, gaiaren egokiera baloratzeko.

Halaber, esan behar da ugaria dela ikus-entzunezko irisgarritasuna eta hizkuntza gutxituak konbinatzen dituen bibliografia ere. Adibidera: *Google Scholar* bilatzailean kontzeptu bi horiek ingelesez bilatuta 24.900 emaitza aurkezten dira; gaztelaniaz, erdia baino gutxiago: 10.500 (azken bilaketa: 2024-03-02). UPV/EHUren liburutegi zerbitzuak eta ADDI gordailuek, berriz, 102 emaitza erakutsi zizkiguten ingelesez egindako bilaketan; bakarra, gaztelaniaz eta euskaraz ez dugu emaitzarik jaso (azken bilaketa: 2024-03-02). MAP datu basean ere 5 erreferentzia ageri dira kontzeptu biak barne hartzen dituztenak (azken bilaketa: 2024-03-31).

Kopuruari azpimarragarria deritzogu, eta horretan zeresan handia izan du ikus-entzunezko itzulpen gintzak akademikoki eta ikasketa arloan izan duen aurrerapenak. 2000ko hamarkada hasieran ikerketa esparru nahiko berria zen eta koherentzia kontzeptual eta terminologikoa falta zuen, uneko emaitza eta transferentzia-moduei zegokienez (Franco, 2001). Hamarkada horretan ere, eta trebakuntzaren beharraz ohartuta (Orero, 2004), eskaintza akademikoa hazi egin zen irisgarritasun audiobisualaren inguruan. Aipagarria deritzogu irisgarritasuna komunikabideetan garatzeko unibertitate eta unibertitatez kanpoko

ikasketa-eskaintzari buruzko Badiak eta Matamalak (2007) egindako ikerketa. Artikulu hartan agertzen diren unibertsitateetako batzuk hemen aipatutako ALMA sareko kide izan dira.

Klientelismoaz dio Díaz-Cintasek (2004: 28) hiru mailatan aritzen dela: ideologikoa, ekonomikoa eta soziala. Eta horretan oinarrituta azaltzen du AVTk ateak irekitzen dizkiola “estatuaren eskuhartzeari zentsuraren edo zinemagintzaren legediaren bidez (pantaila-kuotak, bikoizketa- eta azpidazketa-baimenak, dirulaguntzak); Europar Batasuna moduko goragoko erakundeen parte hartzeari edo erkidegoetakoak¹⁶, telebista-kateen eta bizkoiketa-azpidazketa laborategien paperari; unibertsitateak. Eta garrantzitsua dela ere aintzat hartzea, herrialde edo erregio linguistiko zehatz batean nazioarteko banaketa eta ekoizpen enpresek duten paper erabakigarria; audientziaren beharren eta gustuen eta enpresen interes komertzialen artean sortzen diren tentsioak; ikus-entzule objektiboak kontsumitu nahi duena itzultzen dela dioen falazia erdi-onartua, ez enpresek saldu nahi dutena. Orain arte, faktore hauek ez dira sakoneko analisi-gai izan. Ez dago dudarik, ikuspuntu sistemikoago batek itzulpena zentzu zabalago batean hobeto ulertzen laguntzeko ondorioetara eramango gintuzkeela”¹⁷ (Díaz-Cintas, 2004: 28).

Bistan denez, hari-muturrak asko dira esparru horretan, eta testuinguru horretan kokatzen dut nire ikerketa, hurrengo galderari erantzun guran: teknologiak balio badu ikus-entzunezkoak irigarri egiteko entzumen- eta ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzat, zergatik ez baliatu hizkuntza gutxituak irigarri egiteko hizkuntza nagusiagoan ari direnentzat?

Hurrengo ataletan hainbeste hari mutur lotzen dituen ikerketa-esparru zabal horri nola heldu diogun azaltzen saiatuko gara. Europar Batasuneko legedia markoa eta estatu bakoitzaren esku hartzea, teknologiaren garapenak itzulpengintza

¹⁶ Oharra: Kataluniako Generalitatea aipatzen du berak (Díaz-Cintas, 2004).

¹⁷ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: "AVT it opens the doors to the study of the state's interference through film censorship or cinema legislation (screen quotas, dubbing and subtitling licenses, financial subsidies); the participation of higher bodies and authorities such as the European Union or more localised ones such as the Generalitat de Catalunya (Catalan Local Government); the role of the importance of the educational centres like universities. It is also highly interesting to include the study of the decisive role played by the international distribution and production companies in any given country or linguistic region; the tension that arises between the needs and tastes of the audience and the commercial interests of the companies; the semi-accepted fallacy that what is translated is what the target spectator wants to consume and not what the companies want to sell. Until now, most of these factors have failed to receive an in-depth analysis. There is no doubt that a more systematic approach would lead to conclusions that could contribute to a better understanding of translation in its widest sense".

baliabideetan izan duen eragina, ikus-entzunezko kontsumo-ohiturak, merkatua eta zinema-banatzailak, hizkuntza gutxituak eta zinemagintza tarteko. Eta hori guztia oinarrizko eskubideen testuinguruan kokatuta; alegia, desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak eta hizkuntza eskubideak. Biak ere irisgarritasunaren kontzeptuaren baitan.

3.1. Diziplina anitzeko metodologia

Hainbat etapatan garatu den ikerketa-lanaren emaitza denez tesi hau, aplikatu diren jakintza-alorrak ere anitzak izan dira. Hala, diziplina anitzeko metodologia erabili da ikerketa-lana garatzeko eta zati handi batean lan kolaboratiboari esker gauzatu da. Ikerketa kolaboratiboaz mintzo da Lassiter (2021) aurretik erabilitako etnografia kolaboratiboan (*ibid*, 2005) baino modu zabalagoan. Diseinuan, garapenean eta hedapenean espresuki kolaboratiboak diren ikerketa-ikuspuntu eta hedapen-moduez ari da autorea eta ez ditu barne biltzen hainbat ikerlariren arteko lan kolaboratiboak kategoria horretan, beti ere antropologiatik ari baita. Hala ere, eta diziplinarteko ikerketari atea irekitzen dionez, zilegi deritzogu baieztatzea tesi honek ikerketa kolaboratiboari erantzuten diola. Horren adibide, bilduma honetan jaso diren emaitzetako batzuk. Eta lan egiteko molde horrek ere, metodologia anizkoitza erabiltzera garamatza; alegia, gizarte zientzietan nagusi diren metodologia biak uztartzera: kualitatiboa eta kuantitatiboa (Ruiz-Olabuénaga eta Ispizua, 1989).

Azterketa kualitatiboaren barruan, gainera, hainbat diziplina erabili dira, ikuspegi monolitikotik harago mosaiko ikuspegia eskaintzen baitu metodologia kualitatiboak (Patton, 2002: 272). Mosaiko gisa aurkezten baita artikulu bilduma ere. Hala, bibliografia azterketa eta dokumentaletik harago, elkarrizketak eta esperimenezkoak garatu ditugu (Ruiz-Olabuénaga eta Ispizua, 1989) eta kasu azterketa (Ugalde-Binda eta Balbastre-Benavent, 2013) ere egin da: *Pa Negre*, *Handia* eta *O que arde* filmekin; are, kasu azterketa kolektiboa (Stake, 1994; hemen aipatua: Senarro, 1995) izan da, kasu azterketa batetik hasitakoa.

Halaber, metodologia kuantitatiboarekin osatu da ikerketa-lana, geroago ikusiko dugun bezala, telebista jeneralisten hizkuntza-eskaintzaren monitorizazioa eginda. Izan ere, metodologia biak osagarriak dira eta metodologia misto hori lagungarria da

batek izan ditzakeen desabantailak bestearekin konpentsatzeko (Molina, 2010; hemen aipatua: Ugalde-Binda eta Balbastre-Benavente, 2013: 184). Azken batean, neurketa-teknika eta datu-iturri heterogeneoak lagungarri dira konstruktua teorikoa prestatzeko eta aztergaiari hobeto egokitzeko (Donolo, 2009).

Aztergaiaren prestaketan ikergaia bera definitzea izan da lan honetan ere lehenengo erronka. Ruiz-Olabuénagak eta Ispizuak dioten moduan (1989: 60), teknika kualitatiboaren bidezko ikerketak, funtsean, beste edozein ikerketa kuantitatiboren garapen-prozesu bera du: bost alditan garatzen da (arazoaren definizioa, lanaren diseinua, datu-bilketa, datu-analisia, balioztatzea eta txostena) eta horietako bakoitzak bere marka propioa eranstean dio lanari, galdeketek eta esperimenduek egiten duten moduan.

Metodologia kualitatiboaren lehenengo aztergaia definitzea eta formulatzea dela dio Quintanak (2006) dela aztergaia definitzea eta formulatzea, baina arazoaren definizioa, analisi kualitatiboaren ikuspegitik, beti da behin-behinekoa eta helburu du ondo definituta dagoen aztertzea (Ruiz-Olabuénaga eta Ispizua, 1989: 63). Gure kasuan, metodologia kuantitatiboaren ondotik etorri da formulazioa, edo parean. Izan ere, estatu espainiarreko telebista kanalen hizkuntza-eskaintzaren azterketak zehaztu zigun norabidea. Hasierako ikerketa hark eraman gintuen formulatzera gure lehenengo kezka. Ikusi genuen teknologiak ahalbidetzen zuen hizkuntza-aniztasunaren baitan hizkuntza gutxituek ez zutela presentziarik eta, hortaz, irisgarritasun linguistikoa partziala zela oso.

Horri erantzun ahal izateko etorri zen ondorengo azterketa bibliografikoa irisgarritasunaren eta ikus-entzunezko irisgarritasunaren nahiz Europako estatuen hizkuntza-transferentzia audiobisualen ingurukoa. Beraz, ikerketa-diseinua bidea egin ahala joan da forma hartzen; nolabait, esatearren, malgutasuna izan da ikerketa honen diseinuaren ezaugarri. Eta horrela egikaritu dugu metodologia, lurra hartzen joateko hainbat teknika uztartuz: behaketa, elkarrizketak eta landa-lana (Quintana-Peña, 2006). Nolabait gure esplorazio-fasea, alegia, aztertuko den errealitatearen inguruan dagoen dokumentazioaren errebisioa, batetik, eta ikertuko den errealitatearen alde aurreko behaketa (*ibid*, 2006: 52), bestetik, alderantziz gauzatu dira: lehenengo telebisten errealitatea behatu da eta horrek eraman gaitu irisgarritasunaren inguruko literatura errebisatzera.

Jardunbide horrek bide eman digu ikerketaren helburuak definitzeko. Izan ere, helburuetako batzuk guztiz deskriptiboak izanik (legedia, telebistek darabilten irisgarritasun-metodoak eta teknologikoki garatu diren gailuen azalpena, esaterako), parametro horiek era objektiboan aztertu dira, dagoen bibliografia baliatuta eta gaiari estuki lotzen zaizkion erreferentziazko dokumentu eta txosten ofizialak aztertuta. Modu horretan heldu gara helburu deskribatzaileak eta azalpenezkoak definitzera (Alvira, 1986).

Hortaz, metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa erabili ditugu ikerketa garatzeko. Izan ere, metodologia bi horietan antzematen diren desberdintasun epistemologiko eta teknikoak landu nahi diren asmo eta errealitate motatik eratortzen dira (Quintana-Peña, 2006: 48). Eta ikerketa kualitatiboak behaketa, arrazoibide induktiboa eta kontzeptu berrien aurkikuntza azpimarratzen dituen eran, kuantitatiboak teoria zientifikoa, arrazoibide deduktiboa eta hipotesien egiaztatzea bilatzen du (*ibid*, 2006). Eta, hain justu, kontzeptuen eta esanahien inguruan aritu garenez, metodologia kuantitatiboa hasierako partean baino ez da erabili, gaiaren testuingurua osatzen laguntzeko egindako telebisten hizkuntzen neurketetan.

Amadis kongresuaren ondotik, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzaren tesiak euskaraz egiteko beka-deialdira aurkeztu genuen gure ikerketa-asmoa. Garai hartan langabezian nengoan, NOR ikerketa-taldeko ikerlari kontratua amaitu berri, eta adinagatik bestelako beka-deialdietatik kanpo geratzen nintzenez, horixe ebatzi genuen tesiari ekiteko modu bakar. Hala, 2015eko martxoaren 2ko deialdira hurrengo ikerketa-laburpena aurkeztu genuen:

*“Hamarkada askotan zehar, euskara bezalako hizkuntza gutxitua duten komunitateen aldarrikapena hizkuntza gutxituan bizi ahal izatea izan da. Ikus-entzunezkoen arloan, horrek zera inplikatzeko zuten: ama hizkuntzazko produktuak jasotzeko eskubidea gauzatzea. Alabaina, Euskal Herrira etorrita, izan diren aldaketa soziolinguistikoak eta euskarak arlo ezberdinetan lortu duen presentziaren ondorioz, gero eta gehiago planteatu behar da beste honako hau: **nola bihurtu euskaraz ekoizten dena hizkuntzaren gaitasun apalagoa edota erabileraren ohitura falta duenarentzat eskuragarri?***

Zentzumen urritasunak dituztenen kasuan, asko aurreratu da ikus-entzunezkoetarako irisgarritasuna bermatzeko: Europa zein estatu mailako

politikak ezarri eta gauzatu dira; teknologia berriak garatu dira; eta ikertu ere egin da. Bestetik, hizkuntza gutxitua ezagutzen ez duen populazioarengana iristeko saioak ere izan dira kontinente zaharrea. Baina asko falta da oraindik orain politika, teknologia zein ikerkuntzan, hizkuntza gutxituan nolabaiteko 'urritasuna' dutenek hizkuntza horretan garatzen den unibertsoa eskura izan dezaten.

Tesi egitasmo honek horixe du helburu: ikus-entzunezkoen inguruan garatu diren irisgarritasunerako esperientziak aztertu (politikatik, teknologiatik eta erabilera sozialetik), eta hizkuntza gutxituak irisgarriago izan daitezten bideak ireki.

Edozelan ere, hemendik aterako diren ondorioak ez dira hizkuntza gutxituetako produktuen irisgarritasunerako soilik baliagarriak izango. Aitzitik, oro har hizkuntzen eta kulturen arteko zubiak eraikitzeke baliagarriak izango dira, eleaniztasuna gero eta presentago dugun garai honetan.”

Ohar bat erantsi nahi dut hemen: ‘urritasuna’ markatuta ageri da jatorrizkoan, ‘desgaitasuna’ artean ez baikenuen erabiltzen. Tesian zehar, ordea, *desgaitasuna* izan da erabili den berba: desgaitasuna duen pertsona, entzumen- edo ikusmen-desgaitasuna duen pertsona. Baztertu egin da ‘urritasuna’, desegokia izateagatik pertsonaz aritzeko. Izan ere, Euskaltzaindiak “urria denaren nolakotasunari” deritzo ‘urritasun’, “zerbait neurri edo kopuru txikian egotea”; eta ‘desgaitasun’ darabil “ezintasun fisiko edo psikikoa” adierazteko.

Abiapuntu haren helburua hauxe zela adierazi genuen UPV/EHUren Euskara Errektoreordetzara aurkeztutako beka-eskarian:

*“Ikus-entzunezkoak eta hizkuntzak gero eta gehiago ukitzen diren garai honetan ukazina da gaiaren interes soziala. Horregatik diogu ikus-entzunezkoen arloan hizkuntza-irisgarritasuna nola aplikatu den ikertzetik eta hizkuntza gutxituko produktuak hizkuntza horretara sarbidea izateko aukerarik ez dutenei bidea nola erraztu ikertzetik iritsi gaitzkeela **hizkuntza-irisgarritasuna kontzeptu gisa definitzera**. Garrantzitsua deritzogu kontzeptu horretan sakontzea irisgarritasuna ez delako mugatzen zentzumen urritasunen bat duten pertsonengana heltzeko, edo haiek gainerako gizartearekin harremana izan dezaten, zubi huts. Komunikazioak norabide bikoitza izan behar du, edo ez da komunikazio. Helburuak, hortaz, euskaraz bizi bagara, euskaraz komunikatzea behar du izan eta ikerketa gaiaren aurrekoek erakutsi digute teknologia ari dela egiten bitartekaritza edo zubi lan hori: jatorrizko hizkuntzatik beste hizkuntzarako trantsizioa, alegia. Baina proposatzen duguna da*

*irisgarritasunaren gaineko gogoeta horretatik ikerketaren muina hizkuntzen irisgarritasunean ezartzera jauzi egitea. Era horretan, hizkuntza ez da muga gisa ulertuko gure ikerketan, hizkuntza horixe komunikaziorako tresna nagusi bihurtzen delako. Praktikak egon badira, esaterako, hizkuntza gutxituko produktuak hizkuntza horretara sarbiderik ez duten pertsonen bidea errazten dietenak, irisgarritasunaz baliatuz. Teknologian asko aurreratu da zentzumen urritasuna dutenek ikus-entzunezko produkzioetan murgil daitezten. Arauak ere eman dira murgiltze hori gauza dadin, azpituazio edo audiodeskripzioaren kasuan. Beraz, irisgarritasuna zentzumenen gutxitasunari lotua egon bada ere oinarrian, dagoeneko komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonen eskubideak aldarrikatzeko testuinguruan ere hartu du lekua eta **hizkuntza gutxituen kasuan ere sinergia horietatik probesten ikasi behar dugu. Ildo horretan, ikerketa honen helburua da paradigma aldaketa gauzatzea.***

Beltzez markatu ditugu ikerketa-lan horren muina egoki laburbiltzen dituzten ideiak: galdera, kontzeptualizazioa eta helburua.

UPV/EHUren Euskara Errektoreordetzak onartu egin zidan beka (UPV/EHU, 2015) eta buru-belarri ekin genion lanari: aurretik egindako datu-bilketarekin jarraitzeko aukera izan genuen eta esperimentazioaren fasea lantzeko aukera.

3.2. Neurketak. Irisgarritasuna telebistan

Durkheimen arabera, egitateak edo fenomeno sozialak pertsonengan kanpo-eragina duten gauzak balira legez hartu behar ditu aintzat ikerlari sozialak (hemen aipatua: Castaño-Garrido eta Quecedo-Lecanda 2002: 7). Eta teknika kualitatiboek lortu dute, kritikak kritika, ikerketa-estrategia formala garatzea modu erraz batean sistematizatu eta estereotipatu daitezkeenak (Ruiz-Olabuénaga eta Ispizua, 1989). Eta horretarako erabili ohi dira analisi estatistikoak ahalbidetzen dituzten teknikak.

Ohikoa izaten da analisi kuantitatiboak pakete estatistikoaren bitartez egitea, lagundu egiten baitute datu kantitate handiak erabiltzen eta antolatzen. Estatu espainiarrean, CESyA azpidatzi eta audiodeskripzio zentroak egiten du estatu espainiarreko telebista-kate jeneralisten azterketa, SAVAT zerbitzuarekin. Erakunde horren aburuz, 2021ean, esaterako, TDT kateen emisioaren % 90,41 azpidatzi zen, 2020an baino %


4,57 gehiago. Audiodeskripzioa ere hazi egin zen, neurri txikiagoan bada ere: % 4,57, 2020an; % 5,37, 2021ean (lan honetan ez da ikus-entzunezko irisgarritasun-metodo horretan sakondu; ikusiko dugun bezala, horretarako telebistek darabilten audio-kanalean eskaintzen dena aztertu da). Jarraipena egiten hasi zenetik, gehitzen joan da emisio irisgarrien kopurua, urterik urte (CESyA, 2022).

Gure kasuan, ordea, metodologia horren aitzindariak egin legez, eskuz aritu gara datuen hustuketan, hainbat telebista-kate jeneralisten emanaldien ikuskatzetik lortutako datuen hustuketan. Hori bai, modu egituratu batean antolatu genituen datu-bilketak, kontuan izanda 2012an eta 2014an Multilingual TV iker-lerroaren baitan sortutako ereduari jarraipena eman geniola. Gainera, datu-bilketatik eta analisitik eratortzen den teoriak lagungarri dira hurrengo datu-bilketak egiteko (Gil, 1994) eta 2017an, hirugarrenez errepikatu genuen teknika bera. Hala, azpidatzen hizkuntzari eta berez audiodeskripzioa eskaintzeko bigarren audio-kanal horretan bestelako hizkuntzarik eskaintzen ote den aztertu genuen.

Grabaketak NOR ikerketa taldean egin ziren 2017ko urtarrilaren 15etik urtarrilaren 22ra bitartean. Horretarako grabagailu digitalak erabili ziren: grabagailu digitalak programatu ziren astebetetz lanean egoteko, etengabe. Hustuketa egiteko, berriz, Ubuntu sistema eragile librearekin ari zen ordenagailua erabili zen, hark ematen baitzigun aukera audio-kanal guztiak eta azpidatziak datu-pakete desberdinetan eskuragarri izateko; gainerako sistema operatiboak ez ziren gai grabaketak irakurtzeko. Batutako datuak, esan bezala, aurretik definitutako eredukoak izan ziren: katea, eguna, ordua, saio-mota, saio-iraupena, azpidatziak bai/ez, bigarren audio-kanala bai/ez eta zeinu-hizkuntza.

Hain justu, azken neurketaren datuak ekarri ditugu hona, bilduman aurkeztutako artikulutik kanpo geratu baitziren (geroago egin zirelako). Gainera, orokortzeko aukera eman digute (Gil, 2003: 11), joera finkatu dela baieztatzeko; alegia, atzerriko hizkuntzen presentziaren hazkundea telebisten bigarren audio-kanalean, batez ere, fikziozko eduki eta dokumentaletan. Datuen arabera, gaztelaniaz ez diren hizkuntzen artean, ingelesa zen nagusi bigarren audio-kanalean, %13 (asteen, 199 ordu); maila txikiagoan, alemana (16,9 ordu astean) eta frantsesa (13,5 ordu astean):

IRUDIA 3: HIZKUNTZA NAGUSIA ETA 2. AUDIO-KANALA TELEBISTAN, 2017KO URTARRILA (%)



Batutako datu haiek adierazi zigitenez, emisioen % 24 gaztelania ez zen beste JB batean entzun ahal izan ziren bigarren audio-kanalean: fikziozkoak izan ziren erdiak baino gehiago (% 55), lehiaketak % 4 eta kultura-erreportajeak % 22 (Euskal Telebistaren ingelesezko eskaintza kategorian sartzen da).

Jaso genuen beste datu aipagarri bat izan zen kanalaren beraren hizkuntza ezkututzen zuten emanaldiena; alegia, musika-emanaldiak edo umore-saio mutuak. Horretan, nagusi zen garai hartan Euskal Telebistaren euskarazko kanala; emanaldien laurdena euskara barik emititzen zen (batez beste, bost ordu eta erdi egunero). Musika-emanaldiei eta ahotsik gabeko umore-saioen kopuruak azaltzen du % 25 hori. Eta gainerako telebista kanaletan baino maizago gertatu zen: ETB2n % 21, LaSextan % 14, Antena3n eta Cuatron %10, TVE n % 9, La2n % 8, Tele5n % 6.

Era berean, neurketa hark bistaratu zuen telebista-kanalek ez dutela baliatzen bigarren audio-kanala pertsona itsuen irigarritasuna ahalbidetzeko (gutxienez, 10 ordu astero publikoek; gutxienez, ordu bi pribatuek). Baina, hain justu horregatik, ahalbidetzen dutela hizkuntza-aniztasuna edo irigarritasun linguistikoa. Alegia, datuek agerian utzi zuten digitalizazioak eta ikus-entzunezko teknologia berriek nazio-hizkuntzetatik harago bestelako hizkuntza-aukerak ireki dizkietela telebistei, ingelesari batez ere –ageriago utziz ikus-entzunezko sektorearen hegemonia anglo-saxoia–. Izan ere, Europar Batasunaren helburu den eleaniztasuna sustatzeko tresna garrantzitsua da telebista eleanitza. Ildo horretan, hizkuntza gutxituetako emisioetan hizkuntza nagusian egindako azpidatzen erabilera gaitasun gutxiko edo hizkuntza ezagutzen ez dutenengana iristeko modua ere bada, bestela jasoko ez lituzketen edukietara gerturatzea ahalbidetzen baitu. SC4, BBC Alba edo Yle Fem kateek horrela jokatzeko dute (Amezaga *et al.*, 2013).

Egindako esplorazio-azterketak izaera prospektiboa izan zuen, jakinda datuek uneko argazkia bakarrik ematen zigutela eta telebistaren digitalizazioak eta ordurako hasita zegoen azpidatzi sistemaren automatizazioak laster aldatuko zituela datuak. Jarraian batu ditugu 2017ko laginketan jasotako datuak (2014koak jasota daude 1. eranskinean).

Taula 2: Azpidatzen presentzia telebista kateetan, 2017

Antena 3	%77
Cuatro	%78
ETB1	%1
ETB2	%19
La2	%80
LaSexta	%72
Tele5	%84
TVE1	%76
Guztira	%61

Antena 3	%77
Iturria: Norberak egina. 2017an egindako laginketan batutako datuak.	

Telebisten bigarren audio-kanalen eta azpidatzi-eskaintzaren neurketa-emaitzek bide eman ziguten ikerketa-lerro horretan sakontzeko, hizkuntza bat baino gehiago aldi berean transmititzea egingarri dela erakutsi baitu teknologia digitalak, hasierako intuizioa, edo nahi bada subjektibitatea datuetan oinarritutako ezagutza bilakatur (Mendoza, 2006). Ez baikara ikuspegi itxiarekin aritu metodologia kuantitatiboaren alde egin dugunean, atal honetan. Autore batzuen ustez, kuantitatiboa eta kualitatiboa bateraezinak direla iritzi arren, hipotesi edo maiztasuna berresteko balio dute (Ugalde eta Balbastre, 2013: 185). Baina gure lanak positibismoaren (datuen analisi estatistikoen bidez lortutako ezagutzatik) eta hermenautikaren (errealitatea ulertzeko prozesu interpretatzailea) alde egin du (Del Canto eta Silva, 2013: 30), datu-bilketa horretatik abiatuta telebistei hizkuntza bat baino gehiago eskaintzea ahalbidetzen dien teknologian sakontzen. Izan ere, ikus-entzunezkoen eta teknologiaren esparrua zerbait bada errealitate dinamikoa da, eta hori gehiago lotu izan da metodologia kualitatiboarekin (Fernandez eta Diaz, 2002; hemen aipatua: Del Canto eta Silva, 2013: 31).

Hala, telebista-kateekin harremanetan jarri ginen, erantzun ziezaguten 10 galderez osatutako galdetegi baten bidez (eranskina 1). Jakin nahi genuen telebista-kateek, orduan indarrean zegoen Ikus-entzunezko Legearen derrigortasunarekin betetzetik harago, bestelako motibaziorik edo asmorik zeukaten bigarren audio-kanalaren bidez gaztelaniatik aparteko beste hizkuntza bat eskaintzeko hautuarekin, edo azpidatzen kasuan zein zen jokabidea.

A3Mediak izan ezik (Antena3 eta LaSexta), gainerako kateen erantzunak jaso genituen: e-mail bidez Mediaset (Tele5 eta Cuatro) eta RTVE (La1 eta La2) enpresen kasuan; aurrez aurreko elkarrizketa bidez, EITBren kasuan. Ez ditugu erantzun guztiak ekarriko hona, baina zerbait argi laga baziguten izan zen, batetik, teknologiak ahalbidetzen zuen aukera bat zela eskaintzea JBa bigarren audio-kanalean eta

banatzaileei erositako produktuek JB zuten guztietan, baliatu egiten zela bigarren audio-kanalean emateko.

Azpidazketaren kasuan, kate bakoitzak bere metodoa erabiltzen zuen. Mediasetek merkatuan erositako tresna zerabilen garai hartan azpidatziak sortzeko eta zuzeneko kasuan berrikusi egiten ziren, akatsak saihesteko. RTVEren kasuan, berriz, zehaztu zigitenez, albistegietako piezen azpidatziak alde aurretik prestatzen ziren eta, gainerakoa, berresandako (*respeaking*) teknikaren bidez, horretarako egokitutako sistema sintetizatu baten bidez (Orero, 2006). Gainerako saioetan (film edo dokumentalak) transkripzioaren bidezko azpidatziak zirela adierazi ziguten: bikoizketa gidoia azpidatzi, eta errotuluetara pasatuta.

Oraindik finkatu gabe zegoen zerbait zen azpidatzen eta bigarren audio-kanalaren bidezko JBa eskaintza eta telebista-kateek bezala, guk ere esperimendazioari leiho bat zabaltzea erabaki genuen.

3.3. Esperimentazioa, Whatscine baliatuta



Irudia: Whastcine aplikazio egokituarekin egindako 2. saioko argazkia (2016-02-24).

Carlos III Unibertsitateak garatutako Whatscine (García-Crespo, López-Cuadrado eta González-Carrasco, 2013) teknologiaren berri izan genuenean argi ikusi genuen telebistan bezala, audio bi aldi berean eskaintzeko aukera izan genezakeela aplikazioaren bidez, emanaldi bakarrean.

Burutazio horrekin, esperimentazio-aldiari ekin genion. Film biren –*Bypass* (Mazo & Telleria, 2012) eta *Loreak* (Goenaga & Garaño, 2014)– emanaldi elebidunak bideratu ziren desgaitasun sentsozialak dituzten pertsonei filmak jarraitzea ahalbidetzen dien Whatscine teknologia baliatuta. Tresna horrek aukera ematen du zinema aretoko wifi sare biez telefonoan filmaren azpidatziak ikusi ahal izatea edo audiodeskripzioa jasotzea, entzungailuen bitartez.

Gure kasuan tresna egokitu genuen. Hala eskatu genien Carlos III Unibertsitateari eta audiodeskripzioa eskaini ordez filmaren bikoizketa eta jatorrizko bertsiorearen audioak eskaintzeko prestatu zuten sistema.

Ordenagailu bidezko eta “Sistema de verificación para la transmisión de elementos de accesibilidad” izeneko programa erabiltzeko baimena lortuta, emanaldi elebidunak egiteko materiala bidali ziguten: Rourte WIFI1 (ASUS RT – N66U) eta ordenagailu portatil bat (ACER E1-571. Intel HD Graphics 4000). Hilabeteko epea izan genuen sistema erabiltzen ikasi, taldeak antolatu, emanaldiak egin eta ekipoak itzultzeko. Gainerakoan, entzungailuak erosi genituen emanaldietara etorriko zirenei banatzeko eta bakoitzak bere mugikorra erabiliko zuen entzungailuak lotu eta wifi bidez jasoko zuen audioa entzuteko.

Aitortu behar dut emozio handiko garaia izan zela ez baikenekien sistema ondo ibiliko ote zen eta audientziak ulertuko ote zuen frogatu nahi zena. Gure asmoa argia zen: publikoari pelikularen hizkuntza hautatzeko aukera ematea eta publikoaren jarrera behatzea eta, galdeketa labur baten bidez, emanaldi eleanitzak eragindako arazo teknikoez eta hizkuntza-hautuaren motibazioez ere galdetzea. Publikoa diogunean, UPV/EHUko ikus-entzunezko ikasleek ari gara. Horretarako hainbat irakasleren konplizitatearekin, 4 talde antolatu genituen Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean.

Galdetegiak eratu genituen (eranskina 2) datu kuantitatiboak jasotzeko (analisi estatistikoa egiteko galdera itxiekin), baina baita motibazioak ezagutzeko ere (Meneses eta Rodriguez-Gómez, 2011: 12). Hala, Barnes, Britton eta Torberen (1969) galdera taxonomian ezarritako ereduari jarraitu genion galderak diseinatzeko.

Esperimentuan 141 lagunek parte hartu zuten, baina (arazo teknikoak tarteko) aplikazioa erabiltzeko aukera izan zutenek bakarrik osatu zuten gure lagina. Izan ere, wifi seinaleak kale egin zuen hainbat aldiz eta horrek, gainera, sinkronizazio arazoak eragin zituen emanaldian zehar. Bestalde, bolumen mailarekin ere arazoak egon ziren: aretoko soinua jaitsi behar zenez, entzungailuak erabiltzen ari zirenek ez zitzaten audio biak entzun; eta egon zen publikoan aretoko soinua entzuteko arazoa izan zuenik.

Gorabehera guztiak aintzat hartuta ere, datuen arabera, euskarazko proiektzioan izan zirenen % 49k jarraitu zuen filma euskaraz; % 43k, gaztelaniaz. Aldiz, gaztelaniazko proiektzioan, % 54k euskaraz jarraitzea hautatu zuen eta % 37,5k, gaztelaniaz –ikusleen % 7k hizkuntza biak tartekatu zituen—. Beraz, gure laginaren % 47k aplikazioa baliatu zuen emanaldia aretoko ez zen beste hizkuntzan jarraitzeko.

Del Canto eta Silvak diotenez (2013: 28), ikuspegi kuantitatiboaren arabera, teoria, ikerketa eta errealitatearen arteko harremana hipotesi batean islatutako ikertzailearen errealitatearen pertzepzioa eta teoria bat fenomeno gisa onartzeko kointzidentzian oinarritzen da; hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea ikerketa kualitatiboan hasierako hipotesiak erabilera estentsiboan egoten direla ikerketaren oinarri diren kasuetan –prozesu kualitatiboa hasteko erreferentzia-puntu gisa–, eta horiek aurkitu eta frogatu nahi izaten dela. Are, gizarte zientzietan fenomenoak ezin dira bere osotasunean ulertu informazio kuantitatibotik, horregatik ere ikerketa kualitatiboa irekiago eta malguagoa izanik, ikerketa lerro berrien jarraipena egitea eta ikerketak aurrera egiten duen bitartean datu gehigarriak biltzea ahalbidetzen du (Ugalde-Binda eta Balbastre-Benavent, 2013: 182).

Ikasi eta ulertu nahi izan genituen esperimentuan parte hartu zutenen asmo eta hartutako erabakiak zeintzuk izan ziren, bestela azalekora mugatuko ginatkeelako (Ibañez, 1979; hemen aipatua: Borràs-Català, López eta Lozares-Colina 1999: 532). Beraz, eta kontuan izanik emanaldi elebidunen asmoa hain justu horixe zela, alegia gure hasierako hipotesia frogatzeko bidean egindako galderari erantzutea, aukera baliatu genuen laugarren galderari erantzuteko: Teknologia baliatu badu ikus-entzunezkoak irigarri egiteko entzumen- eta ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzat, zergatik ez baliatu hizkuntza gutxituak irigarri egiteko hizkuntza nagusiagoan ari direnentzat?

Bada, esperimentuan parte hartu zutenen erantzunen arabera, hizkuntza-hautuari dagokionez, euskaraz ikusi zutenen motibazio nagusia izan zen jatorrizko bertsioan ikusi nahi izatea (% 89). Halaber, euskararekiko gaitasun mugatua izan zen bikoiztutako bertsioaren alde egiteko arrazoi nagusia, parte-hartzaileen % 66ren kasuan. Alderdi nagusi bi horiez gainera, esperimentatzeko desira eta teknologiarekin (eta hizkuntzekin) jolasteko gogo aipatu zituzten erdiek baino gehiagok, hizkuntza bat ala bestea hautatu izan.

3.4. Etengabeko behaketa bibliografikoa

Marko teorikoan azaldu dugu, eta hainbat aldiz adierazi, zabala izan dela behaketa bibliografiko eta dokumentala. Izan ere, bizirik dagoen ikerketa eremua izanik sarritan atzera eta aurrera jo behar izaten delako eta horrek eskatzen du, hain justu, gaiaren inguruko literaturaren berrikusketara iratez eta harremana izan dezakeen gainerako literaturara irekia egotea, lortutako informazioa interpretatzeko eta aztertzeko esparru bakar eta itxi bat izan nahi ez badugu (Quintana-Peña, 2006: 55). Halaber, analisi dokumentalari dagokionez, lagungarria da dauden dokumentuak inbentariatzea eta klasifikatzea, eta horretan MAP (Media Accessibility Platform) datu basea biziki lagungarria izan da (Greco, *et al.* 2016) etengabe berritzen doan datu basea izanik, irisgarritasunaren eta ikus-entzunezkoen inguruko argitalpen eta bestelako lanak, esku-eskura izan ditugulako. Argitalpenen artean, erreferentziatuta dagoen zaharrena 1939. urtekoa da eta argitalpenekin batera, konferentzietara aurkeztutako ponentziak eta diziplina horietan abian dauden edo gauzatu diren proiektuen berri ere jasotzen du. Quintana-Peñak dioenez (2006: 68), laginketa teorikoa ez-probabilitate laginketa modu bat da eta honetan oinarritzen da: ikertzaileak zer behatu erabakitzeke dituen gaitasunen eta aukerak, interes pertsonala, eskura dituen baliabide eta ikertzen ari den arazoaren izaera, bestak beste. Modu horretan, hainbat eszenatoki kultural, sozial eta pertsonal aztertzen dira hainbat unetan elementu aldakor eta ez aldakorretara gerturatzea lortzeko.

3.5. Elkarrizketak

Bestalde, tesi honetan hainbat aldiz jo da elkarrizketaren teknikara, ikerketaren azterketa analitikoa egiteko edo diagnostiko edo tratamendu sozialetan laguntzeko pertsona batekin edo hainbatekin izaten den solasaldi profesionala izanik (Ruiz-Olabuénaga, Aristegui eta Melgosa, 2002: 76). Ez gara gehiegi luzatuko atal honetan, baina aipatu nahi genituzke ibilbidean zehar, une desberdinetan egin diren hainbat. Izan ere, elkarrizketa ezagutza lortzeko modurik zaharretakoa da, dialektika sokratikoa, adibide (Kavale, 1998; hemen aipatua: Meneses eta Rodriguez, 2011: 32). Eta, ikerketa lan honetan, metodologia anitzaren barruan, elkarrizketek ere izan dute beren lekua.

Jon Garaño zine zuzendariarekin izandakoa da egindako elkarrizketetako bat. Elkarrizketa 2020ko abenduan egin zen, artean pandemiako murrizketak indarrean zirela, eta ondorioz bideo-konferentzia bidez egin behar izan zen. Hala ere, Mejiak (1999) adierazi bezala, era librean egin zen *Handia* (Garaño eta Arregi, 2017) filmerako hartutako hizkuntza-hautuen inguruan, haren diskurtsoa lagungarri izango zitzaigulakoan (Quintana-Peña, 2006: 71). Izan ere, Garaño, Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregirekin batera, azken 15 urteetako euskarazko zinemagintzaren ordezkari nagusi dira eta *Handia* filmean, harago joan ziren film eleanitza osatzeko. Lan horren inguruan artikulua aipagarria da “La creación, la traducción y el tratamiento lingüístico en *Handia*” (Tamayo-Masero eta Manterola-Agirrezabalaga, 2019).

Garañok hainbat aldiz parte hartu izan du UPV/EHUtik sustatutako ikerketa lanetan eta 2017an ere “Trasvases culturales: accesibilidad y traducción en entorno multilingües” izeneko simposioan parte hartu genuen biok ala biok, TRALIMA/ITZULIK (UPV/EHU) ikerketa-taldeak antolatua. Elkarrizketa hark balio izan zigun “Filmes-insignia, políticas audiovisuales y circulación. Los casos de *Pa negre*, *Handia* y *O que arde*” artikuluan (Pérez-Pereiro; Deogracias-Horrillo; Barreira-Gonzalez, 2021) informazioa osatzeko.

Elkarrizketa, hein batean, fokalizatutako elkarrizketa (Merton eta Kendall, 1946) izan zen, nahiz eta ez ziren erantzun aukerak eskaintzen. Nolabait, alde aurretik itxitako eskema bati jarraitu genion, baina ordenari estuki lotu beharrik izan barik (Valles, 2000: 204). Izan ere, hizkuntzaren erabileraren inguruan hartutako erabakiak eta horren ondorio eta erantzunak interesatzen zitzaizkigun, eta horretara mugatu genuen solasaldia (aurretik jaso izan da gaiaren inguruan adierazi zizkigunak), baina tartean bestelako informaziorik ere agertu zen, hala nola espainiar estatuko hainbat zinema-aretoetako JBaren aldeko zaletasuna.

Bigarren elkarrizketa sakonak, berriz, egituratutako galdetegi bidez egin ziren, EUVOS ikerketa-proiektuaren baitan. Pattonek (1990: 288) adierazitako lau elkarrizketa motetatik elkarrizketa estandarizatu irekia aukeratu zen horretarako; galdera-zerrenda ordenatua, sektore bakoitzeko elkarrizketatu guztientzat berdina, baina era librean eta modu irekian erantzuteko. Izan ere, jasotako informazioa DELPHI metodologiarekin balioztatu nahi zen eta horrek ere elkarrizketa-eredua finkatu zuen, iritzi ahalik eta adostuena lortzeko metodo gisa (León eta Montero,

2003) aditu talde bati egindako elkarrizketetatik. Gure lana, proiektu horretan, Euskal Herrian adituak proposatzea eta ondoren elkarrizketak egitea izan zen. Aurretik, baina partekatutako dokumentuetan, sare bidez, galdetegiak prestatzeko proposamen eta hobekuntza prozesuan parte hartu genuen, ikerketa-proiektuan parte hartu zuten gainerakoekin batera.

Azkenean 31 sakoneko elkarrizketa egin ziren eta ATLAS.ti programa erabili zen analisi kualitatiboa errazteko, analisirako eginkizun asko sistematizatzen laguntzen baitu modu eraginkorrean.

Elkarrizketatuaren profil profesionalaren arabera, sei talde handitan kategorizatu ziren elkarrizketak: akademikoak eta kritikoak; kargu politikoak eta administrazioarekin lotutakoak; zinemagileak edo elkartutako sortzaileak; zinema-jaialdietako zuzendariak; banatzaileak edo ekoiztetxeak; bikoizketa eta azpidazketa profesionalak. Eta hortik abiatuta, lehenengo, memoriak sortu ziren eta gero, memorien kodetzea. Hala, 14 taldetan banatutako 71 kode sortu ziren.

Ikerketa-metodologia horren inguruan, eta EUVOS proiektuaren gainean gehiago sakontzeko:

- 1) Grupo do estudos audiovisuais (Departamento de de Ciencias da Comunicación. Facultade de Ciencias da Comunicación):
<https://estudiosaudiovisuais.org/es/investigacion/euvos/>
- 2) Enrique Castelló Mayo. (2023). *EUVOS: La aportación de las pequeñas cinematografías al patrimonio cultural inmaterial europeo*. Tirant lo Blanch.
<https://open.tirant.com/cloudLibrary/ebook/info/9788419825056>
- 3) Zabalondo, B., Deogracias, M., Azpillaga, P. (2020). *EUVOS. Europako Kultur Ondare Immateriala. Europako hizkuntza ez-hegemonikoetan azpidazteko egitarau baterantz*:
<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/senez-51-2020/euvos-europako-kultur-ondare-immateriala-europako-hizkuntza-ez-hegemonikoetan-azpidazteko-egitarau-baterantz>

3.6. Kasu-azterketa

Bilduman jasotako artikulu bitan baliatu da kasu-azterketa. Hiru film aukeratu ziren horretarako: *Pa negre* (Villaronga, 2010); *Handia* (Garaño eta Arregi, 2017) eta *O que arde* (Laxe, 2019). Lehenengoa, katalanez sortua; bigarrena, euskaraz; hirugarrena, galizieraz.

Kasu-azterketaren teknikak, oro har, aztertzeko dagoen errealitatea ulertzea errazten du, bere ñabardura guztiak aintzat hartuz, modu globalean; halaber, egokiak dira behatu nahi den egoera horren zergatia bere kontestuan eta perspektiba dinamiko batetik ulertzeko (Swanborn, 2010 eta Yin, 1994; hemen aipatua: Neiman eta Quaranta, 2006: 223). Gainera, aukera ematen dute bestela ezagutuko ez liratekeen kasuen berri izateko. Horregatik esaten da ikasketa maximizatu nahi denean egokia dela teknika hori aplikatzea (Stake, 1995 eta Swanborn, 2010; hemen aipatua: *ibid*, 2006: 223), partikularra lehenetsi eta orokorra ordezkatzeko duelako kasu-azterketak. Hala ere, kasu-azterketa ez da informazio-bilketa teknika partikular bat, baizik eta informazioa antolatze eta aurkezteko modu bat, egoera edo gertaera zehatz baten inguruan (Stake, 1994: 236; hemen aipatua: Serrano-Blasco, 1995: 2003). Hala, aukera ematen du kasuaren beraren ezagutzan sakontzeko eta lan horretan, gainera, prozedura kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatu ohi dira. Halaxe egin dugu guk ere “Barriers and opportunities for cinema distribution in European minority languages. The case of *O que arde* in the Digital Market” eta “Filmes-insignia, políticas audiovisuales y circulación. Los casos de *Pa negre*, *Handia* y *O que arde*” artikuluetan. Eta lagungarri izan zaigu kontzeptu berriak sortzeko (Eisenhardt, 1989; Dooley, 2002; hemen aipatua: Neiman eta Quaranta, 2006: 231) *Pa negre*, *Handia* eta *O que arde* pelikula film-ikur gisa definitzeko. Halaxe izendatu genituen aipatutako hiru filmak: nazioarteko zine-jaialdietan jatorrizko hizkuntzan eskaini eta saritutako pelikulak, hizkuntza gutxituetan egindako zinemagintzari ikusgarritasuna ematen lagundu dietenak. Alegia, JBa ezkutatu barik, aukera eman ziguten ikusteko hizkuntza gutxituetan sortutako zinemagintzak zer-nolako harrera duten espainiar estatuan; hau da, bikoizketa-estatuan.

Hiru lan horien ekoizpenak aztertuta ondorioztatu genuen badagoela publikoa filmak bere hizkuntzan ikusi nahi dituen eta txarteldegian ere nabari dela hori, hiru kasu horiek erakutsi zuten. Jakina, estrategia horren atzean, erakutsi genuen


erakundeetatik planifikatutako politika publikoek pisu handia izan zutela film horien aldekotasuna bistartzeko orduan, eta azpidazketa hiru kasuetan aliatu izan zela publiko gehiagorengana iristeko.

Nolabait, EUVOS proiektuak bilatzen zituen erantzunetako batzuk islatzea lortu genuen lan haietan.

3.7. Itxiera

Ikerketa prozesua eta emaitzen sistematizazioa litzateke ikerketaren azken atala, edo itxiera. Gurea artikulu-bilduma bidezko tesia denez, bitarteko itxierez (Quintana-Peña, 2006: 50) osatutako tesia dela esatera ausartuko gara. Formulazioa, diseinua, egikaritzea eta itxieraren ondotik, atzera letorke formulazioa, diseinua, egikaritzea eta itxiera... eten-bako kate batean bezala. Hala irudikatu zuen Quintana-Peñak berak (2006: 50):

IRUDIA 4: METODO KUALITATIBOAREN LOGIKA ZIKLO-ANITZA



Modu horretara kontzeptuen arteko harremantzeak eginez eraikitzen dira proposamen teorikoak (Glaser eta Strauss, Sandovalék 2002 jaso eta hemen aipatuta: Quintana-Peña, 2006: 79). Eta gu ere horretan saiatu gara ibilbide honetan, desgaitasunak dituzten pertsoneri zuzendutako ikus-entzunezko irisgarritasuna oinarri hartuta hizkuntza gutxituentzat baliabide gisa planteatzen.

Laburbilduz, artikulua bilduma honetan jaso diren lanek askotariko metodologietan oinarritu dira. Hala deitu diogu guk, hainbat autorek mistoa edo sozio-kritikoa ere deitzen dioten arren (Corona-Lisboa, 2016). Ikusi dugu aztergaia bizirik dagoela eta etengabe aldatzen doala. Ikerketaren atal bakoitzak hurrengoa elikatu duela, baina, aldi berean, aurrekoa berritzen joateko beharra egon dela, aldiro. Agian, horregatik ere deritze hainbat autorek gizarte eta humanitate zientziei “eztabaida zientziak” (Hoyos eta Vargas, 1997; hemen aipatua: Quintana-Peña, 2006: 50), horixe eragitea ere izan baita tesi honen helburuetako bat, aukera bat mahai-gaineratzea.

4. ATALA: Elkarlana oinarri

Orain baino lehen ere aipatu dugu ikerketa hau, nolabait, lan korala izan dela; elkarlanean gauzatu den ikerketa baten ondorioa. Maltan egin zen Small Cinemas nazioarteko kongresu hartan hasi zena (2015) “Linguistic accesibility for minority language cinema” (Amezaga eta Deogracias, 2015) izeneko aurkezpenarekin eta handitzen eta loturak egiten joan dena denbora honetan guztian. Haren ondotik etorri ziren Bilbo (2017), Lisboa (2019) eta Santiago (2021) hirietan egindako hurrengo Small Cinemas biltzarrak (guztietan eman dugu gure ikerketaren berri) eta triangulazio horretatik sortu zen, esaterako, aurretik hainbatetan aipatutako EUVOS proiektuan parte hartzeko aukera eta Vigoko unibertsitateak antolatutako lehenengo Media Accessibility Platform International Conference (2017) biltzarraren ostetik, ALMA sarea osatzea.

Hizkuntza gutxituetan egindako zinemagintzatik irisgarritasun audiobisualera eta ikus-entzunezko itzulpengintzara konexioa ibilbide horretan gauzatu da, eta aurretik fokoa horretan ez zuten ikerlariak gehitu ditugu gure planteamendura. Horren adibide azpimarragarriena, akaso, izan da ALMA sarea. Hor batu baitira, ikerketa prozesuaren atalean azaldu bezala, hizkuntzaren, teknologiaren eta irisgarritasunaren esparruetan lanean ari diren ikerlariak eta ikerketa-taldeak. Hari-mutur anitzez jardun garenean hori ere adierazi baikenuen: ikuspegi eta helduleku asko direla lan-eremu honetan bateratu daitezkeenak. Eta, hor bai, diziplina arteko elkarlana, lan metodologia gisa (Maldonado, 2015), bete-betean gauzatu da, alderdi teknikoari heldu ahal izan baitzitzaion Valentziako unibertsitate bien profilari esker. Izan ere, hasieratik aipatu dugu tesi honetan alderdi teknikoak berebiziko garrantzia duela egiten dugun proposamena gauzatzeko. Gurea, ordea, ez da izan ikerketa teknikoa eta, beraz, aurrera begirako iker-lerroetara garamatza hari-mutur horrek.

5. ATALA: Aztergaiak eta emaitzak

Modu batera esanda, ikus-entzunezkoetan hizkuntza-aniztasuna gehitzen joan den heinean, batez ere teknologiaren aurrerapausoei esker, jakin nahi izan dugu hizkuntza gutxituen presentzia ere gehitzen doan, edo baliatu daitezkeen aurrerapen

horiek euren presentzia gehitu eta zabaltzeko. Hala, aurretik ikusi bezala, azterketa horrek adar bi izan ditu orain arte: telebisten eta irisgarritasun-metodoen azterketa, batetik, eta hizkuntza gutxituetan egindako zinemagintza babesteko laguntza publikoen azterketa (azpidatziak barne), bestetik. Izan ere, gure hipotesi nagusia izan da hizkuntza gutxituek ere irisgarritasuna balia dezaketela, printzipio gisa, bazterketatik atera eta hizkuntza ez ezagutzeak ekar dezakeen oztopoa gainditzeko; ahal dela, inor bazterrean ez lagatzeko. Gizarte inklusiboa eraikitzea delako, besteak beste, soluzio egokiak sortzea testuen eta informazioaren hautemangarritasun, ulermen eta onargarritasun eskasak eragindako komunikazio-oztopoak gainditzeko (Maaß, 2020; hemen aipatuta: Şimon, Dejica, Fărcaşiu eta Kilyeni, 2022: 460).

Alegia, ikus-entzunezko irisgarritasunak hizkuntza-ulergarritasuna bermatzeaz gainera, hizkuntza minoritarioen eta minorizatuaren ikusgaitasuna ere berma dezakeela. Izan ere, ikus-entzunezko irisgarritasunaren erabilera egokiak eta hizkuntza-estrategiek hizkuntza gutxitu eta ez-hegemonikoen ikusgaitasuna eta sustapena bermatzen dute.

5.1. Auzi linguistikoak badu lekua telebistan?

Gure neurketetatik abiatuta hainbat telebista arduradunekin izandako elkarrizketek erakutsi ziguten, lehentasuna, desgaitasunak dituzten pertsonen telebista-dukietara sarbidea ahalbidetzea zela irisgarritasun-audiobisuala ahalbidetzeko zerbitzuak abiaraziz, legeak hala agintzen zuelako. Eta, era berean, agerian geratu zen hizkuntza-aniztasuna aukera bat izan arren ere, teknikoki gauzagarria, lehentasuna hizkuntza hegemonikoak zuela; alegia, gaztelaniak.

Ikuspegi hori, ordea, labur geratzen da *streaming* bidezko plataformen kasuan. Teknikoki posible dute, eta horrela egiten dute hizkuntza-eskaintza, azpidatzi eta bikoizketa bidez ahalbidetuz. Beraz, auzi linguistikoak bere lekua hartu du pantailetan, bai telebistan (euskarri digitaletan ere emititzen dutelako eta balia ditzaketelako aukera teknologikoak hizkuntza-eskaintza gehitzeko), bai zineman (JB emanaldiak eskaintzen dituzten zinema-aretoak oraindik ere gutxi diren arren, ikus-entzulearen kontsumo-ohiturak aldatzen doazelako) eta baita *streaming* plataformetan ere (ingeleza moduko hizkuntza hegemoniko baten aurrean, hizkuntza

gutxituen kontzeptua ere modulatzeko delako; baina hori beste eztabaida luzeago bat litzateke).

Bilduman jasotako lehenengo artikuluan genioenez, zineman auzi linguistikoa hizkuntza gutxitura sarbiderik ez dutenen irisgarritasun auzi gisa landuz gero, hizkuntza eta zinemaren arteko harremanaren hurbilketan aldaketa egiten lagunduko luke. Kontua ez da zinea gutxiengo linguistikoarentzat egitea, baizik eta zinea egitea hizkuntza gutxituan, eta publiko zabalagoak bilatzea, gure hipotesiari jarraituta. Eta berdin litzateke telebistan ere, oro har, pantaila guztietan.

Tamalez, baina, desgaitasunak dituzten pertsonen ikus-entzunezko irisgarritasuna bermatzeko legeak, politika publikoak eta teknologiak garatu badira ere, ez da oraindik aitortza hori egin irisgarritasun linguistikoari dagokionez.

Saiatu ginen frogatzen hizkuntza ez ulertzea ez dela oztopo ikus-entzunezko edukiaz gozatzeko eta zinema-emanaldiak partekatzeko; eta badagoela hizkuntza gutxituaren ikusgaitasuna bermatzea, teknologia baliatuta (gure kasuan, Whatscine aplikazioa). Alegia, hizkuntza-irisgarritasuna sustatzea interesgarria dela ez bakarrik hizkuntza gutxituentzat baizik eta kultura-aniztasunarentzat, ahalbidetzen duelako hizkuntza ez ofizialetan egindako ekoizpenetara hurbiltzea, bikoizketa araua den herrialdeetan.

Gainera, ikusita atzerriko zinearen presentzia Europako herrialdeetan –eta, oro har, herritarrek duten gaitasun linguistikoen aniztasuna–, irisgarritasun linguistikoan ematen diren aurrerapausoek aukera berriak eskaini ditzakete, eleaniztunaren aldeko jarrera berriak sustatuz.

5.2. Zinemagintza txikiak sustatzeko programak

Hainbat autorek dioten bezala, lan zinematografikoek duten osotasun linguistikorako eskubidea are gehiago murrizten da hizkuntzaren beraren tamaina txikiagatik, ez baititu finkatzeko eta hezurramitzeko baldintza onak (López-Gómez *et al.*, 2015: 36). Eta, ildo horretan, aldarrikatzen dute hizkuntza gutxituak komunikazio-hizkuntza izatea eta, beraz, azpidatzen erabilera baliatzea jatorrizko bertsioren opakotasun semantikoa ekiditeko (*ibid.*, 2015: 36).

Izan ere, arazo izaten jarraitzen du hizkuntza gutxituetan ekoiztako filmek euren lurraldeari lotutako zinema nazional gisa identifikatzea. Ez bakarrik aurrekontu txikiagoak darabiltzatelako, baizik eta estatu politiken mende daudelako (Ledo-Andión *et al.*, 2016). Are, hizkuntza gutxituak babestuta egonagatik ere (Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992), film-banaketak arazo izaten jarraitzen du; baita sustapen-politikak ere (Manías-Muñoz *et al.*, 2017), –jakin arren, administrazioek sustapenean eta banaketan inbertitzen dutenean, inpaktua badagoela txarteldegian (Ledo-Andión *et al.*, 2016: 327).

Baina hizkuntza horietan egindako azpidatzitako jatorrizko bertsoaren (AJB) ageriko orokortze eskasa (Castelló-Mayo *et al.*, 2018: 50) nabaria da gaur gaurkoz. Beste modu batera esanda, “kultura-industriek merkatu-nitxotzat jotzen dituzte hizkuntza minoritarioak, hau da, irabazi gutxiagoko jarduera bat, kostu handiko ekoizpenekin eta audientzia murriztuekin” (Guyot, 2007: 15)¹⁸. Ondorioz, nagusi izaten segitzen dute –estatu espainiarrean bederen–, bikoiztutako bertsoaren eskaintzak eta kontsumoak. Eta, joera aldatzeko, are beharrezkoagoak dira AJBak sustatzeko politikak.

Tesi honetan aztertu ditugu Europatik zer-nolako erabaki eta neurriak hartu izan diren hizkuntza- eta kultura-aniztasuna sustatzeko, zinemaren bitartez. Hala ere, asko izan diren arren txostenak, eta baita Europar parlamentuaren erabakiak, hizkuntza gutxituak ez dira beren-beregi aipatu hizkuntza-hautuaz ari direnean. Aitortu izan da, esaterako, filmen banaketa gehitzeko neurri baliagarria izan daitezkeela azpidatziak (Action on Subtitling, Europar Batzordea, 2017), baina hizkuntza minoritarioak aipatu gabe. Europa Creativa planak (Europar Batzordea, 2014) berak ere –kultura- eta hizkuntza-aniztasuna babesteko sortu bazen ere– ez ditu aintzat hartzen jatorrizko bertsoa eta eleaniztasuna. Ondorioz, zinemagintza txikiak jada ez dira balizko solaskide Europar Batasunaren ikuspegitik, eta politika nazionalek bakarrik ekin ahal diote beren kultura-egintzak bultzatu eta babesteari (López-Gómez *et al.*, 2015: 54).

Horregatik gertatzen da, esaterako, zinema-ekoizleek hizkuntza gutxituen aldeko hautua egin ostean, pareko islarik ez izatea zinema aretoetan, non AJBa salbuespena den. *O que Arde* (Laxe, 2019) galizieraz filmatutako pelikulak banaketa mugatua izan

¹⁸ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “Minority language programmes are viewed by cultural industries as a niche market, i. e. a less lucrative activity with high-cost productions and small audiences”.

zuen espainiar estatuan. AJBa erakusteko hautua egiten duten aretoen kopuru murrizta nolabaiteko sabai bihurtzen da horrelakoetan, espainierazko jatorrizko bertsio edo espainierara bikoiztutako bertsioen zenbakiak parekatzea ezinezko bihurtuz (Perez-Pereira & Deogracias-Horrillo, 2020: 160). Baina ez da salbuespena. *Pa Negre* (Villaronga, 2010) eta *Handia* (Garaño eta Arregi, 2017) filmek ere, antzeko zortea pairatu behar izan zuten (Pérez-Pereiro *et al.*, 2021). Adierazgarriak, ildo horretan, Garaño zinema-zuzendariaren berbak: “Toledo batean ez dago zinerik pelikulak azpidatzita ikusteko. Beraz, horra iristeko bikoiztu egin behar duzu. Baina hori horrela izanda ere, datuak ikusten badituzu, ehunekoak, esaterako, askoz altuagoak dira kopiako euskaraz azpidatziekin, bikoiztutakoak baino. Askoz hobeto funtzionatzen dute, gure kasuan, Euskal Herritik kanpo azpidatziekin, bikoiztuta baino” (Garaño, 2020; elkarrizketa pertsonala, *Handia* filmaren inguruan).

Aipatutako film horiek guztiek amankomunean dute espainiar estatuan ofizialak diren hizkuntza gutxituetan direla nagusiki eta, merkaturatzeko orduan, azpidatzitako bertsioa aukera minoritarioa izan dela estatu espainiarrean. Bikoizketa nagusitu da zinema-aretoetan, nahiz eta nazioarteko zinema-jaialdietan aitortza izan duten eta, han bai, AJBn eskaini diren. Baina hori ez da nahikotzat jo espainiar estatuko zinemagintza-sektorean ikusgarritasuna izan zezaten jatorrizko bertsioetan. Tamalez, gainera, bikoizketa herrialdearen tradizioa eta hizkuntza gutxituekiko ikuspegi hori ez da zinemara mugatzen. Espainiako telebista publikoak ere gaztelaniara bikoiztutako bertsioaren alde egiten du. *Loreak* (Garaño eta Goenaga, 2014) filmarekin egin zuen 2017an, eta *20.000 especies de abejas* filmarekin egingo du orain¹⁹. Ia hamarkada bat igaro den arren film bat eta bestearen artean, egoera ez da aldatu estatuko gainerako hizkuntza ofizialekiko bikoizketa nagusi den herrialdean.

Aztertu dugu, besteak beste, zein garrantzitsua den ezagutzea Europar Batasunak hizkuntza gutxituen, edo ekoizpen txiki horien, alde sustatzen dituen politikak. Eta jakitea zinemak zer garrantzi duen hizkuntza gutxituen politiketan. Ez baitugu ahaztu behar Europar Batasunak, hizkuntza-aniztasuna sustatzen duen bitartean (European Council, 1966²⁰), bere aurrekontuaren % 1 baino ez duela inbertitzen

¹⁹ Esti Urresola zinegileak baieztatu zuen Languages Lanean kongresuko mahai inguruan, Bilbon, 2024ko urtarrilaren 19an.

²⁰ Article 27 of the Universal Covenant signed in 1966 says: “in those states in which ethnic, religious or linguistic minorities exist, persons belonging to such minorities shall not be denied the right, in community with other members of their group, to enjoy their own culture, to profess and practise their religion, or to use their own language”.

hizkuntza-politikan²¹. Eta kontraesan horren beste adibide bat dira zinema txiki edo hizkuntza ez-hegemonikoetan egiten diren filmak sustatzeko laguntza programak. MEDIA azpiprogramak, azpituluei eta bikoizketei laguntza ematen dien berberak, aukera ematen du, halaber, hizkuntza gutxituak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea onartzen duen hein berean, Europako filmen eskuragarritasun osoa sustatzeko bikoizteko bidesaria bere gain hartzeko (Ledo-Andión *et al.*, 2016: 318). Alegia, hizkuntza gutxituen ikusgarritasuna berma dezakeen AJBren alde irmoki egin ordez, ikus-entzunezko itzulpengintza metodo guztiak hartzen dituela kontuan, merkatua baitauka oinarri, eta ez aniztasun linguistikoa; are gutxiago, hizkuntza gutxituak.

Ez dago, beraz, harreman zuzenik Europak sustatu eta defendatzen duen hizkuntza-aniztasunaren eta zinema europarraren banaketaren artean, ezta Europako ikus-entzunezkoen neurri arautzaile nagusia den zuzentarauan (AVMSD, 2010 eta 2018). Gutxienerako harmonizazioa ahalbidetzen du estatu kideen arauen artean, baina hortik aurrera estatu kideak dira neurri osagarriak har ditzaketanak, adibidez, kultura-aniztasunaren bila (Irion & Valcke, 2015: 5)–.

Zuzentarauak babesten du zinema europarra. Helburu nagusitzat dauka ikus-entzunezko industria europarraren lehiakortasuna indartzea, Europako kultura-aniztasuna eta ondarea sustatzeko. Baina –Europar Parlamentuak asmoa adierazi zuen arren (2017) herrialde hizkuntzan egindako filmak ere aintzat hartzeko– AVMSDren azken bertsioan ez zaio hizkuntzari aipamenik egiten. Kultura-aniztasunaz ari da, baina ez hizkuntza-aniztasunaz eta, ondorioz, ezta Europako hizkuntza gutxituez ere. Are gehiago, oraindik ere, europar produkzioak garestitzat jotzen dira eta audientzia nazional zabalago bati saltzeko zailak (Werkers & Valcke, 2012: 14).

Hala ere, ez dugu modu hertsiki batean baieztatuko Europatik ez dela sustatzen politikarik hizkuntza-aniztasuna babestu eta hedatzeko ikus-entzunezkoen bidez. Izan ere, eta bakanak diren arren, egon badaude jatorrizko bertsioa errespetatzeko azpidatzen erabilera aldarrikatzen duten programa edo ekimen zehatzak. Lux Prize da horietako bat. Europar Parlamentuak abiarazi zuen 2007an, eta aukeratutako

²¹ Nazionalitate europarren Batasun Federalaren aholkulari Johann Hägmannen esanetan, herritar bakoitzeko euro bi urtean (Bilbon, 2024ko urtarrilaren 18an, Languages Lanean kongresuan).

filmak 24 hizkuntza ofizialetara azpidazten dira, nahiz eta, hor ere, hizkuntza gutxituak kanpo geratzen diren. Bide batez, lehen aipatutako *20.000 especies de abejas* (Urresola, 2023) da Lux Prize 2024ko hautagaietako bat. Eta, lehen azaldutakoa kontuan izanda, gerta liteke, euskara lako hizkuntza gutxitu bat komunikazio-hizkuntza ere baduen filma (euskarazko eta gaztelaniazko elkarrizketak ditu filmak) Europako 24 hizkuntza ofizialetara azpidatzita hedatzea Europako zinema-aretoetan zehar (ez, ordea, Eurogutunak babestea agintzen dutenak), baina espainiar estatuan, kasurik gehienetan, bikoiztutako bertsioa izatea gehien erakutsiko dena. Bere estreinaldian, 2023ko apirilaren 21eko asteburuan (apirilaren 17an estreinatu zen), 105 kopia banatu zituen BTeam Pictures banatzaileak; 2024ko urtarrilaren 26ko asteburura bitartean, 158.730 ikusle izan ditu eta 910.882,32 euro batu ditu (ICAA eta Taquilla España, 2024) . Gaztelania, euskara eta frantseseko azpidatziak ditu filmak.

Horrelakoak gertatzen direnean, agerian geratzen da Europar Batzordeak 2015etik sustatu duen Merkatu Digital Bakarrak aukerak izan badituen arren, oraindik ez dela garatu behar bezala aukera ekonomiko eta kultural gisa. Nahiz eta zine europarren zuzendari-agentzien helburua izan Europaren aniztasuna eta identitate kulturalak islatzen dituzten kalitatezko lanak sortzea, kultura aniztasuna babestu eta sustatzeko UNESCOren adierazpenarekin lerratuta (European Film Agency Directors, EFAD, 2015). Beste kontraesan bat litzateke, esaterako, Report on European in the Digital Age (2014) txostenak dioen bezala, film europarrek lagundu dezaketela kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ikusarazten, baina, hein berean, onartzea aniztasun horrek merkatua are gehiago zatikatzen duela eta, ondorioz, pelikulen sustapena eta banaketa ahultzen direla.

Argi geratzen da, beraz, merkatu digital bakarrak hainbat kezka eragiten dituela hizkuntza gutxituetan ekoiztutako filmen inguruan, eta Europar Batzordeak ez duela oraingoz asmatu alternatibarik. Izan ere, Europar Batasunak eskumen gutxi batzuk ditu medioetan funtzio kultural eta demokratikoei dagokienez, eta hori aintzat hartzekoa da ikus-entzunezkoen eta online sektoreetan kultura-aniztasuna sustatzeko egiten dituen ekarpenak aztertzean (Irion & Valcke, 2015: 9).

Are, merkatu-kuoten politikak ez du bermatzen aurrekontu baxueneko lanen banaketa. Eta hori ere bada kontraesan bat, kontuan izanda Europako zinema

ekoizpenaren sektorea, batez ere, enpresa independentez osatzen dela. Lanak sortu eta banatzeko finantzazio publikoari esker aritzen diren enpresak dira, izan laguntza nazionala ala komunitarioa. Europar filmen kuota gehitu dezakete estatu kideek ekoizpen independenteen alde, eta horrek ere pentsaraz dezake ikus-entzunezko sektorean sormen independenteari leiho bat irekitzen diola (*ibid*, 2015: 6). Baina, gaur-gaurkoz, zinema-jaialdien zirkuituak ezin dira era horretako filmak ezagutzera emateko modu antolatu bakarra.

Bilduman aurkezten den artikuluetako batean (3. artikuluan) aztertu bezala, izan dira espainiar estatuaren baitan, hizkuntza ofiziala duten erkidegoetan, hizkuntza horietan egindako filmak sustatzeko politikak. Katalunian, esaterako, zinemaren legeak azpidatzi eta bikoizketari laguntza zuzenak arautzen ditu eta neurri baliagarria izan da film eta ikus-entzunezko edukiak katalanez jaso ahal izateko (Pérez-Pereiro *et al.*, 2021: 16). Aldiz, ekoizpen propioan inbertitzeak beharko luke erakundearen apustua, hizkuntza propioan aniztasun filmikoa nahi bada (Castelles, 2018; hemen aipatua: *ibid*, 2021: 16).

Lan-zinematografiko eta ikus-entzunezko sektorearen beste lanek estatu kideen aldetik jaso ditzaketen laguntzen harira (Europar Batzordea, 2013ko azaroak 15, 2013/C 332/01), bereziki hartzen dira aintzat “lan zaila” izaera dutenak. Eta horren baitan sartzen dira “lurralde, biztanle edo hizkuntza eskualde mugatuak dituzten estatu kide bateko hizkuntza ofizial batean jatorriko bertsio bakarra duten filmak”²² (*ibid*, 2013: 10). Halaber, gehitzen du, “subsidiarotasun-printzipioaren arabera, estatu kide bakoitzari dagokiola film zaila definitzea”²³. Estatu espainiarrean, 1090/2020 Errege Dekretuak (1084/2015 Errege Dekretua berritzen duenak) dio, “ikus-entzunezko lan zailak”²⁴ direla, besteak beste, “gaztelania ez den hizkuntza koofizialetako batean errodatu eta hala, edo azpidatzita, erakutsiko diren ikus-entzunezko lanak”. Alegia, diskriminazio positiboa egiten duela espainiar estatuko hizkuntza gutxitu ofizialekin. Diskriminazio positiboak, ezberdintasunak

²² Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “Films whose sole original version is in an official language of a Member State with a limited territory, population or language area may be regarded as difficult audiovisual works in this context”.

²³ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “Such as short films, films by first-time and second-time directors, documentaries, or low budget or otherwise commercially difficult works. Under the subsidiarity principle, it is up to each Member State to establish a definition of difficult film according to national parameters”.

²⁴ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “Las obras audiovisuales rodadas íntegramente en alguna de las lenguas cooficiales distintas al castellano que se proyecten en España en dicho idioma cooficial o subtulado”.

murrizteko tresna giltzarri gisa, konpentsazio logikari jarraitzen dio eta, beraz, lehentasunezko tratua ezartzeari (Urteaga, 2009: 181). Lehentasunezko tratu hori, ordea, ez da egoki arautu, ez da estrategia politiko gisa lehenetsi hizkuntza gutxituetan ekoiztu eta lan horiek merkaturatzeko orduan. Are gehiago, Katalunian, esaterako, judizializatu egin zen auzia eta zinemaren legea lausotu egin behar izan zuten, hasierako asmo haietatik (Pérez-Pereira, *et al.*, 2021: 16). Beraz, Eurogutunak lagundu duen arren eremu urriko hizkuntzen aldeko diskriminazio positiboa egiten eta lagundu duen arren, “hizkuntza ofizial edota indartsuen hiztunek dauzkaten aurreiritzi batzuei aurre egiten” (Ramallo, 2017: 78), oraindik orain badago erakundeetatik hartzen diren neurrien kontra jotzeko joera eta, hain justu horregatik diogu, politika publikoak are ausartagoak izan beharko lirakekeela “ikur filmak” (Pérez-Pereira *et al.*, 2021) sortzeko erabakiek erakutsi duten bezala. Ikusi baitugu, Europako zuzentzaruek ez dutela bermatzen hizkuntza gutxituen ikus-entzunezko edukien zabalkundea eta horregatik hartzen dute berebiziko garrantzia tokian tokiko dirulaguntzek. Horri heltzen dio 4. eranskineko artikulua: hizkuntza minoritarioan eragiteko ahalmena, eta ardura, duen administrazio zehatz baten jardunari, euskarazko ikus-entzunezkoak sustatzeko finantzazioa eta gainerako politikak oinarri hartuta.

5.3. Euskarazko zinema eta irismena. Eta etxean zer?

Euskarazko zinemagintza sustatzeko dirulaguntza publikoak ere aztertu dira tesi honetan; bai Eusko Jaurlaritzarenak, bai beste erakunde batzuenak ere. Fokoa auzi linguistikoan jarri dugu eta ikusi dugu, argi eta garbi adierazteko, hizkuntza ez dela faktore erabakigarria laguntza publikoen diseinuan.

Euskal zinemagileen hasierako lanetan hautu linguistikoa ez zen lehentasunezkoa izan, ezta dirulaguntzak ematen hasi zen euskal gobernu sortu berriarentzat ere, aurreko mendeko 80 hamarkadan. Bigarren etapa batean (1996tik aurrera), laguntza publikoak hiru motatakoak izan dira nagusiki: 1) gidoigintza; 2) proiektuak garatzea; 3) produkzioak sustatzea. Baina berriro ere hizkuntza irizpidea, euskara sustatzekoa, ez da lehenetsi. Are, gidoigintzari lotuko zaio modu erabakigarri batean % 30eko dotazioa gordez euskarazko gidoientzat. Aldiz, proiektuen garapenean inoiz ez da erreserba espezifikorik egin euskarazkoentzat. Eta produkziara zuzendutako

laguntzetan euskarak trataera berezitua izan badu ere, murrizten joan da deialdiz deialdi, lekukotza huts izaten amaitzeko.

Egindako azterketan, diruz lagundutako eta emandako diru kopuru orokorrak jaso ziren, 2002tik 2021era bitartean, dirulaguntzek izan dituzten moldaketak islatzeko. Jasotako emaitzak aintzat hartuz, egokia litzateke, argazki zehatzagoa egin ahal izateko, alderaketa produkzio-datuekin egitea, ez laguntzen artean bakarrik.

Dena dela ere, baieza genezake euskal laguntza sistemak berez ez dakarrela euskarazko ekoizpenen aldeko eredurik. Hizkuntza-faktorearena ez da nahikoa modulazio euskarazko ekoizpenen sustapenean benetan eragiteko, lagundu duen arren. Beste modu batera esanda: euskaraz filmatzea erabakitzen duten sortzaileek ez dute finantzazioa bermatzeagatik egiten; are, askotan, hautuak berak bestelako arazoak eragiten dizkie. Horren adibide, esaterako, Joanes Urkixo zinema-gidoilariak azaldutakoa (Urkixo, 2014): euskarazko laguntzetara aurkezteko, gidoi-elkarrizketen, gutxienez, % 50 euskaraz izan behar denez, horrek aukera narratiboak mugatzen ditu, itzulpenak dakarren gainkargaz landa. Argi dago, beraz, hizkuntza-hautuaren atzean bestelako arrazoiak daudela, baina politika publikoek ez dituztela aintzat hartzen.

Europar Batasuneko estatu kideen ikus-entzunezko zerbitzuak, gutxienez, AVMSD Zuzentarauari egokitzen zaizkion lege nazionalen atxiki behar zaizkie, baina estatu kideek baldintza gehigarriak agindu ditzakete, adibidez, kultura-aniztasuna bilatzeko. Bada, kostata izan bazen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan 2007an zehaztu zen estatuko hizkuntza ofizialetan egindako produkzioei zuzendutako % 50eko finantzazio-kuota. Horrek, jauzi kuantitatibo nabarmena ekarri zuen euskarazko pelikulen sorkuntzan. Izan ere, Euskal Irrati Telebistak (aurrerantzean, EITB Media) ikus-entzunezko ekoizle elkarteekin 2000. urtean akordioa abiarazi zuen, urtero, gutxienez, bina film luze eta labur euskaraz ekoizteko. Eta, gerora ikusi da, laguntza mota hori askoz eraginkorragoa izan dela euskarazko lanak sortzeko, Eusko Jaurlaritzak sustatutako dirulaguntza-lerroak baino. Hala, 2005etik aurrera, esaterako, urtero, gutxienez, pelikula bat filmatu zen euskaraz aipatu akordio horri esker, eta bikoiztu egin zen film kopurua 2008tik aurrera, EITB Media oinarriko finantzazio iturri bilakatuz (Manías-Muñoz, 2013: 92).

las cinematografías en catalán, gallego y euskera y contribuye aún más a invisibilizar las lenguas minoritarias, que desaparecen en doblajes forzados al español con la intención de competir en igualdad de condiciones con producciones rodadas en esta lengua (Pérez Pereiro et al, 2021: 14).

La situación de lengua minoritaria del euskera respecto al español –solo el 36,2 % de la población mayor de 16 años que vive en la Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE) es vascohablante (VII Encuesta Sociolingüística, 2021)– se ve reflejada en la mayor parte de las funciones sociales y comunicativas que desempeña. Y en la industria cinematográfica ni el doblaje ni el subtulado al euskera han terminado de conformarse como lengua (también) vehicular.

Esto mismo se percibe también en los festivales de cine de mayor envergadura de la CAE: El Festival Internacional de San Sebastián/Donostiako Nazioarteko Zinemaldia (SSIFF-Zinemaldia) y el Festival de Cine Documental y de Cortometrajes de Bilbao (Zinebi). A pesar de ser ambos certámenes de la máxima categoría (categoría A) de acuerdo a la acreditación de la Federación Internacional de Asociaciones de Productores Cinematográficos (FIAPF), sus políticas lingüísticas no coinciden en la práctica. La política que dicta SSIFF asegura que todas las películas estén subtuladas al inglés y al castellano (excepto si la lengua original de la película es el español). La subtitulación al euskera es tan solo opcional y *de facto* resulta residual (SSIFF, 2022). Las normas de Zinebi determinan una práctica similar. Sin embargo, en 2019 el propio Festival adoptó la decisión de incluir los subtítulos en euskera en todas las películas exhibidas (Fernández Guerra, 2022).

La realidad en EITB no es mucho mejor. De sus cuatro canales sólo ETB1 y ETB3 funcionan en euskera. El primer canal es generalista, con una programación muy deficitaria en obras de ficción y documentales. No solo escasean las obras originales en euskera. La traducción de obras de producción ajena apenas tienen cabida en este canal; con lo que ni el doblaje ni el subtulado al euskera constituyen una apuesta regular en la programación diaria de ficción. ETB3 es un canal íntegramente en euskera dirigido al público infantil y juvenil, donde se emiten la mayoría de las series de animación y de ficción juvenil, tanto de producción propia como ajena.

Actualmente la exhibición de películas de ficción se limita, casi en su totalidad, al canal en castellano (ETB2); es decir, se emiten en VO en español o dobladas a esa lengua. Muestra de ello es la enorme desproporción existente en las emisiones de ficción en los dos canales principales: desde enero a septiembre de 2022, se emitieron 130 films en castellano en ETB2, y ni tan siquiera uno en euskera, en ETB1 (Urkizu, *Berria*, 06-09-2022).

Ayudas al doblaje

El modelo de ayudas que cubría parte de los gastos de doblaje, copias, realización de DVD y comercialización estuvo vigente hasta el año 2008 con unos montantes significativos: desde 450.000 € del año 2000 hasta 698.980 € de 2008.

Al principio se doblaban películas tanto para adultos como para público infantil, pero desde 2003, la oferta se redujo a las películas infantiles. De estas ayudas se beneficiaban también las películas producidas en Euskadi (fueran en español o en euskera), como ayuda complementaria a la comercialización.

En la actualidad, el Gobierno Vasco ha retomado aquellas ayudas y las gestiona a través de Zineuskadi, asociación sin ánimo de lucro creada en 2011 por el impulso del Departamento de Cultura con la participación de las dos asociaciones de productores audiovisuales del País Vasco (IBAIA y EPE/APV). En 2014 se sumaron a la asociación EITB, SSIFF y Fimoteca Vasca. Actualmente Zineuskadi gestiona tres programas, de limitada dotación: subvenciones a salas cinematográficas de la CAE por la exhibición de películas europeas e iberoamericanas; apoyo a la promoción y la publicidad de las producciones cinematográficas vascas; apoyo al estreno de películas en euskera en circuitos comerciales y alternativos y dirigido a distribuidoras para el doblaje y distribución de cine en euskera.

Ayudas al subtulado

No es lo mismo subtítular contenido audiovisual creado en lenguas hegemónicas o subtítular a otras lenguas producciones creadas en lenguas minoritarias. En el primer caso, el espectador oye la lengua hegemónica y lee la minorizada. En el segundo, lo contrario: se oye la lengua minorizada y el cinéfilo ha de leer en la otra el subtítulado, normalmente en una lengua hegemónica (Zabalondo et al, 2020). De ahí que apuntemos el subtítulado como herramienta de traducción audiovisual que garantiza la visibilización de las lenguas minorizadas así como la accesibilidad a dichas lenguas.

El subtítulado se ha venido reivindicando en los últimos años como alternativa más barata, flexible, factible y adaptada a los tiempos que corren para la localización de la producción audiovisual. “El dilema entre el doblaje y la subtitulación no es sólo cultural, sino también económico”, subrayaba el responsable del Servicio de Euskera de EITB, Asier Larrinaga (2018). En ese mismo sentido se expresó Ana Tamayo (2018), profesora de Traducción e Interpretación de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU): “Es verdad

que hay mucha gente que no quiere consumir subtulado. Yo creo que es una cuestión económica, cultural. [Aunque], no hay un circuito estable de subtitulación, hay que educar también en general al público pero también a las cadenas, a las productoras, a las instituciones y a las distribuidoras”.

Pero como insistía la viceconsejera de Política Lingüística, Miren Dobarán (2018), entrevistada como los profesionales anteriores en el proyecto EUVOS⁴: “El problema son los recursos, no podemos mantener esa inversión de manera masiva. La juventud consume en inglés y en castellano por igual. El problema no es la lengua; el problema son los recursos”.

Con todo, desde diversos ámbitos se han desarrollado iniciativas para impulsar el subtulado. Unas provienen del espacio social, de proyectos colaborativos en Internet. El referente es *azpitudluak.eus*, proyecto creado en 2008. Otra comunidad abierta creada en 2003 es Euskal Encodings: contiene más de 1.500 films y series. Más reciente es Zer Non Ikusi, portal que facilita la búsqueda en las grandes plataformas de streaming. A mediados de septiembre de 2022, este buscador daba cuenta de más de 200 films (Goti, 2022).

En el ámbito institucional destaca Filmazpit, iniciativa creada en 2011 por la Filmoteca Vasca, Tabakalera Centro Internacional de Cultura Contemporánea y el SSIFF, a la que se suma Zineuskadi en 2014. Su objetivo es suministrar una oferta de películas en VO subtuladas al euskera al circuito de salas municipales y cine clubs de forma gratuita. Además pone a disposición del público los subtítulos en euskera generados en las diversas programaciones gestionadas por las instituciones participantes. En su página web hay disponible un amplio catálogo de subtítulos y uno más reducido de películas en distribución: 101 títulos disponibles, además del subtulado en euskera de 522 títulos (Filmazpit, 2020).

Entre las iniciativas institucionales más reseñable está el acuerdo entre el Gobierno Vasco y la compañía Distribuidora de Televisión Digital (DTS) para subtular películas y series, para ser ofrecidas en Movistar+.

El compromiso del convenio (2014-2016) comportaba el subtulado de un mínimo de 47 películas en 2014 y de 100 por cada uno de los años 2015 y 2016. Además, el compromiso conllevaba subtular dos series en 2014 y 11 como mínimo en cada uno de los años 2015 y 2016; es decir, un mínimo total de 24 series.

⁴ EUVOS: Patrimonio Cultural Inmaterial. Para un programa europeo de subtulado en lenguas no hegemónicas FEDER/Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades – Agencia Estatal de Investigación/ ref. CS02016-76014-R

La titularidad de estos subtítulos es del Gobierno Vasco, quien al cabo de un año del estreno de las versiones en televisión quedan libres para su uso en abierto, a través de Open Data. El montante total del proyecto ha sido de 369.332,26 €, de los que el Gobierno Vasco ha subvencionado 191.250 €.

Durante el tiempo en que esos subtítulos estuvieron disponibles en el canal Movistar+ el gran público no tuvo conocimiento de ello y apenas se promovió su uso. Es el colectivo *azpituduluak.eus* el que está realizando una labor importante de difusión de estos subtítulos.

Durante los últimos siete años se han subtulado al euskera 3.803 películas, documentales, cortos y episodios de series (Respuesta Parlamentaria 12\10\05\03\01258 a EHBildu, 2022).

CONCLUSIONES

El sistema de subvenciones a la producción que ha ido estableciendo el Gobierno Vasco no constituye, por tanto, un modelo especialmente favorable para la producción cinematográfica en euskera. No hay una modulación suficiente del factor lingüístico en las ayudas que incida realmente en la promoción de la producción en euskera. Es más, el propio ICAA con la dotación anual del Fondo Autonómico para el fomento de la producción en lengua cooficial distinta al castellano durante los años 2009, 2010 y 2011, cuya gestión adjudica a las diferentes Comunidades Autónomas, resultó en esos años más proactivo respecto al euskera que el propio sistema vasco de ayudas. Ello no quiere decir, en cualquier caso, que su incidencia haya sido pequeña. Si bien no el motor, sí que ha sido un complemento importante que ha permitido el desarrollo de la producción en euskera.

1. En lo referente a la producción audiovisual, las políticas dirigidas a promover la producción cinematográfica propia en euskera han sido tardías. Durante años ha primado el desarrollo de la producción audiovisual misma. La dimensión lingüística ha sido una cuestión complementaria y no central en el sistema de ayudas. No ha sido hasta este milenio que la promoción de producción audiovisual en euskera se ha desarrollado de forma específica. Aún así, el sistema público de ayudas sigue, en general, situando al euskera en un segundo plano y dejando los compromisos más exigentes (cuotas, obligaciones de producción) a la televisión pública vasca. En este sentido, las medidas de reserva de parte de la financiación, la puntuación complementaria del euskera en los proyectos u otras

medidas similares que han sido y son aún utilizadas en las convocatorias de ayudas del Gobierno Vasco parecen más bien medidas complementarias o de maquillaje que no tienen incidencia real en la producción. Sólo medidas sólidas, con cuotas y obligaciones, como las implantadas en la televisión pública vasca, tienen un efecto real y estable en el tiempo.

2. No hay una estrategia clara y decidida en los ámbitos del doblaje y subtitulación. Tras un período de doblaje indiscriminado, éste ha sido prácticamente abandonado y reducido al cine infantil (programa Zineuskadi). El subtulado, por su parte, ha sido adoptado nuevamente más como una medida de maquillaje que como una estrategia real de promoción del euskera en el sistema audiovisual: la propia EITB no ha reflexionado ni desarrollado ninguna línea específica, incumpliendo incluso las normas de accesibilidad derivadas de las directivas europeas y leyes estatales. Se delega en agentes externos como Movistar+, productoras y agentes sociales (azpitoluak.eus) y semainstitucionales (Filmazpit), descargando responsabilidades que corresponden de forma principal a la propia institución.
3. Frente a la desorientación, los desequilibrios y las políticas oportunistas y cortoplazistas, es necesaria una reflexión clara en torno al lugar del euskera en el sistema audiovisual que articule agentes y ámbitos: producción, exhibición y difusión (doblaje y subtitulación).

REFERENCIAS

- ÁLVAREZ, A. N., "Financiación pública autonómica del cortometraje animado en España (2008-2019)", *Con A de animación*, (13), 2021, 112-127.
- AZPILLAGA, P., IDOYAGA, P., "Sistemas de protección y ayudas al sector audiovisual", *ZER: Revista de Estudios de Comunicación. Komunikazio Ikasketen Aldizkaria*, 5(8), 2016.
- BALLESTER, A. R., *Traducción y nacionalismo: la recepción del cine americano en España a través del doblaje (desde los inicios del sonoro hasta los años cuarenta)*, Universidad de Granada, Granada, 2000.
- BARAMBONES, J., "Una mirada telescópica al cine en euskera: Versiones originales, dobladas y subtituladas", *Hermeneus: Revista de la Facultad de Traducción e Interpretación de Soria*, 13, 2011, 25-59.
- CASADO, M.A., "Las televisiones autonómicas y la producción audiovisual local: balance desigual de una alianza necesaria", en *Televisiones autonómicas: Evolución y crisis del modelo público de proximidad*, GEDISA, Barcelona, 2012. 201-250.
- Decreto 215/2007, de 27 de noviembre, sobre las obligaciones de las operadoras televisivas de emisión e inversión para la financiación anticipada de largome-

- trajes y cortometrajes cinematográficos y películas para televisión. [en línea], (2021) <https://www.euskadi.eus/web01-a2inguru/es/contenidos/decreto/bo-pv200707037/es_def/index.shtml>. [Consulta 05/01/2021].
- DOBARAN, M., entrevista personal, 15/09/2018.
- FERNANDEZ GUERRA, V., entrevista personal, 07/07/2022.
- GOBIERNO VASCO: «VII Encuesta sociolingüística, 2021» [en línea], (2023), <https://bideoak2.euskadi.eus/2023/03/20/news_84431/VII_ENCUESTA_SOCIOLING%C3%9C%C3%8DSTICA_resumen.pdf>. [Consulta: 13/04/2023].
- GOTI, N.: «Zer Non Ikusi, plataformetan euskarazko edukien bilatzaile berria» [en línea], (2022), <https://www.kazeta.eus/eu/info_kz/20220912/zer-non-ikusi-plataformetan-euskarazko-edukien-bilatzaile-berria>. [Consulta: 12/09/2022].
- LARRINAGA, A., entrevista personal, 10-05-2018.
- Ley 13/2022, de 7 de julio, General de Comunicación Audiovisual. BOE núm. 163, de 8 de julio de 2022. <https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-11311>. [Consulta: 08/12/2022].
- MACÍAS, J., “Cine vasco: ¿Un debate cerrado?”, *Zer: Revista de estudios de comunicación = Komunikazio ikasketen aldizkaria*, 28, 7 de julio de 2011, 31-48.
- MANIAS, M., Euskarazko zinemaren produkzioa eta finantziakzioa (2005-2012): ha-maika fikziozko film luzeren azterketa ekonomikoa (tesis doctoral), 2015, UPV/EHU.
- MANTEROLA, E., “Evolución del cine en euskera y su traducción”, en *MonTI. Monografías de Traducción e Interpretación*, Special Issue 4, 2019, 113-144.
- MARTINEZ, J., *Irudiz eta euskaraz. Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza*, UEU, Bilbo, 2022.
- TAMAYO, A., entrevista personal, 02/07/2018.
- PEREZ PEREIRO, M., DEOGRACIAS HORRILLO, M., BARREIRO GONZALEZ, M.S., “Filmes-insignia, políticas audiovisuales y circulación. Los casos de *Pa negre*, *Handia* y *O que arde*”, en *Quaderns del CAC* 47, Volumen XXIV, Octubre de 2021, 13-24.
- ROLDAN, C., “Euskera y cine: una relación conflictiva”, en *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*, 28(71), 1996, 163-176.
- SSIFF: «Reglamento Sección Oficial» [en línea], (2022), <https://www.sansebastian-festival.com/2022/registro_de_películas/reglamentos/1/19846/es>. [Consulta: 03/11/2022].
- UGARTE IRIZAR, I.: «Mutualdiak esateko duena» [en línea], (2022), <<https://www.berria.eus/paperekoa/1938/032/001/2019-02-24/mutualdiak-esateko-duena.htm>>. [Consulta: 06/10/2022].
- URKIZU, U.: «Maiatzetik hona, ETB2k 130 film eman ditu; ETB1ek, bakar bat ere ez» [en línea], (2022), <<https://www.berria.eus/paperekoa/1861/017/001/2022-09-06/maiatzetik-hona-etb2k-130-film-eman-ditu-etb1ek-bakar-bat-ere-ez.htm>>. [Consulta: 06/09/2022].

ZABALONDO, B., DEOGRACIAS, M., AZPILLAGA, P., "EUVOS. Europako Kultur Ondare Immateriala. Europako hizkuntza ez-hegemonikoetan azpidazteko egitarau baterantz", *Senez Aldizkaria*, 51, 2020, 207-220.

ZINEBI: «Reglamento. Sección Oficial –Concurso Internacional Ziff-Zinebifirst Film» [en línea], (2022), <<https://zinebi.eus/assets/media/ZIFF-Reglamento-ZINEBI-64.pdf>>. [Consulta: 03/11/2022].

ZUNZUNEGUI, S., *El cine en el País Vasco: la aventura de una cinematografía periférica* (Ser. Imagen, 1), Filmoteca Regional de Murcia, 1986.

2. ATALA

2.1. EZTABAIDA

Tesi honen helburu nagusia maila filosofikoan kokatzen dela esan genezake. Alegia, desgaitasunen bat duten pertsonen komunikabidetara eta, oro har, kulturara sartu eta parte hartzeko –eta horretarako erakundeek zer nolako neurriak eta legeak onartu dituzten– legez duten eskubidea ulertzea, eta hizkuntza gutxitu nahiz minoritarioen irigarritasun auziarekin bateratzea. Are gehiago kontuan izanda, herrialde gehienetan, eta giza eskubide linguistikoaren harira, hiztun komunitate minoritarioak –entzumen desgaitasunak dituztenak, etorkinak eta indigenak– ez direla oso kontuan izan (Grinevald, 1998; Ahmad, 2008; hemen aipatuak: Melendez-Labrador, 2022: 3).

Nik neuk, hizkuntza gutxitu eta minoritario bateko hiztuna izanik –zeinak bere egunerokoan, kontzienteki, euskaraz bizitzeko eskubidea praktikatzeko ahalegina egiten duen–, hautu pertsonaletik harago, lagungarri deritzot bazterketa jasaten duten giza-taldeek egin duten bideari erreparatzea. Eta ikus-entzunezkoen esparruan, ikus-entzunezko medioak irigarri egiteko hartutako neurriez eta berau ahalbidetzeko garatutako baliabideek horretan lagungarriak zaizkigu. Aintzat hartuz, halaber, ikus-entzunezkoetara irigarritasunak (MA), ikuspegi unibertsal batetik begiratuta, eduki irigarriaren hazkundera ekarri duela (itzulpengintzaren bitartez), baina Romero-Fresco eta Dangerfieldek (2022: 18) azpimarratzen dutenez, MA zerbitzuek asebetetzen ez dituzten pertsonen beharrak birritan baztertzen direla: filmaren JBtik (ustez unibertsala) lehenengo, eta MAk hitz emandako ‘denontzat’ filmaren bertsio irigarritik, gero. Hein baten, irigarritasun audiobisuala eta irigarritasun linguistikoa berriro ere bereizita ulertu direlako sektore audiobisualean.

Irigarritasun linguistikoa hizkuntza politiken estrategia

Iraultzat hartu behar da ez bairik gabe irigarritasunaren esparruan gertatutakoa, adiera eta eremu anitzagoetara zabaltzen joan den bitartean. Hala, ikusi dugunez, irigarritasunaren inguruko definizio ugari eman dira urte hauetan guztietan. Baina,

agian, hedatuena ‘Denontzat Diseinua’ (Design for All) kontzeptuak barne hartzen duena litzateke: giza aniztasuna, gizarteratze eta berdintasunerako diseinua (Persson, Åhman, Yngling, Gulliksen, 2015). 2004an sortutako Diseinu eta Desgaitasunaren Europako Institutuak (EIDD) eman zuen, zeinak 2006tik Diseinua Europa guztirako (Design for All Europe) izena hartu zuen. Egitasmoaren helburuak zera zioen: ingurumena, eguneroko gailuak, zerbitzuak, kultura eta informazioa –alegia, pertsonen pertsonentzat diseinatzen eta egiten duten oro– irigarri izan behar dira; egokiak, gizarte guztiak erabili ditzan, eta giza aniztasunaren eboluzioari erantzuten diotenak. Horregatik Denontzat Diseinuak gizakiaren analisi eta beharren erabilera kontzientea egiten du eta azken erabiltzaileen parte hartzea behar du diseinu prozesuaren etapa bakoitzean (Estocolmo, 2004). EIDD, esan bezala, Europako plataforma da eta Europako 19 herrialdeetako eta Europaz kanpoko 4 herrialdeetako 44 erakundek osatzen dute.

Bada, ordea, kezka bat irigarritasunaren definizioaren inguruan, Perssonek eta besteek (2015) luze eta zabal lantzen dutena, eta dudan jartzen duena irigarritasuna definizio bakar batera mugatzea. Hala, post-estrukturalismotik abiatuta (Michel Foucault eta Jacques Derrida oinarri hartuta) ondorioztatzen dute, irigarritasunak definizio berri eta zabala behar duela non adieraziko den “produktuak, sistemak, zerbitzuak, inguruneak eta azpiegiturak ahalik eta ezaugarri eta gaitasun (fisiko, kognitibo, finantzario, sozial, kultural eta abar) mota zabalena duen gizartearentzat izan behar direla erabilgarri, helburu zehatz bat lortzeko testuinguru zehatz batean”²⁶ (Persson, *et al.*, 2015: 524).

Ikuspegi horrek ere adierazten digu zein bizirik dagoen gaia eta zein labainkorra izan daitekeen desgaitasunak dituzten pertsonentzat pentsaturiko neurriak oinarri hartzea eta auzi linguistikoan aplikatzea. Baina, era berean, irigarritasuna eta hizkuntza eskubideen auziak osagarriak eta bateragarriak dira (Esteban eta Ramallo, 2019: 40) eta horregatik da garrantzitsua, autoreen arabera, nortasuna, hizkuntza eta irigarritasunari intersektionalitatek begiratzea. Hala, autoreek aldarrikatzen dute hesi komunikatiboak gainditzeko irigarritasunak ahalbidetzen duenetik harago, hizkuntza eskubideak babesten dituen marko juridikoak ere gorren hizkuntza eskubideak babestea (*ibid*, 2019:40).

²⁶ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “the extent to which products, systems, services, environments and facilities are able to be used by a population with the widest range of characteristics and capabilities (e.g. physical, cognitive, financial, social and cultural, etc.), to achieve a specified goal in a specified context.”

Melendez-Labradorrek (2022: 6), esaterako, dio ‘pertsona gorrak’ eta ‘entzumen desgaitasunak dituzten pertsonak’ berdinean erabili izan diren terminoak direla eta ‘Irisgarritasun Komunikatibo Unibertsala’ proposatzen du komunikazio-modu, -baliabide eta -formatuetatik harago joateko eta informazioa eskuratzeko aukeraz aritzeko (*ibid*, 2022: 7). Izan ere, komunikazio-irigarritasunak kultura gaiak biltzen ditu, baita eremu politikoan ere (Bonito eta dos Santos, 2018: 208; hemen aipatua: *ibid*: 2022: 07). Hala, ‘pertsona gorra’ terminoa aldarrikapen politikoa litzateke berez, haren hizkuntza eskubideei erreferentzia egiten diolako eta ‘desgaitasun’ terminoarekin etiketatzen da irigarritasun-prozesuetan komunikazio-oztopoei erreferentzia egiteko (Melendez-Labrador, 2022: 5-6).

Bistan denez, auzi biak elkar-loturik daude eta ikerketa honetan zehar aplikatutako metodologiak aukera eman digu azalpen adierazgarriak lortzen, fenomeno edo egoera horren aurrean (Lee eta Lings, 2008). Hau da, gure hasierako planteamendua berresten: baliabide horiek ez daudela mugatuta desgaitasunak dituzten pertsonen erabilerara, eta hizkuntza gutxituen ulergarritasuna eta hedapenaren bidean aintzat hartu behar direla.

Metodologia kualitatiboaren inguruan teorizatu izan duten autore eta ikerlari asko bat datoz esaten, ikerketa-metodo egokia dela berori kuantifikagarriak ez diren fenomenoak ikertzeko, baita ikergaia berraztertzea izan behar dela uste denean ere (Morse, 2003: 833; hemen aipatua: Vasilachis de Gialdino, 2006: 30). Are gehiago, egungo gizartearen errealitate sozialak sustatzen ditu metodo, estrategia, prozedura, teknika eta tresna anitz uztartzea errealitate sozial horri erantzun ahal izateko (Martínez, 2006). Eta irigarritasunaren arloa zerbait bada aldakorra eta berritzailea da. Eta hizkuntza gutxituak babesteko eta sustatzeko araudiek aintzat hartu beharko lituzkete, are eta gehiago Europar Batasunaren erreferentzia markoan kultura aniztasunaren aldeko diskurtsoetatik harago joan nahi bada hizkuntza gutxituen babesean (Ruiz-Vieyetez, 2022: 62).

Hortaz, irigarritasun audiobisuala desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak gidatuta gauzatu bazen ere, ez da hor amaitu bere bidea eta geroz eta audiobisualagoa den gizarte-kultura honetan ezinbesteko baliabide bihurtu da, era guztietara eta herritar guztientzat.

Ikerketak ahalbidetu digu irisgarritasun linguistikoa eta medioen irisgarritasuna batera ulertzen, aukera ematen digutelako euskaraz dakitenek eta ez dakitenek batera jarduteko ikus-entzunezkoen kontsumoaren eremuan. Ikusi dugu zinema-aretoetan gorrentzat eta itsuentzat ikus-entzunezko irisgarritasuna ahalbidetzeko Whatscine moduko teknologiek aukera eman diezaguketela aldibereko emanaldi elebidunak eskaintzeko eta, modu horretan, audientziak bereiztu beharrik ez izateko. Berba bitan, publikoa aberasteko. Teknologia horrek aukera ematen du JB ezkutatu beharrik ez izateko eta hizkuntza gutxituen kasuan, publikoari emateko hizkuntza hautatzeko aukera. Alegia, entzumen- eta ikusmen-desgaitasunaren eta hizkuntza gutxituen ikus-entzunezko irisgarritasunaren auziek puntu komunak dituztela eta hori, hizkuntza hegemonikoak eta hizkuntza gutxituak aldi berean bizi diren herrialdeetan aintzat hartu beharko litzateke hizkuntza politikaren estrategiak definitzeko orduan telebistan, zinematan eta gainerako pantailatan neurri egokiak hartu ahal izateko irisgarritasun linguistikoari erantzuteko.

Esan nahi baita, publiko zabala hizkuntza gutxituan egindako JBra erakartzea dela erronka. Izan ere, espainiar estatua moduko bikoizketa estatu batean, non gaztelania den JB edo bikoizketa-hizkuntza hegemonikoa, gainerako hizkuntzak ez dira, orokorrean, erakusten; ezkutatu egiten dira. Eta bikoizketa-kultura batetik etortzea ezin da aitzakia gisa erabili hizkuntza ofizial bat baino gehiago dituen estatu bateko hizkuntza minorizatuak ezkutatzeko. Kontrara, jatorrizko bertsioan dauden ikus-entzunezko edukietara sarbidea beharrezko osagarri behar du izan kultura zibikodun gune ireki batean, sozialki kohesionatuagoa den gizarte batek aurrera egin dezan eta, era berean, Europako herritar eskumeneko eta plural izan nahi dutenek partekatzen duten komunikazio kontzeptuak modu egokiagoan erantzun diezaiela kontzientzia meta-komunikatiboaren alderdi ulergarri, dibertsifikatzaile eta soziokulturalei (Muñoz eta Ilinares, 2011: 3; hemen aipatua: Ledo-Andión, López-Gómez, eta Castelló-Mayo, 2017: 74). Izan ere, “estatu eleanitz batean juridikoki pribilegiatua den hizkuntza bat egoteak ez du esan nahi hizkuntza hori hizkuntza komuna denik, hau da, ustez ‘batzen’ duen hizkuntza denik, desberdintasunak alde batera utzita. Kontrakoa da, hain zuzen ere: ‘komunaren’,

alegia, ‘batasunaren’ alde argudiatzea indarkeria sistemiko modu bat da, eta horren ondorioa da desadostasuna indartzea” (Esteban eta Ramallo, 2019: 25)²⁷.

Zinemagintzak mutua izateari laga zionetik –eta Estatu Batuetako zinema zenez, alegia, ingelesez sortutakoa, beste herrialdeetara zabaldu zena–, itzulpengintza audiobisuala hizkuntza hegemoniko batetik abiatuta egiten zen. Aldiz, zinemagintza txikiek itzulpengintza audiobisuala baliatu dute txikitik handirako norabidean. Hala, baliabide berberak erabili dituzte bai, baina oinarrian dagoena ez da gauza bera. Izan ere, hizkuntza hegemonikoak merkatu ikuspegitik, nahikoa hiztun ditu eta ez du publiko eleaniztunago, edo hizkuntza minoritarioetan ari den publiko batera iritsi beharra bere lehentasunen artean. Aldiz, hizkuntza gutxituan egindako lanei beharrezko zaie publiko zabalagoetara iristea, errentagarritasunaren izenean.

Azterketa dokumentalak erakutsi digunez, askotarikoak dira bai legeak eta baita hartutako konpromisoak ere Europako erakundeen aldetik kultura eta hizkuntza-aniztasunaren alde egiteko. Zinemagintzak dauka, agian, paper erabakigarriena. Horren adierazle da MEDIA programa, zine europarren ekoizpena eta hedapena garatzeko finantzazio programa gisa. Izan ere, hizkuntza gutxituetan egiten den zinemagintzaren arazoetako bat da egindako inbertsioa errentagarria izatea ekarriko dion publiko zabalagoetara iristea. Auzia, ordea, ez daiteke izan hizkuntza gutxituan sortzen duenarena, ezin daitekeen bezala izan desgaitasun sensorialen bat duen pertsonaren ardura oztopoak gainditu behar izatea.

Arazo horri heltzeko, hortaz, irisgarritasuna litzateke publikoak ezagutzen ez duen hizkuntza batean dauden edukietara iristeko erraztasuna ahalbidetzea. Eta, auzi linguistikoa zineman eta, oro har, ikus-entzunezkoetan irisgarritasun auzi gisa begiratzea aldaketarako bide izan daiteke. Horretarako, jakina, legeen garapenean, kultura politiketan eta garapen teknologikoan aldaketa eragin beharko litzateke. Ibilbide horretan zehar nire tesi zuzendariak hainbat aldiz aipatu didan eran, kontua da munduari gure hizkuntzan egitea, ez munduak gurean.

²⁷ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “El hecho de que en un Estado plurilingüe haya una lengua jurídicamente privilegiada no debe suponer asumir que esa sea la lengua común, es decir aquella cuyo uso supuestamente “une” obviando las diferencias. Es justamente lo contrario: argumentar a favor de “lo común”, de la “unidad” supone una forma de violencia sistémica cuya consecuencia es fortalecer la desunión”.

Noranzko biko irisgarritasuna

Ikus-entzunezko irisgarritasuna orain arte planteatzen eta arautzen den modua, hizkuntza gutxituen kasuan bezala, kultura hegemonikoa gutxiengoaren esku jartzeko dago pentsatua. Kultura *mainstreamera* sarbide gisa. Baina, aintzat hartuta irisgarritasun audiobisualak hizkuntza-eleaniztasuna bermatu dezakeela eta, ondorioz, bestearen, minorizatuaren, kulturara gerturatzeko bide ematen digula noranzko biko irisgarritasunaz hitz egin beharko genuke. Alegia, “erabiltzaile guztiek aukera izatea era guztietako informazioa jaso eta bidaltzeko, dena delakoa dela formatua edo erabiltzailearen desgaitasuna” (Zaki eta Forbrig, 2011: 320)²⁸. Autoreek ingurune adimentsuen testuinguruan darabilte definizio hori. Diotenez, gailu teknologikoak irisgarri izateko ez da nahikoa erabilgarri izatea, erabiltzaileak ere beharko duelako hainbatetan informazioa helarazi eta informazio hori ere irisgarria izan behar denez, irisgarritasunak beste dimentsio bat hartzen du. “Noranzko biko irisgarritasunaren beharrari aurre egiten ari gara ingurune adimentsuan dagoen edozein erabiltzailearengana doan edo erabiltzailearengandik datorren informazioari dagokionez” (*ibid*, 2011: 320)²⁹.

Ez dugu noranzko biko irisgarritasunari erreferentzia egiten dion bibliografia zabalik aurkitu; are gutxiago, hizkuntza gutxituen eta ikus-entzunezkoen esparruan. Baina, Zaki eta Forbrige (2011) planteatzen duten irisgarritasunaren beste dimentsio hori ere bada ikerketa-lan honek ikusarazi nahi izan duena diogunean, kultura hegemonikoetatik minorizatueta ikus-entzunezko edukiak helarazteko irisgarritasun metodoak erabili diren bezala erabil daitezkeela kultura hegemonikoak ezagutu ditzan kultura ez-hegemonikoak ere. Azken batean, pobreagoa delako komunikabideetara irisgarritasuna ahalbidetzen ez duen gizarte bat, ez baitio aukera ematen herritar talde guztiei gizartean parte hartzeko (Remael, Orero, Black & Jankowska, 2019: 134). Eta ildo horretan ulertu dugu Reaganek (2019; hemen aipatua: Esteban-Ramallo, 2019: 28) proposatutakoa ere: politika linguistikoak hurbildu behar direla zeinu-hizkuntza darabilten gorren komunitatera eta gorren komunitateak hizkuntza politiketara.

²⁸ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “The opportunity for all the users to receive and to deliver all kinds of information, regardless of the information format or the type of user impairment”.

²⁹ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “And so here we are dealing with a need for bidirectional accessibility concerning any information coming from or going towards any user in the smart environment”.

Badira urte batzuk hainbat autore eta ikerlari ari direla lanean desgaitasunak dituzten pertsona horiek irisgarritasun audiobisualaren erdigunean jarrita. Eta beste ikuspegi batekin ari dira ikus-entzunezko itzulpengintza eta medioen irisgarritasuna lantzen. Romero-Fresco (2013) ausartu zen “accessible filmmaking” kontzeptua garatzen eta proposatzen; hau da, ikus-entzunezko itzulpengintza eta irisgarritasuna zinemagintzaren prozesuan integratzea proposatzen. Ezinbesteko deritzo autoreak, irisgarritasun audiobisual osoa egoteko, ikus-entzunezkoaren sortze prozesutik bertatik lantzea irisgarritasunaren auzia. Teorizazio eta praktika luzea egin du Romero-Frescoren proposamenak eta badira bide horretan lan interesgarriak, sormenezko azpidatzen inguruan ere (*ibid*, 2020, 2021, 2022). Autoreak egiaztatu duen planteamendu horrek ere badu oinarrian ezagutzera iristen ez garen errealitatera gerturatzea; alde batera lagaz, beste behin ere, *mainstream* hizkuntzan egin den horren itzulpena edo egokitzapenaren prozedura. Aurre hartzen dio eta hasieratik zinemagintzaren prozesu bihurtzen ditu itzulpena eta egokitzapena. Modu berean, sormenezko azpidatzi eta zeinu-hizkuntza jarduerak erakusten digute norabide biko irisgarritasunaren beharra: gehiengoak parte har dezan gorren komunitate minorizatuan, beti eurak izan beharrean kultura *mainstreamera* hurbidu behar dutenak.

Zioen Anna Jankowskak (2019: 233) biziki zaila dela ikus-entzunezko itzulpengintzaren baitan laburbiltzea, kategorizatzea edo sendoki deskribatzea komunikabideen irisgarritasunaren ikerketa. Eta arrazoi bi aipatzen zituen. Batetik, etengabeaurreraten ari dela eta, ondorioz, gaiaren inguruko ikerketak sakabanatuta eta metodologia eraikitze etengabea daudela. Eta, bestetik, ia ezinezkoa dela ikerketa hori egitea eskusiboki ikus-entzunezko itzulpengintzaren baitan; geroz eta heterogeneoagoa bilakatzen ari den landa baita.

Planteamendu hori, aurretik aipatutako Romero-Frescok egiten duenarekin bezala, ondo ezkontzen da gure ikerketa lerroarekin. Itzulpengintzaren mugak gaintzen ditu eta beste diziplina batzuetara iristen da. Ikus-entzunezkoetarako irisgarritasuna kontzeptu konplexua baita eta teoria, praktika, zerbitzu, teknologia eta tresna ugari nahasten baititu (Greco, 2016: 23), aurkeztu den bilduman ikus daitezkeenez.

Ikusi dugu, alde batetik, ikus-entzunezko itzulpenean hizkuntzaren trasbasean tradizionalki erabili diren metodoak genituzkeela: azpidazketa, bikoizketa eta

voice-over izenekoak. Eta, bestetik, ikus-entzunezkoen irisgarritasunean edukietara sarbidea ahalbidetzeko erabiltzen direnak: GA, AD eta ZH, aurretik aipatutako berezitasunarekin. Baina finean soluzio horiek diziplina artekoak dira, hau da, itzulpen- eta interpretazio-ikasketen eremuan sortu dira eta bitartekaritza linguistiko eta kulturalean; baina teknologia berrietara egokitzen dira, beste hartzaile talde baten esku jartzeko (Şimon *et al.*, 2022 : 461). Horregatik diogu, oinarrian, berdinez hitz egiten arituko ginatekeela: ikus-entzunezkoen ulergarritasuna bermatzeko metodoez. Halaber, eta modu desberdinetan garatu diren arren, bakoitzaren helburua izan da, ustez, premia desberdinak asebetetzea; hau da, erabilgarritasuna bermatu nahi izatea helburu (Gerber, 2002). Izan ere, irisgarria ez bada, erabilgarritasuna mugatzen da eta ulergarria ez bada, alferrikakoa izango da edukia jasotzea. Horregatik hartzen du berebiziko garrantzia irisgarritasuna ulertzea noranzko bikoan, modu horretan minoriengana hurbiltzeko eta ez bakarrik gutxiengoak hemegonikora.

Hala, Esteban eta Ramallok (2019: 40) adierazi bezala zeinu-hizkuntzaz ari zirela, “ez da nahikoa marko juridiko zabalak izatea zeinu-hizkuntzarekin lotutako arazo linguistikoak konpontzeko; halaber, esanguratsua da gogoratzea kultura-nortasun sentimendu indartsu batez batutako berezko komunitate batek duen hizkuntza batekiko atxikimendua”³⁰.

Eta filosofia horrek garamatza ikus-entzunezko irisgarritasunari ahalik eta modurik zabalenean begiratzera eta oztopo, hesi, arazo, gaitasun, trabatik haragoko bidea egin zen bezala, kultura minorizatueta, hizkuntza gutxitueta hurbiltzeko aukera gisa planteatzera.

Ikus-entzuntzekoa euskaraz izango da, ala ez da irisgarria izango

Zinema-areto komertzialetan euskaraz sortutako lanen bertsio bi eskaintzen dira oraindik orain gurean: JB gaztelaniazko azpidatziekin, bata, eta gaztelaniara

³⁰ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “No es suficiente con poseer marcos jurídicos amplios para solucionar todos los problemas lingüísticos relacionados con las lenguas de signos, sino que también resulta significativo recordar la fuerza de reafirmación relativa a una lengua como propia de una comunidad unida por un fuerte sentimiento de identidad cultural”.

bikoiztuta, bestea. Salbuespena da espainiar estatuko zinema-aretoetan bikoiztutako bertsioaren ordez AJB eskaintzea. Are gehiago, euskaraz sortutako filmak Ipar eta Hego Euskal Herrian aldi berean estreinatzea ere ezohikoa izaten da, tarteka gertatzen den arren: *Nora* (Lara Izagirre, 2020) pelikula Ipar eta Hego Euskal Herriko zinema-aretoetan estreinatu zen 2021eko irailaren lehenengo asteburuan, aldi berean; baina, esan bezala, hori ezohikoa da.

Halaber, eskaintza bikoitza (AJB eta bikoizketa) publikoari aukeran ematea ez da beti benetakoa izaten. Areto komertzialek ez dute beti egoki informatzen bertsio bakoitza noiz edo non emango den, ezta gorrentzako irisgarri dagoen ere (Martínez-Amador, 2016: 144); eta sarritan publikoa ez da jakitun izaten bertsio bi dituela aukeran. Bistan da agertoki horrek ez diola batere laguntzen euskarazko zinemagintzari.

Telebistari begiratzen badiogu, EITBri gure kasuan, bikoizketa-tradizioa atzerriko filmekin bakarrik erabili izan da; batez ere, gaztelaniaz. Eta euskaraz sortutako telebistarako ekoizpenak euskarazko katean eskaintzen dira euskaraz, inoiz gaztelaniazko katean ere eman diren arren; beti ere, gaztelaniara bikoiztuta. Horretarako, baina, hizkuntza bitan ekoizti behar izan da filma. Hala egin zen, esaterako, *Erlauntza* (Gabilondo, 2020) eta *Hil kanpaiak* (Rayo, 2020) filmekin. Are, EITBren edukien *Nahieran streaming* plataformak ere ez du hizkuntza irisgarritasunaren aukera baliatzen, ezta bere ekoizpenen kasuan ere, hizkuntza aniztasuna gehitzeko. Eta agertoki horrek ere ez dio batere laguntzen euskarazko filmografiaren merkaturatzeari, ezta euskal eremuan ere.

Eta, egoera aldatuko ote den, *streaming* plataforma komertzialen jardueraren ondorioz, ikusteko dago. Alegia, oraindik ezin da baloratu zer eragin izango duen 13/2022 Ikus-entzunezko Legeak plataformei agindutakoak, bosgarren xedapen gehigarriaren bitartez. Hau da, hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza gutxituen presentzia sustatzeko laguntza-lerroak ezarri izanak, azpidatziak edo bikoizketa sustatzeko eta *on demand* plataformetan zabaltzeko.

Baliteke, beraz, hizkuntza irisgarritasuna bermatzeko erabakiek eragina izatea emisio-politikan eta film-banaketan, hizkuntza eta kultura minoritarioak ikusgarriago egiteko; baina, gaur gaurkoz ezinezko zaigu hori baieztatzea.

Bere egunean ikus-entzunezkoetan irigarritasuna lortzeko presio taldeek egindako lanari esker, eta hainbat erakundetan garatutako legediari esker zioen Díaz-Cintasek (2010: 179), lortu ziren aurrerapausoak ematea komunikabideetara sarbidea ahalbidetzeko pertsona guztientzat –nahiz eta ‘guztientzat’ hori ez den gaur gaurkoz aldi berean ematen (Romero-Fresco eta Dangerfield, 2022)–. Hala ere, bidea erakutsi dute, eta informazioaren zabalkundea handiagoa izan daitekeela balioztatu, modu horretan ikus-entzule gehiagorengana hel daitekeelako.

Gaur egun ikus-entzunezkoetan euskararen presentzia aldarrikatzeko eta sustatzeko presio taldeak indartu dira Euskal Herrian (Pantailak euskaraz, Aldatu Gidoia...) eta une egokia deritzogu erakundeetatik ere irigarritasun audiobisuala ahalbidetzeko baliabideei begirada irekiago batekin erreparatzeko, hizkuntza gutxituaren, euskararen, mesedetan aplikatzeko.

Halaber, gure eremuan, eta legediaren aldetik, ezinbesteko deritzogu EITBren legeak bere egitea irigarritasunaren printzipio eta definizioak, eta Irigarritasun unibertsalaren Euskadiko Estrategiak (Eusko Jaurlaritza, 2019) ikus-entzunezkoak aintzat hartzea, bere ekintza-planean neurriak zehaztuz. Izan ere, eta Alonsok (2007: 17) adierazi bezala, gainditu egin behar baita irigarritasunaren eta oztopo nahiz desgaitasunaren arteko lotura automatikoa, bere esanahi eta onura guztiak pertsona guztiei zabaltzeko.

Audientzia berriak erakartzeko aukera ere pisuzko argumentua deritzogu egiten dugun planteamenduan: irigarritasuna onuragarria litzateke ulertuta hizkuntza-komunitateak elkartzeko tresna gisa. EITBren kasuan, esaterako, irigarritasun linguistikoa aktiboki erabilita euskara ez litzateke arrotza izango gaztelaniazko kanalean, eta euskal kultura eta euskarara gerturatzeko metodo gisa azpidatzi interlinguistikoa finkatzea ez daiteke ekimen negatibotzat jo (publikoa uxatuko den beldur). Jakin badakigun arren, ikus-entzunezko itzulpengintza metodo bat guztiz errotuta dagoen komunitate linguistiko batean oso zaila dela ohiturak aldatzea, gutxienez telebistari dagokionez (Pedersen, 2011: 07), ezin dugu alde batera laga teknologiak ahalbidetzen digula eleaniztasunari lekua egitea, gure esperimentuan erakutsi genuen moduan, eta *streaming* plataformei erreparatuta. Horregatik ere, EITBri dagokionez, abiarazi berri duen *Primeran* plataforman, nahiz bere programazioa sareratzeko darabilen *Nahieran* webgunean, azpidatzi aukera

bikoitza ahalbidetzea zilegi litzateke; telebistan, oraingoz bederen, teknikoki ezinezkoa dena. Egokia litzateke euskarari dagokionez eta, batez ere, euskara ezagutzen ez duen publikoari begira, aukera ematea euskara entzun eta azpidatzi bidezko itzulpena jarraitzeko. Ikuspegi ekonomiko batetik, Alonsok (2007) egindako irisgarritasunaren onuraren inguruko argumentazioari jarraituta, onurak ekarriko lizkioke hizkuntza gutxituaren, euskararen, ikusgarritasunari (onura intangiblea) eta euskararen ikasketari (onura tangiblea).

Argumentu horrek ez du bikoizketa baztertzen, jakina. Bikoizketak bere lekua izan behar du euskarara ekartzeko beste hizkuntzatan sortutako edukiak, hasteko eta behin, azpidatziak ez direlako publiko guztiarentzat hizkuntza-transferentzia metodo egokiena (umeen kasuan, adibidez). Baina ez bakarrik. Esperimentazio-fasean ikusi genuen bezala, zinemaren kontsumoan emanaldi elebidunak egitea aisialdia partekatzeko modu irisgarria izan daitekeelako. Gurea bezalako egoera diglosiko batean bizi den gizarte batek aukera izan beharko luke teknologia baliatzeko horretarako. Gaur gaurkoz asko dira oraindik umeekin euskaraz aritzeko gaitasunik ez duten gurasoak, baina emanaldi elebidunek aukera emango liekete elkarrekin ikus-entzunezkoek gozatzeko. Eta, bide horretan, Zineuskadiren inplikazioa lagungarria litzateke gure eremuan.

Azken batean, onura sozialaz ari baikara; hau da, kolektibitateari edo politikari lotutako ondasunez, ez eskari indibidualei lotutakoez (Bowen, 1943; hemen aipatua: Alonso, 2007: 26)³¹.

Eskaintzaren beharrezko behaketa

Tesian zehar erakutsi denez, argumentu zientifikoak baino ebidentziak izan ditugu oinarri gure hipotesiak garatzeko. Ikus-entzunezko edukien hazkundera egitate bat da, are gehiago, *streaming* plataformen zabalkundearekin. Horrekin batera, hizkuntza-eskaintza bera ere areagotu egin da, ingelesak hizkuntza hegemoniko izaten jarraitzen duen arren. Legediak eta arauak garatu dira irisgarritasun audiobisuala finkatzeko eta hizkuntza minoritarioak eta ez-hegemonikoak babestu eta sustatzeko. Aldiz, ez dira martxa berean garatu lehenengoak eta bigarrenak.

³¹ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “*Los bienes sociales están sujetos a la colectividad o a la política, más que a la demanda individual*”.

Gainera, legeak agindu arren European egindako lanak erakutsi behar direla baita plataforma horietan ez da, ordea, zehazten zein hizkuntzatan izan behar diren. Horrek arriskua dakarkie hizkuntza ez-hegemoniko eta minorizatuei, lehen aipatutako argumentu ekonomikoengatik.

Bestalde, gaur gaurkoz, Europar Batasunak ez du *on demand* plataforma horietan eskaintzen diren edukien hizkuntzen behaketarik egiten; ez ditu eskaintzen diren azpidatzi- eta bikoizketa-hizkuntzak monitorizatzen. Eta, justuki, neurriak hartzeko ezinbestekoa litzateke ezagutzea zein den egungo egoera. Tesi honetan aipatu dugu oraintsu egindako ikerketa bat (Agirre-Miguel *et al.*, 2023) monitorizatu dituen European ari diren plataformetako hiru nagusienak. Emaitzek erakutsi dute Europaren motore den hizkuntza-aniztasuna ez dela eskaintza horren oinarri, ez behintzat, modu orekatu batean, eta ezta Europako hizkuntzen artean ere.

Ikus-entzunezkoen Europako Behategiak *streaming* plataforma horien inguruko informazioa jasotzen eta aztertzen du, eta datu-base baten bidez (Lumiere VOD) plazaratzen du lan europarren presentzia. Baina, batzen duen informazioak ez duenez edukien hizkuntzaren inguruko informaziorik jasotzen, ezta irisgarritasun baliabideez ere, oso zaila da irudikatzea ikus-entzunezkoen kontsumo-ohiturek zer nolako eragina duten Europaren hizkuntza-aniztasunean. Europako Parlamentuak agerian laga zuen informazio falta hori (Europako Parlamentua, 2021) eta komenigarri jo zituen datuak izatea ikus-entzunezko politikak bideratzeko, baita desgaitasun sentsozialak dituzten pertsonen irisgarritasuna sustatzeko ere; beste behin ere agerian utziz etengabe aldatzen eta berritzen ari den esparrua dela irisgarritasunarena eta, nola ez, eskubidea den heinean, hizkuntza eskubideak legez, beti borrokatu behar den auzia dela. Arriskua baitago, hizkuntza eskubideak aitortu ezean, eta Eurogutunak egiten duen eran, bizirik mantendu nahi den paisaia babesteko neurriak bakarrik ezartzea –natur-guneak babesten diren gisara–, eta hizkuntza minoritarioak eta haien hiztunak babeserako objektu huts bilakatzea (Ruiz-Vieytez, 2022: 61). Are gehiago, “globalizazioaren garaiotan, non erabiltzaile eta prosumerrak ugari diren eta eleaniztasuna eta kultura aniztasuna hazten ari den, aktate berriak ari dira bere egiten ikus-entzunezko modu eta formatu berriak”

(Remael *et al.*, 2019: 139)³². Eta ikusi dugun moduan ezinbestekoa da irisgarritasuna giza eskubideak bermatzeko printzipio proaktiboa gisa ulertzea (Greco, 2016: 11).

2.2. ONDORIOAK

Artikulu bilduma bidezko tesia, hortaz, hainbat ikerketa arlo eta diziplina aintzat hartuta garatu da. Ikus-entzunezkoen irisgarritasuna ezin baita desgaitasunak dituzten pertsonen duten informazio eta entretenimendura heltzeko zerbitzu gisa bakarrik ulertu. Irisgarritasun linguistikoa ere aintzat hartu behar dela azaltzen saiatu gara; azken batean, ulergarritasuna ahalbidetzea baita bilatzen dena.

Ondorioz, ikerketa abiatzean egindako lanerako hipotesiak ikerkuntza prozesuan zehar balioztatu direla irizten diogu.

1) Ikus-entzunezko irisgarritasuna, desgaitasunak dituzten pertsonen informazio-eskubidetik harago, kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ahalbidetzeko printzipioa da. Baina, gure ustez, norabide bitan ulertu beharra dago ikus-entzunezko irisgarritasuna, batez ere, hizkuntza gutxituak aintzat hartzean: hizkuntza horretako hiztunek euren hizkuntzan kontsumitzeko eta hizkuntza hori ulertzen ez dutenek ere aukera izan dezaten ezagutzeko eta ulertzeko. Horregatik diogu hizkuntza-irisgarritasunak ikus-entzunezko itzulpengintzaren hizkuntza-transferentzia metodoek telebistaren, zinemaren nahiz *streaming* plataformen kontsumo eleanitza berma dezaketela.

2) Izan ere, ikus-entzunezkoak, hizkuntza gutxituen berme dira, hizkuntza-irisgarritasunaren bidez. Ikerketaren hasieran egindako esperimendazio-fasean frogatu genuen baliabide teknologikoek aukera eman dezaketela hizkuntza ez ulertzea ez dadin oztopo izan ikus-entzunezkoen gozatzeko, eta teknologiak ahalbidetzen duen heinean, ezta emanaldi eleanitzak partekatzeko ere. Horregatik berresten dugu hizkuntza-irisgarritasuna sustatzea interesgarria dela ez bakarrik hizkuntza gutxituentzat baizik eta baita kultura-aniztasunarentzat ere,

³² Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “Today, in the era of globalisation with its multiplicity of users and prosumers, as well as growing multilingualism and multiculturalism, new form of audiovisual translation and new formats are being appropriated by new actants”.

ahalbidetzen duelako hizkuntza ez ofizialetan egindako ekoizpenetara sarbidea, baita bikoizketa araua den herrialdeetan ere.

3) Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzeko eta babesteko egiten diren politika publikoetatik erabaki irmoagoak beharko lirateke; batez ere, hizkuntza gutxituetan egindako ikus-entzunezko edukien zabalkundea bermatzeko. Ikuspegi ekonomikoetatik harago, eskubideak ere badira jokoan: Europar Batasunaren aniztasun-printzipioa onartzeak hizkuntza gutxituen aldeko Eurogutunak jasotzen duena betearazteko neurri sendoagoak onartzea ekarri beharko luke.

Euskarazko ikus-entzunezkoak eta, oro har, hizkuntza gutxituetan egindako edukiak ezin dira, bakarrik, tokian tokiko erakundeen nahierara utzi; desoreka areagotzeaz gainera, ez du bermatzen eduki horien zabalkunde egokia.

4) Ez alferrik, euskal zinemari dagokionez, Espainia eta Frantziako estatuetan zinema legeek baldintzatzen dute, kasu bietan, hizkuntza hegemonikoen aldeko zinemagintzak, baita zinema-aretoetan ere, non bikoizketaren tradizioak ezkutatu egin duen hizkuntza ez-hegemonikoa.

5) Horregatik, berebiziko garrantzia hartzen dute film ekoizpenak bermatzeko laguntza publikoen sistemak. Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Europako proiektuak sustatzeko telebistei ezarritako derrigortasunak emaitza hobek eman dituen.

6) Gaur egun *streaming* plataformek agertoki berri bat sortu dute, eta horrek euskarazko sorkuntzari era eragin dio. Ikusteko dago, baina, europar produkzioen aldeko Europako Batasunak ezarritako kuotek zer-nolako eragina izango duten plataforma horietan. Horregatik jarraitzen du izaten ezinbesteko banaketa-sistemaren antolaketak, hizkuntza irizpideak aintzat hartuz, eta hor ikus-entzunezko irisgarritasunak berebiziko garrantzia izatea hizkuntza gutxituen irisgarritasuna bermatzeko eta Europaren oinarrizko printzipio den aniztasun linguistikoa errealagoa izatera iristeko.

2.3. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Hizkuntza gutxitua oztopo izan daiteke ikus-entzunezko edukiez gozatzeko, batez ere hizkuntza ezagutzen ez denean. Egia da, ordea, ezintasun hori ez dela hizkuntza gutxituen ezaugarri eksklusiboa: hizkuntza handien artean ere gertatzen da. Baina are nabarmenagoa da hizkuntza gutxituetan sortutako ikus-entzunezkoen zabalkundean edo, beste modu batera esanda, hizkuntza gutxituetan sortutako edukietara ailegatzeko orduan. Izan ere, gurea moduko errealitate soziolinguistikoko batean, non ofizialtasuna hizkuntza biek izan arren hizkuntza nagusienak hartzen duen hegemonia, hizkuntza ulertzeko ezintasunetik harago, bestelako arrazoiak azaleratzen dira hizkuntza gutxituan egindako ikus-entzunezkoen ikusgarritasunaz gabiltzanean. Zinema-emanaldien errentagarritasuna hiztun-kopuruak baldintzatzen duenean gertatzen da hori; hau da, zinema-banatzailleek ikusle gehien batuko dituen hizkuntzaren alde egiten dutenean.

Jakina, aldaera hori ezin da modu isolatuan hartu. Zinemaren kontsumo-ohiturek ere zeresan handia daukate aukera horretan; alegia, gurean bikoizketa da hizkuntza-transferentziarako metodo nagusia zinemari gagozkiola: zinema-aretoetan ez dago ohiturarik gaztelania ez den bestelako jatorrizko hizkuntza batean egindako filmak ikusteko. Era berean, ohitura ezari hizkuntza bien arteko ezagutza-maila desorekatua gehitzen badiogu, hizkuntza hegemonikoan egindako bikoizketa da zinema-aretoan entzungo dena; gaztelania, alegia. Eta hori, halabeharrez, hizkuntza gutxituan sortutako edukiaren kontra dator.

Zentzu horretan diogu irisgarritasuna erabilgarri zaiola hizkuntza-gaitasun nahikorik ez duen ikus-entzuleari eduki horietara sarbidea izateko, edukiaren irismena bermatzen baitu. Eta horrek, adibidez, gurea lako telebista publikoaren kasuan (hizkuntza bat, kate bat) bestelako planteamenduak egitera garamatza: euskarazko edukiak gaztelaniazko katean azpidazketa bidez eskaintzeko aukera. Hori, irudikatu dugu lan honi jarraipena emateko lan ildo gisa (Deogracias, 2021). Izan ere, EITB Mediak euskarazko zinemagintza sustatzeko egindako inbertsioak ez dauka parekorik azpidatzen politikan.

Azken hausnarketa bat: EITB Mediak euskarazko ikus-entzunezkoak zabaltzeko *Primeran* plataforma digitala sortu zuen iaz (EITB Media, 2023). Atari bakar izan nahi du, euskarazko ikus-entzunezko edukiena. Baina edukiak ez dira irisgarriak;

azpidatziak ez daude bermatuta eduki guztietan. Aukera galdu bat euskara bera hizkuntza ezagutzen ez dutenei zabaltzeko, audientzia berriak taxuz erakartzeko. Halaber, kontuan izanik gainerako *streaming* plataformak ere hasi direla ez bakarrik euskarazko edukiak gehitzen euren katalogoetan (Agirre, 2021), baizik eta azpidatziak (eta baita bikoizketak ere) eskaintzen euskaraz, indar gehiagorekin aldarrikatu beharra dago *Primeran* plataforman ere euskarara sarbidea ahalbidetzeko aukera guztiak bermatzea.

Irisgarritasun-audiobisuala euskaraz ere ahalbidetzeko ikerketa lerro eta baliabideak sortu dituzte, esaterako, Vicomtech teknologia zentroak eta Elhuyar Fundazioak. Biek ala biek, adimen artifiziala oinarri duten itzultzaile neuronalak garatu dituzte. IDAZLE (2022) izenekoa garatu du Vicomtechek. RTVEarekin batera hobetu berri duen tresna, eta lortu dutena automatikoki sortutako azpidatzen % 20k bakarrik behar izatea eskuhartzea, gaztelaniazko azpidatziatan (RTVE, 2023). Prestatzen ari garen hurrengo artikuluko batean, EITBk bere euskarazko katean eskaintzen dituen hainbat saioetako azpidatziak aztertu ditugu. Gaur egun, ekoiztetxeak dira azpidatzen arduradunak eta automatikoki sortzen diren azpidatzen kalitatea ere euren arduradunak da. Ikerketaren aurrerapen txiki gisa: elkarrizketatutako ekoiztetxeetako ordezkariak kezka adierazi digute azpidatzen egokitasuna ebaluatzeko tresnarik ez dutelako, ezta azpidatzen inguruko gidarik ere. Jasotako laginean antzematen da, bestalde, bateratasun falta dagoela saioen arteko azpidatzen inguruan. Hori dela eta, euskarazko azpidatzen gida bat sortzeko lanean ari gara.

Euskaraz ere azpidatzi eta transkripzio automatikoak sortzeko Elhuyarrek darabilen tresna ADITU da. EITBren kasuan *Teknopolis* saioaren azpidatziak (euskaraz zein gaztelaniaz) sortzeko erabiltzen da; izan ere, Elhuyarrek ekoizten du EITBrentzat zientziari buruzko saio hori hizkuntza bietan emititzeko (ETB1 eta ETB2). Euskarazko azpidatzi horiek aztertu berri ditu ikerketa batek, non azpimarratzen den ahots errekonozimenduaren akats maila handiagatik beharrezko dela azpidatzi horiek editatzea emititu aurretik eta horregatik oraingoz, bederen, teknologia hori alde aurretik grabatutako saioetan bakarrik erabiltzen dela (Tamayo-Masero eta Ros-Abaurrea, 2024: 51). Baina autoreek aipatzen dutenez, tresnari azkar ari zaizkie hobekuntzak egiten eta horrekin batera, baliteke laster zabaltzea bestelako azpidatziatarara ere (*ibid*, 2024: 69).

Bistan denez, hizkuntza teknologien garapenak berebiziko garrantzia dauka gaur egun eta, oro har, adimen artifiziala aurrerapauso izugarria eragiten ari da hizkuntza gutxituen zabalkundean ere. Ildo horretan, erakundeek eta ikerketa-zentroek hainbat plan sustatu dituzte (Aldabe, Farwell, Rigau, Rehm eta Way, 2023). Elkarlanean egindako lan horretan, Europar Batasunean garatzen ari diren ekimenen inguruko argazkia osatu dute eta jaso dituztenen artean, hizkuntza gutxituekin lotutakoak ere badaude, besteak beste: euskara (GAITU), katalana (AINA) eta galiziera (Nós) sustatzeko hizkuntza teknologiak (*ibid*, 2023: 378).

Orerok (2021: 386) dioen legez, “ikus-entzunezkoen eta formatu digitalen indarra eta euren arteko elkarrekintzak zuzentzen du informazioren gizartea; dagoeneko arrakala digitala edo alfabetatze digitala ez dira neologismoak eta gizarte digitalera sarbidea izatea giza eskubide bilakatu da”³³. Zentzu horretan, berebiziko garrantzia hartzen du akademiaren aldetik ere ikerketa-lerro berri eta hibridoetan murgiltzea (Matamala eta Orero, 2013). Eta ildo horretan sortu dira ikerketa-lerro berriak hizkuntza eskubideak eta teknologia uztartzen dituztenak aztertzeo –geroz eta interkonektatuago dagoen gure munduan–. Jomugan dituzte itzulpen- eta interpretazio-automatikoak nahiz komunikazio digitalek nola eragiten duten hizkuntza-aniztasunean eta irisgarritasunean, baita hizkuntza komunitate eta politika linguistikoetan ere (Giustinti eta Jiménez-Andrés, 2024). Eta beharrezkoa da fokoa hor ere jartzea, Europar Batasunetik kanpoko agenteek agintzen baitituzte gaur egun hizkuntza teknologien merkatuak, Europa eleanitzaren behar espezifikoak aintzat hartu gabe; eta merkatu zatiketak, finantzazio eskasa eta lege-mugak traba dira, batez ere, Europar Batasunak ez duelako hizkuntza berrien arazoari aurre egiteko politika proposamenik egin arlo horretan (Aldabe *et al.*, 2023: 381).

Aurrera begira, beraz, egoki deritzogu euskaraz sortutako fikzioaren irisgarritasuna zineman, *streaming* plataformetan eta EITB Mediaren pantailetan eskaintzen dena aztertzea, horrela saiatuko baikara erantzuten ea *streaming* plataformak hizkuntza gutxituen irisgarritasunaren aliatu diren, eta ea horrek aldaraz ditzakeen telebista konpainien eta film-banatzailen hizkuntza politikak (Deogracias *et al.*, 2021).

³³ Autoreak itzulia. Jatorrizkoa: “The power of the audiovisual and the digital formats and their many interactions is what leads the information society. Concepts such as digital divide or digital literacy are no longer neologisms, and access to the digital society is now considered a human right”.

Interesgarria litzateke, jarraipen lan horretan, aintzat hartzea ere *fansub* (Jiménez-Crespo, 2019) fenomenoaren baitan sortzen ari diren azpidatziak, batez ere, normalizazio bidean dagoen euskara lako hizkuntza minoritario baten kalitatean eragin dezaketelako eta Ferrer Simók (2005) aipatu bezala (hemen aipatua: Matamala, 2009: 56) kultura-erreferentzia eta izen ugari egokitu barik egoten direlako, itzulpen-irizpideak ez direlako jarraitzen.

Bistan denez, beraz, ekimenak egon badaude, interesa ere bai, baina ez estrategia irmo eta argia. Merkatu ikuspegiak, gaur gaurkoz, pisu gehiegi izaten segitzen du, baita ikus-entzunezko itzulpengintzan ere, eta ez dira politika ausartak sustatzen bikoizketa-tradizioari ihes eginez, jatorrizko bertsioaren alde egiteko zinema-aretoetan eta, era horretan, euskara ere irisgarri izan dadin azpidatzen bitartez. Eta ikuspegi horrek bere isla dauka baita telebista publikoetan; *streaming* plataformak hizkuntza gutxituen erakusleihen izateko aukera sortu den honetan, are eta ezinbestekoagoa da euskararen presentzia bermatzea, eta horretarako irisgarritasun linguistikoa aintzat hartzea. Garrantzitsua baita bistatik ez galtzea irisgarritasunaz ziotena Berners-Leek eta Fischettik (1999): edozein baliabide, edozein bitarteko erabiliz, edozein pertsonarentzat eskuragarri dagoela bermatzea, desgaitasunen bat izan ala ez.

3. ATALA: Erreferentzia bibliografikoak

(Bildumako artikulua bakoitzak bere bibliografia darama artikuluan bertan, argitalpenari dagokion eran)

AENOR, Asociación Española de Normalización y Certificación (2005): Norma UNE 153020:2005. Audiodescrición para personas con discapacidad visual. Requisitos para la audiodescrición y elaboración de audioguías, Madrid. Asociación Española de Normalización y Certificación.

----- **(2012).** Norma UNE 153010:2012. Subtitulado para personas sordas y personas con discapacidad auditiva, Madrid: Asociación Española de Normalización y Certificación.

Agirre-Miguel, K. (2021). Streaming Minority Languages: The Case of Basque Language Cinema on Netflix. *Communication & Society*, 34(3), 103-115. DOI: 10.15581/003.34.3.103-115.

Agirre-Miguel, K., López-Gómez, A. M., Larrakoetxea-Salgado, N., Arias-Badia, B., Deogracias-Horrillo, M., Amezaga-Albizu, J., Burreso-Pardo, N. & Martínez-Juez, A. (2023). Monitoring language diversity and accessibility of streaming platforms in the EU. The Greens / EFA in the European Parliament.

Agost, R., & Chaume, F. (2001). *La traducción en los medios audiovisuales* (Ser. Estudios sobre la traducción, 7). Universitat Jaume I.

Aldabe, I., Farwell, A., Rigau, G., Rehm, G. & Way, A. (2023). Strategic Plans and Projects in Language Technology and Artificial Intelligence. In *European Language Equality: A Strategic Agenda for Digital Language Equality* (361-386). Cham: Springer International Publishing.

Alma Sarea. (2020-2021). [<https://webs.uab.cat/alma/eu/>].

Alonso, F. (2007). Algo más que suprimir barreras: conceptos y argumentos para una accesibilidad universal. *Trans. Revista de traductología*, (11), 15-30.

Alvira, F. (1986). Diseños de investigación social: criterios operativos. El análisis de la realidad social. *Métodos y técnicas de investigación*. Madrid: Alianza Editorial.

Alzugarai-Etxeberri, X. (2024ko urtarrilak 22). Graxi Irigarai: «Ez da merkatuaren esku utzi behar euskal zinemaren garapena». *Ipar Euskal Herriko Hitza*. [<https://iparraldeko hitza.eus/2024/01/22/graxi-irigarai-ez-da-merkatuaren-esku-utzi-behar-euskal-zinemaren-garapena/>]

Amezaga-Albizu, J. (2004). *Satelite bidezko nortasunak: Latinoamerikan Canal Vasco ikusten*. Utriusque Vasconiae.

----- **(2013).** Euskal Telebista 30 urteren ostean. *Jakin aldizkaria* 194/195, 11-50.

Amezaga-Albizu, J., & Deogracias-Horrillo, M. (2015eko irailak 24-26). *Linguistic accessibility for minority language cinema* [Komunikazioa]. Conference: Filming Locations: The Fabric of Culture, Myth & Identity in Small Cinema, Malta. [<http://www.filmfestivalresearch.org/index.php/cfp-small-cinema-filming-locations-malta-sept-2015/>].

Amezaga, J., Arana, E., Narbaiza, B. & Azpillaga, P. (2013). The public sphere and normalization of minority languages. An analysis of Basque Television in light of experiences in Europe. *Tripodos*, (32), 93-112.

Arzelus, H., Torres, I. G., Martín-Doñas, J. M., González-Docasal & A., Alvarez, A. (2022). The Vicomtech-UPM Speech Transcription Systems for the Albayzín-RTVE 2022 Speech to Text Transcription Challenge. *Proceedings of the IberSPEECH, Granada, Spain*, 14-16.

Awedyk, W. (2013). Subtitling standards in Norway. *Folia Scandinavica Posnaniensia*, 15, 4-14.

Azpeitia Iruretagoiena, I. (2022). Euskal Telebista, la televisión pública vasca: el entretenimiento como factor clave para los medios de comunicación audiovisual en lenguas minoritarias. *Zer aldizkaria* 27(53), 125-144.

Azpitituluak euskaraz (2023ko abenduak 31). 250 eduki gehiago aurten Azpigituluak Euskaraz webgunean [<https://sustatu.eus/azpigituluak/1704369592>]

Astiz, I. (2011ko urriak 11). *Zeluloidea euskalduntzen.* [https://www.berria.eus/euskal-herria/zeluloidea-euskalduntzen_1126088_102.html].

Badia, T. & Matamala, A. (2007). La docencia en accesibilidad en los medios. *Trans: Revista de traductología*, 11, 61-71.

Barambones Zubiria, J. M. (2009). *La traducción audiovisual en ETB-1: un estudio descriptivo de la programación infantil y juvenil.* Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

Barambones, J., Merino, R., & Uribarri. (2012). Audiovisual Translation in the Basque Country: The Case of Basque Television-Euskal Telebista (ETB). *Meta*, 57(2), 408-422.

Barnes, D., Britton, J. & Torbe, M. (1969). *Language, the Learner and the School.* Harmondsworth: Penguin.

Barreiro-Gonzalez MS. & Pérez-Pereiro, M. (2023). La circulación del subtulado cinematográfico en lenguas no hegemónicas: la oposición entre los derechos autor y el derecho a la diversidad en el acceso fílmico. En Castelló-Mayo, E. (Ed.), *Euvos la aportación de las pequeñas cinematografías al patrimonio cultural inmaterial europeo*, (91-104 or.). Editorial Tirant. [<https://open.tirant.com/cloudLibrary/ebook/show/9788419825056>].

Bautista Jiménez, JM. (2021). *El Convenio marco para la protección de las minorías nacionales: Construyendo un sistema europeo de protección para las minorías* [<https://www.cepc.gob.es/sites/default/files/2021-12/28337rie022003187.pdf>].

Berners-Lee, T. & Fischetti, M. (1999). Weaving the Web: the past and present and future of the World Wide Web by its inventor.

Brea, J. A. F., González, M. E. A. & Vila, T. D. (2008). La accesibilidad como nexo de unión entre la universidad y la sociedad: la creación de mercados globales e integradores. In *Universidad, Sociedad y Mercados Globales* (409-420 or.). Asociación Española de Dirección y Economía de la Empresa (AEDEM).

Borràs Català, V., López, P. & Lozares Colina, C. (1999). La articulación entre lo cuantitativo y lo cualitativo: de las grandes encuestas a la recogida de datos intensiva.

Buda, M. (2018). Minority languages in Europe. Sign language, from European regulations to national decisions. *Analele Universitații din Oradea. Relații Internationale și Studii Europene*, 10, 131-139.

Burri, M. (2014). Trade versus Culture: The Policy of Cultural Exception and the WTO. *Social Science Research Network*, 479-492. [<https://api.semanticscholar.org/CorpusID:168177021>].

Cabrera Blázquez, F. J., Cappello M., L. A., Munch, E., Radel-Cormann, J. & Valais, S. (2023). *Accessibility of audiovisual content for persons with disabilities*. Council of Europe. [<https://rm.coe.int/iris-plus-2023-01en-accessibility-of-audiovisual-content-for-persons-w/1680ab1bdc>].

Cabrera Blázquez, F. J., Cappello, M., Ene, L., Fontaine, G., Grece, C., Kanzler, M., Lacourt, A., Radel, J., Schneeberger, A., Simone, P. & Valais, S. (2023). Yearbook 2022/2023. In Gilles Fontaine, Head of Department for Market Information (Ed.), *Yearbook 2022/2023* (1-64 or.). European Audiovisual Observatory. [<https://rm.coe.int/native/0900001680aa9f02>].

Castaño-Garrido, C. M. & Quecedo-Lecanda, M. R. (2002). Introducción a la metodología de investigación cualitativa. *Revista de psicodidáctica* (14), 5-40.

Castelló-Mayo, E., Käätä, P., Moffat, K. & López-Gómez, A. (2021). Posicionament de veus alternatives a l'Europa audiovisual. *Quaderns del CAC*, 24(47), 25-36.

Castelló-Mayo, E., Ledo-Andión, M., López-Gómez, A. & Baamonde, S.R. (2021). Key Challenges and Recommendations to Provide Europe With a Film-Subtitling Protocol in the Digital Era Through Three Case Studies. *Comunicação E Sociedade*, [<https://www.semanticscholar.org/paper/Key-Challenges-and-Recommendations-to-Provide-With-Castell%C3%B3-Mayo-Ledo-Andi%C3%B3n/da8fd42beee97d7876cb34e4ea10a6384628b43d>].

Castelló-Mayo, E., López-Gómez, A. & Roca-Beamonde, S. (2018). La (di)solución de las identidades culturales europeas en el espacio digital: una reflexión crítica en torno a las pequeñas cinematografías. *Communication & Society*, 31(1), 39-55. doi:10.15581/003.31.1.39-55.

CESyA (d.g.) Centro Español del Subtitulado y la Audiodescripción. [<https://cesya.es/servicios/2832-2/savat/>].

----- **(2022ko abenduak 16).** *La programación con subtitulado y audiodescripción en la TDT aumenta durante 2021.* [<https://cesya.es/la-programacion-con-subtitulado-y-audiodescripcion-en-la-tdt-aumenta-durante-2021/>].

Chaume, F. (2004). Film studies and translation studies: Two disciplines at stake in audiovisual translation. *Meta*, 49(1), 12-24.

----- **(2012).** La traducción audiovisual: Nuevas tecnologías, nuevas audiencias. In *12 congresso dell'associazione Italiana di linguistica applicata*, 143-159.

----- **(2013).** The turn of audiovisual translation: New audiences and new technologies. *Translation Spaces*, 2, 105-123. doi: 10.1075/ts.2.06cha [<https://benjamins.com/catalog/ts.2.06cha>].

----- **(2014).** Cine y Traducción. Madrid: Cátedra.

----- **(2018).** An overview of audiovisual translation: Four methodological turns in a mature discipline. *Journal of Audiovisual Translation*, 1(1), 40-63.

Cordoba-Serrano, M. S. & Díaz-Fouces, O. (2018). Building a field: translation policies and minority languages. *International journal of the sociology of language*, 2018(251), 1-17.

Cormack, M. (2007). Introduction: Studying Minority Language Media. In N. Hourigan & M. Cormack (Arg.), *Minority Language Media. Concepts, critiques and Case Studies* (or. 1–16). Multilingual Matters Limited.

Corona Lisboa, J. (2016). Apuntes sobre métodos de investigación. *Medisur*, 14(1), 81-83.

Danan, M. (1991). Dubbing as an Expression of Nationalism. *Meta*, 36(4), 606-614.

Del Canto, E. & Silva Silva, A. (2013). Metodología Cuantitativa: Abordaje Desde La Complementariedad En Ciencias Sociales. *Revista De Ciencias Sociales*, (141). doi: 10.15517/racs.v0i141.12479.

Delabatista, D. (1989). Translation and mass-communication: Film and TV translation as evidence of cultural dynamics, *Babel* 35.4, 193-218.

Deogracias-Horrillo, M. (2017ko urriak 5-6). *A guarantee of the integration-inclusion of minority languages in audio-visual media* [Komunikazioa]. I. Media Accessibility Platform International Conference, Vigo.

----- **(2017ko azaroak 17).** *Accesibilidad lingüística. Consumo audiovisual sin barreras. Acceso a/para las lenguas minoritarias.* [Komunikazioa]. Simposio Sobre Trásvases Culturales: accesibilidad y traducción en entornos multilingües. Letren Fakultatea. UPV/EHU. Vitoria-Gasteiz. [<https://ehutb.ehu.es/video/5a171993f82b2bf0378b45d0>].

----- **(2021eko martxoak 24-26).** *Hizkuntza gutxitu eta ez-hegemonikoak ikusarazteko estrategiak ikus-entzunezkoetan: euskara, galiziera, katalana eta zeinu hizkuntzak* [Komunikazioa]. Hizkuntza Gutxituen XVIII Nazioarteko Biltzarra. Bilbo.

----- **(2021eko ekainak 9-11).** *ETB ingurune inklusiboa euskararentzat* [Posterra]. Ikergezte 2021 Nazioarteko ikerketa euskaraz biltzarra. Vitoria-Gasteiz.

Deogracias-Horrillo, M., Amezaga-Albizu, J. (2017ko irailak 20-22). *Hizkuntza ez da oztopo ikus-entzunezkoen kontsumoa partekatzeko* [Komunikazioa]. Conference: VIII Annual International Conference on Small Cinemas, Diversity in Glocal Cinemas: Language, Culture, Identity. Bilbo.

Deogracias-Horrillo, M., Azpillaga-Goenaga, P. & Zabalondo-Loidi, B. (2017ko uztailak 12-20). *Políticas de apoyo al euskera en el sistema cinematográfico del País Vasco* [Komunikazioa]. Conference: Conferencia de La IAMCR 2017. Cartagena-Bolívar, Colombia.

Deogracias-Horrillo, M.; Zabalondo-Loidi, B., Azpillaga-Goenaga, P. (2021eko urriak 28-30). *Toward accessibility of Basque language on VOD and cinema. Snapshot of the film and audiovisual fiction in Basque* [Komunikazioa]. 12^a edición del congreso internacional Small Cinemas. Santiago de Compostela, 2021eko urriak 29.

De Ridder, R. & O'Connell, E. (2018). Minority languages, language planning and audiovisual translation. *The Routledge Handbook of Audiovisual Translation*, 401-417.

[<https://text2fa.ir/wp-content/uploads/Text2fa.ir-Minority-languages-language.pdf>].

Design for all (d.g.). *What is DfA*. [<https://dfaeurope.eu/what-is-dfa/>].

Díaz-Cintas, J. (2005). Nuevos retos y desarrollos en el mundo de la subtitulación. *Puentes: Hacia nuevas investigaciones en la mediación intercultural*, 6, 13-20.

----- **(2010).** La accesibilidad a los medios de comunicación audiovisual a través del subtitulado y de la audiodescripción. *ESLEtRA*.

----- **(2011).** Dealing with multilingual films in audiovisual translation. In W. Pöckl, I. Ohnheiser & P. Sandrini (Ed.), *Translation-Sprachvariation-Mehrsprachigkeit. Festschrift für Lew Zybatow zum 60. Geburtstag*, (215-233 or.). Peter Lang.

----- **(2012).** Clearing the smoke to see the screen: Ideological manipulation in audiovisual translation. *Meta*, 57(2), 279-293.

----- **(2017).** Un ejemplo de explotación de los medios audiovisuales en la didáctica de lenguas extranjeras. Universidad de Valencia.

Díaz-Cintas, J. & Remael, A. (2014). *Audiovisual translation: subtitling*. Routledge.

Díaz-Cintas, J, Orero, P. & Remael, A. (2007). *Media for all: Subtitling for the deaf, audio description, and sign language*, 30, 11, Rodopi, Amsterdam.

Donolo, D. S. (2009). Triangulación: Procedimiento incorporado a nuevas metodologías de investigación. *Revista Digital Universitaria, Volumen 10, Nº 8*, 1-10.

Dwyer, T. (2005). Universally speaking: Lost in Translation and polyglot cinema. *Linguistica Antverpiensia, New Series—Themes in Translation Studies*, 4.

----- (2021). Universally speaking: Lost in Translation and polyglot cinema. *Linguistica Antverpiensia, New Series – Themes in Translation Studies*, (4), 295-310. doi: 10.52034/lanstts.v4i.143.

EITB (2020). *EITBrako Hizkuntza Funtsak.*
[<https://www.eitbtaldea.eus/pdf/EITBRAKO-HIZKUNTZA-FUNTSAK.pdf>].

EITB Media (2023). *Abian da PRIMERAN, euskarazko eta euskal edukien streaming plataforma berria.*
[<https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/osoa/9305488/primeran-euskarazko-eta-euskal-edukien-streaming-plataforma-berria-irailaren-15etik-aurrera-izango-da-ikusgai/>].

Espainiako Gobernua (2003). Ley 51/2003, de 2 de diciembre, de igualdad de oportunidades, no discriminación y accesibilidad universal de las personas con discapacidad. [<https://www.boe.es/eli/es/l/2003/12/02/51/con>].

----- (2010). Ley 7/2010, de 31 de marzo, General de la Comunicación Audiovisual. (2022an onartutako lege orokor berriak indargabetua). [<https://www.boe.es/eli/es/l/2010/03/31/7/con>].

----- (2022). Ley 13/2022, de 7 de julio, General de Comunicación Audiovisual.. [<https://www.boe.es/eli/es/l/2022/07/07/13/con>].

Esteban, M. L. y Ramallo, F. (2019): “Derechos lingüísticos y comunidad sorda: claves para entender la minorización”. *Revista de Estudios de Lenguas de Signos REVLES: Aspectos lingüísticos y de adquisición de las lenguas de signos*, Morales López, E. y Jarque Moyano, M. J. (eds.), 1: 20-52.

Etxebarria, I. (1994). Doblaje y subtitulación en Euskal Telebista en Eguiluz, F.; Merino, R.; Olsen, V. & Pajares, E. (Ed), *Trasvases culturales: Literatura, cine, traducción* (191-197 or.). UPV/EHU. Filología Ingelesa eta Alemaneko Fakultatea.

Europako Batzordea (1989). Mugarik gabeko telebistaren zuzentaraua. Television Broadcasting Activities: "Television without Frontiers" (TVWF) Directive. [<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX:31989L0101>].

----- (2010). Directive 2010/13/EU of the European Parliament and of the Council of 10 March 2010 on the coordination of certain provisions laid down by

law, regulation or administrative action in Member States concerning the provision of audiovisual media services (Audiovisual Media Services Directive) (Codified version) (Text with EEA relevance) [<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=celex%3A32010L0013>].

----- **(2013)**. 2013/C 332/01 Comunicación de la Comisión sobre la ayuda estatal a las obras cinematográficas y otras producciones del sector audiovisual [<https://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2013:332:0001:0011:ES:PDF>].

----- **(2015)**. *A Digital Single Market for Europe: Commission Sets Out 16 Initiatives to Make it Happen*. [https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/en/IP_15_4919].

Europar Batasuna (2007). *Tratado de Lisboa* por el que se modifican el tratado de la Unión Europea y el tratado constitutivo de la Comunidad Europea, firmado en Lisboa el 13 de diciembre de 2007, OJ C 306, 2007/c 306/01. [<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A12007L%2FTXT>].

----- **(2012)**. *Treaty on the European Union*, OJ C326, 2012/C 326/01. [<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/HTML/?uri=OJ:C:2012:326:FULL>]

Europar Kontseilua (1992). Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna. Estrasburgon onartua, 1992ko azaroaren 5ean. [https://www.euskadi.eus/web01-a3elebze/eu/contenidos/informacion/euskera_en_administracion/eu_6151/eu_euskara_administrazioan_04.html].

Europako Parlamentua (2018). Directiva (UE) 2018/1808 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de noviembre de 2018, por la que se modifica la Directiva 2010/13/UE sobre la coordinación de determinadas disposiciones legales, reglamentarias y administrativas de los Estados miembros relativas a la prestación de servicios de comunicación audiovisual (Directiva de servicios de comunicación audiovisual), habida cuenta de la evolución de las realidades del mercado [<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=CELEX%3A32018L1808>].

----- **(2021)**. *Regulation (EU) 2021/818 of the European Parliament and of the Council of 20 May 2021 establishing the Creative Europe Programme (2021 to 2027) and repealing Regulation (EU) No 1295/2013* [<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX%3A32021R0818>].

----- **(2021)**. European Parliament resolution of 20 October 2021 on Europe' s Media in the Digital Decade: An Action Plan to Support Recovery and Transformation.

-----**(d.g.)**. *Publikoaren Lux sariak 2024*. [<https://lux-award.europarl.europa.eu/es/films>].

----- **(2023)**. *Report on the implementation of the revised Audiovisual Media Services Directive (2022/2038(INI))* [https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-9-2023-0139_EN.pdf].

Euskal Herriko Unibertsitatea (2015). "Tesiak euskaraz egiteko doktorego aurreko ikertzaileak prestatzeko kontratazio-deialdia". Euskara errektoreordearen erabakia 2015ko ekainaren 1ekoa.

Gizarte Komunikazio Masterra (d.g.). *Gizarte Komunikazioa Masterra*. UPV/EHU. [<https://www.ehu.eus/eu/web/master/gizarte-komunikazioa-masterra>]

Eusko Jaurlaritza (1982). "Euskal-Irrati Telebista" Herri-Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea [<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd1996005170>].

----- **(2000)**. 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen a [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cvpa_normativa/es_ncvpa/adjuntos/anexo_decreto_68_2000.pdf].

----- **(2001)**. 126/2001 Dekretua, uztailaren 10ekoa, Garraioan Irisgarritasun-baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituen a [<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2005001181>].

----- **(2016)**. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren
Sektore Sozialari buruzkoa
[<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2016/05/12/6/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/>].

----- **(2017)**. 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irigarritasuna
Sustatzekoa.
[<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/1997/12/04/20/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu/>].

----- **(2017ko otsailak 3)**. *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak erabiltzaile guztien eskura jarri ditu 279 filmen eta 24 serietako 225 kapituluren azpitoluak.*
[<https://www.euskadi.eus/eusko-jauraritza/-/filmen-eta-telesailen-euskarazko-azpituluak/>].

----- **(2019)**. Irigarriatsun unibertsalaren Euskadiko Estrategia.
[<https://www.euskadi.eus/irigarritasun-unibertsalaren-euskadiko-estrategia/web01-a2aces/eu/>].

----- **(2020)**. Irigarritasun unibertsalaren Euskadiko Estrategia. Irigarritasuna sustatzeko Euskal Kontseilua, 2020ko urtarrila
[<https://www.euskadi.eus/irigarritasun-unibertsalaren-euskadiko-estrategia/web01-a2aces/eu/>].

----- **(2021)**. *Euskararen ingurune digitala. Gomendioak 2021-2024.*
Eusko Jauraritza, Vitoria-Gasteiz.

Eusko Legebiltzarra (2008). Legez besteko proposamena [EITBren Legebiltzar Kontrolerako Batzordea, Eusko Legebiltzarra]. Euskal telebista publikoan gorren eskubideak errespetatzeari buruz (08/11.02.01.0511). 2008ko azaroak 17.

----- **(2019)**. Legez besteko proposamena [EITBren Legebiltzar Kontrolerako Batzordea, Eusko Legebiltzarra]. 60/2019 Legez besteko Proposamena, EITBren albistegien orotariko irigarritasuna, desgaitasun sentzoriala duten pertsonena barne, bermatzeari buruz (11/11.02.01.00334). 2019ko ekainak 25.

----- **(2021a)**. Informazio eskabidea legebiltzarkide batek egina, ETBren programazioan azpidatziak erabilteari buruz (12\10\07\02\00406). 2021eko urtarrilak 15.

----- **(2021b)**. Legez besteko proposamena [EITBren Legebiltzar Kontrolerako Batzordea, Eusko Legebiltzarra]. ETB1ek azpidatziei dagokienez, bere edukien % 90 azpidatzita egon daitezten, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko 7/2010 Lege Orokorra betetzearen inguruan (12\11\02\01\00121). 2021eko ekainak 1.

EUVOS. Patrimonio Cultural Inmaterial. Para un programa europeo de subtítulo en lenguas no hegemónicas (2016-2019). FEDER/Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades – Agencia Estatal de Investigación/ ref. CSO2016-76014-R [<https://estudiosaudiovisuais.org/es/investigacion/euvos/>].

Fernández Aquino, L. C. (2009). *E-accesibilidad y usabilidad de contenidos digitales. Por una sociedad de la información y el conocimiento no excluyente* [Doktore tesia]. Universitat Politècnica de València).

Ferreira, M. (2023). *El Festival de San Sebastián ofrece por primera vez subtítulos en euskera en todas sus películas de la sección oficial* [https://www.eldiario.es/euskadi/festival-san-sebastian-ofrece-primera-vez-subtitulos-euskera-peliculas-seccion-oficial_1_10481484.html].

Fraiz-Brea, JA., Alén-González, ME., & Domínguez-Vila, T. (2008ko irailak 25-26). *Un nuevo desafío para la Web: el contenido sobre accesibilidad en las Web turísticas oficiales de las Comunidades Autónomas* [Komunikazioa]. VII Congreso Nacional turismo y tecnologías de la información y las comunicaciones. Universidad de Málaga, Marbella. [https://turitec.es/wp-content/uploads/TURITEC_2008.pdf]

Franco, EP. (2001). Voiced-over television documentaries: Terminological and conceptual issues for their research. *Target. International Journal of Translation Studies*, 13(2), 289-304.

Gabilondo, M. (2020). *Erlauntza*. La Tentación Producciones.

Gambier, Y. (2003). Introduction: Screen transadaptation: Perception and reception. *The translator*, 9(2), 171-189.

Garaño, J. & Arregi, A. (2017). *Handia* [Filma]. Irusoin, Kowalski Films, Moriarti Produkzioak.

García-Crespo, A., López-Cuadrado, J.L., González-Carrasco, I. (2013). WhatsCine: Sistema de accesibilidad para eventos culturales basado en plataformas móviles. *Uc3*,
[http://portal.uc3m.es/portal/page/portal/TOPLEVELSITE/WhatsCine/Paper%20WhatsCine_v1.2_5.pdf].

----- **(2015eko urriak 15-16).** *Accesibilidad en plataformas de VoD mediante plataformas móviles: piloto en Movistar*. VI International Conference on Interactive Digital TV IV Iberoamerican Conference on Applications and Usability of Interactive TV, Palma de Mallorca.

Gerber, E. (2002). Surfing by ear: Usability concerns of computer users who are blind or visually impaired. *Access World*, 3(1), 38-43.

Geva-López, E. (2011). *De la discapacidad a la participación social: un compromiso como ciudadanos*. XII Congreso Internacional de la Teoría de la Comunicación. Universidad de Barcelona. Consultado el (Vol. 4).
[<https://www.cite2011.com/wp-content/Comunicaciones/A+R/209.pdf>].

Gil-Flores, J., (1994). *Análisis de datos cualitativos: aplicaciones a la investigación educativa* (1a., Ser. Lct, 91). PPU.

----- **(2003).** La estadística en la investigación educativa. *Revista de investigación educativa*, 21 (1), 231-248.

Gil-Sabroso, E. & Utray-Delgado, F. (2016). La lengua de signos en televisión en España. Estudio de recepción. *Área Abierta*, 16(1). doi: 10.5209/rev_ARAB.2016.v16.n1.47508.

Giustini, D. & Jiménez-Andrés, M. (d.g.). *The Crossroads between Language Rights and Technology*. [<https://ojs.uv.es/index.php/JUST/pages/view/5.1>].

Garaño, J. eta Goenaga, JM. (2014). *Loreak*. Irusoin, Moriarti Produkzioak.

Grece, C. (2021). *Trends in the VOD market in EU28.* (). [https://search.coe.int/observatory/Pages/result_details.aspx?ObjectId=0900001680a1511a].

Greco, G. M. (2016). On accessibility as a human right, with an application to media accessibility. In A. Matamala & P. Orero (Eds.), *Researching Audio Description. New Approaches* (11- 33 or.). London, United Kingdom: Palgrave Macmillan.

----- **(2018).** The nature of accessibility studies. *Journal of Audiovisual Translation*, 1(1), 205-232.

Greco, G. M., Matamala, A., Orero, P. & Romero-Fresco, P. (2016). Mapping media accessibility across the world. *9th NEM Summit*, (9).

Greco, G. M. & Jankowska, A. (2020). Media accessibility within and beyond audiovisual translation. In Bogucki, Ł., Deckert, M. (eds) (Ed.), *The Palgrave Handbook of Audiovisual Translation and Media Accessibility. Palgrave Studies in Translating and Interpreting*, 57–81. Palgrave Macmillan. doi: 10.1007/978-3-030-42105-2_4.

Gottlieb, H. (2004). Language-political implications of subtitling. *Benjamins Translation Library*, 56, 83-100.

Guenaga, M. L., Barbier, A. & Eguiluz, A. (2007). La accesibilidad y las tecnologías en la información y la comunicación. *TRANS: revista de traductología*, (11), 155-169.

Gutiérrez-Lanza, MC. (1999). Traducción y censura de textos cinematográficos en la España de Franco; doblaje y subtitulado inglés-español (1951-1975) [Doktore tesia]. Leongo unibertsitatea.

Guyot, J. (2007). Minority language media and the public sphere. *MULTILINGUAL MATTERS*, 138, 34.

Haf Gruffydd Jones, E. (2013). Permeable and impermeable linguistic boundaries: from mass media to social media in policy and practice in minoritised language contexts. *Zer.Revista De Estudios De Comunicación*, 18, 29-45.

Hernández Navarro, M. & Montes López, E. (2002). Accesibilidad de la cultura visual: límites y perspectiva. *Integración: Revista sobre ceguera y deficiencia visual*, 40, 21-28. [<http://www.once.es/appdocumentos/once/prod/Integracion%2040.pdf>].

Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Bartzelona. (1996). Conferencia Mundial de Derechos Lingüísticos: Declaración de Barcelona, *Comité de Seguimiento, Declaració universal de drets lingüístics. Comitè de Seguiment de la Declaració Universal de Drets Lingüístics*. [https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000104267_spa].

Hirvonen, M. & Kinnunen, T. (2020). Accessibility and linguistic rights. In *The Routledge Handbook of Translation and Ethics* (470-483 or.). Routledge.

Hurtado, A. (1994). “Modalidades y tipos de traducción”. *Vasos Comunicantes*, Vol. 4 (19-27). Madrid: Sección Autónoma de Traductores de Libros de la ACE.

ICAA (d.g.). *20.000 especies de abejas*. Catálogo del cine español. [<https://sede.mcu.gob.es/CatalogoICAA/Peliculas/Detalle?Pelicula=109221>].

IMSERSO (1996). CONCEPTO EUROPEO DE ACCESIBILIDAD. *Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*.

Irion, K. & Valcke, P. (2015). Cultural diversity in the Digital Age: EU competences, policies and regulations for diverse audiovisual and online content. In E. Psychogiopoulou (Ed.), *Cultural Governance and the European Union*. Palgrave Studies in European Union Politics. Palgrave Macmillan. doi: 10.1057/9781137453754_7.

Ivarsson, J. and Carroll, M. (1998). *Subtitling*. Transedit, Simrishamn, Sweden.

Izagirre, L. (2020). *Nora*. Gariza Films, Tandem Films, La Fidèle Production.

Izard, Natàlia (2001). “Doblaje y subtitulación: una aproximación histórica.” Miguel Duro (ed.) (2001). *La traducción para el doblaje y la subtitulación*. Madrid: Cátedra, 189-209.

Juaristi Larrinaga, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*.

- Jacobsen, U.C. (2018).** Does subtitled television drama brand the nation? Danish television drama and its language(s) in Japan. *European Journal of Cultural Studies*, 21(5), 614-630. doi: 10.1177/1367549417751150.
- Jankowska, Anna. (2019).** Audiovisual media accessibility. *The Bloomsbury companion to language industry studies*, 231-259.
- Jiménez-Crespo, M.A. (2019).** Technology and non-professional translation. In *The Routledge handbook of translation and technology* (239-254 or.). Routledge.
- Krausneker, V. (1999).** Sign Languages and the Minority Language. *Bilingualism and Identity in Deaf Communities*, 142.
- Larrinaga Larrazabal, A. (2019).** Euskal telebistaren sorrera, garapena eta funtzioa euskararen normalizazioaren testuinguruan [Doktore tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Laxe, O. (2019).** *O que arde*. Coproducción España-Francia-Luxemburgo; 4A4 Productions, Miramemira, Tarantula.
- Lee, N., Lings, I. (2008).** *Doing business research: a guide to theory and practice*. Sage.
- León, O. G. & Montero, I. (2003).** *Métodos de investigación en psicología y educación*. Aravaca, Madril.
- Li, D., & Looms, P. O. (2015).** Television Accessibility in China. *A Multimodal End-2-End Approach to Accessible Computing*, 261-273.
- Lleonart, A. (2024).** 3Cat recordarà als treballadors la responsabilitat de promoure el català.
[<https://www.vilaweb.cat/noticies/3cat-treballadors-promoure-catala-pla-impuls-linguistic/>].
- Luyken, G. M., & Herbst, T. (1991).** *Overcoming language barriers in television: Dubbing and subtitling for the European audience* (No. 13). European Institute for the Media.

Kilborn, R. (1993). 'Speak my language': current attitudes to television subtitling and dubbing. *Meida, Culture And Society*, 15, 641-660.

Kuipers-Zandberg, H., Schukking, A. F. (2021). Accessibility for regional or minority languages to EU programmes. A practical assessment.

Lassiter, L. (2005). Collaborative ethnography and public anthropology. *Current anthropology*, 46(1), 83-106.

----- **(2021).** Collaborative ethnography. *Transforming Ethnomusicology Volume I: Methodologies, Institutional Structures, and Policies*, 59.

Ledo-Andión, M., López-Gómez, A. & Pérez-Pereiro, M. (2016). Cine europeo en lenguas de naciones sin estado y pequeñas naciones. *Revista Latina De Comunicación Social*, (071), 309-331. doi: 10.4185/RLCS-2016-1097.

Ledo-Andión, M., López-Gómez, A., & Castelló-Mayo, E. (2017). The role of original version cinema into the European digital space. *Comunicar*, 25(51), 73-82.

López-Gomez, A. M., Castelló-Mayo, E. & Arias-Iglesias, M. (2015). Las cinematografías minoritarias y minorizadas en la política cultural de la Unión Europea: la alternativa danes. *Fonseca, Journal of Communication*, (11), 32-59.

Maldonado, C. E., (2015). Pensar la complejidad, pensar como síntesis. *Cinta de Moebio* 54, 313-324.

Manías-Muñoz, M. (2013). Euskarazko fikziozko zinemaren susperraldi hauskorra (2005-2012). *Ikusgaiak*, 8, 85-108.

----- **(2015).** Euskarazko zinemaren produkzioa eta finantziarioa (2005-2012): hamaika fikziozko film luzeren azterketa ekonomikoa [Doktore tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.

